

Euskadiko Kooperatiben Legea

Aldez aurreko onarpena

ZIOEN AZALPENA

I.- EAEko kooperatibei buruzko legeria aldatzea eta bateratzea: aurrekariak eta justifikazio orokorra

Lan elkartuko kooperatiben eskutik euskal kooperatibagintza lortzen ari zen garapenak, konplexutasunak eta, batez ere, potentzialtasunak eraginda, euskal legegilea goiz ohartu zen beharrezko zela tresna juridiko propio eta egoki bat garatzea euskal kooperatibagintza babestu eta sustatzeko. Horretarako, Autonomia Estatuak —18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen— 10.23 artikuluan eskusiboki eskaintzen zion eskumena garatu zuen (Konstituzioak ere hartara behartzen ditu botere publikoak bere 129.2 artikuluan).

Kooperatibei buruzko otsailaren 11ko 1/1982 Legeak helburu hori bete zuen; izan ere, lege horrek eskaintzen zuen konfigurazio juridiko kooperatiboaren babesean enpresa-proiektu garrantzitsuak garatu ziren, eta horrekin batera lanpostu asko finkatu eta sortu ziren; aldi berean, segurtasun juridikoa eman zitzaion sistema osoari.

Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legea (hemendik aurrera 4/1993 Legea) indarrean egon den hogeita bi urteotan erabakigarria izan da eredu juridiko kooperatiboa finkatzeko; eredu horri esker, EAEko kooperatibek egun dituzten premiei erantzun ahal izan zaie, eta, aldi berean, arau berriak garatu ahal izan dira, beharrezkoak baitziren kooperatibek merkatu gero eta globalizatuagoetan lehiatu eta finkatzeko.

Unean uneko premiei erantzun beharrak berekin dakar legeria etengabe berritu beharra. Hala, hainbatetan aldatu behar izan da 4/1993 legea, alderdi espezifiko batzuk egokitzeke presak eraginda:

- *Ekainaren 29ko 1/2000 Legea, Euskadiko Kooperatiben Legea aldetzen duena.*
- *Abenduaren 1eko 8/2006 Legea, Euskadiko Kooperatiben Legea bigarrenez aldatzen duena.*
- *Ekainaren 25eko 6/2008 Legea, Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa (laugarren xedapen gehigarria).*

Gainera, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duen 58/2005 Dekretua onartu eta argitaratu zen, baita beste batzuk ere: martxoaren 29ko 59/2005 Dekretua, Kooperatiba Erregistroaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena; otsailaren 2ko 64/1999 Dekretua, onura publikoko kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzen duena, eta apirilaren 4ko 61/2000 Dekretua, Gizarte Ekimeneko Kooperatibak arautzen dituena.

Lege berri honen helburua da 4/93 Legea aldatu zuten arau horiek testu bakar batean bateratzea eta sistematizatzea, indarreko araua erraz identifikatu eta aplikatu ahal izateko; hau da: kooperatibei buruzko araua interpretatzeko eta aplikatzeko behar besteko segurtasun juridikoa eskainiko duen testu juridiko bat eskaintzea.

Testu bakar honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren legeriaren mende dauden kooperatibei ezar dakizkiekeen xedapen guztiak jaso dira; alabaina, testu-bateratzeak baditu beste helburu batzuk ere: batetik, harmonizazio-helburua du, batez ere terminologiari eta oinarri berbera izateari eta konponbide juridikoari dagokienez; bestetik, zehaztasun-falta duten edo aplikatzeko orduan zalantzak sor litzaketen arau-elementu batzuk argitu nahi izan dira. Arau-elementuok argitzeko, bestalde, batzuetan araua gehiago garatu behar izan da zuzen interpretatzen laguntzeko, aldatu gabe jatorrizko zentzua eta helburua.

Testu bakar batek eskaintzen duen sistematizazioari dagokionez, esan behar da oso garrantzitsua dela kooperatiba-legeriak egun duen bilakaeraren barruan; izan ere, une honetan, beharrezkoa da sozietate-kooperatibak —batez ere kooperatiba-mota batzuk— garatzeko arau jakin batzuk sortu eta garatzea, betiere aldatu gabe jatorrizko legeriaren gutxieneko oinarriak.

Aldaketan barruan, azpimarratzekoa dira Administrazioaren jardunean egindakoak: nola eta zenbateraino sustatu behar dituen kooperatibak eta zer neurri ezarri behar dituen kooperatibek legea betetzen ote den kontrolatzeko.

Hala, honako hauek lortu nahi dira testu honetan emandako arauen bidez: zaharkituta geratutako hainbat alderdi gainditzea, kontuan harturik horien kostua eta aplikatzeko erakusten duten zailtasuna; kooperatiben autonomia indartzea, proiektu kooperatibo bakoitza ondoen dagokion moduan erregulatzeko, betiere errespetatuz sozietate bati kooperatiba-izaera ematen dioten identifikazio-lerroak; kooperatiben funtzionamendu demokratikoa eta parte-hartzailea bermatzea, eta, aldi berean, kudeaketa eta kontrolen eraginkortasuna bermatzea eta publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren indartzea. Funtsean, segurtasun juridikoa eranstea lortu nahi da, barne zein hirugarrenekiko harremanetan, hau da, kooperatibei buruz EAEn dagoen legeria tresna egokia izatea kooperatiben barne-harremanak eta kanpoko trafiko juridikoa finkatzeko.

Hori guztia indarreko araudiaren egituran txertatu da; arau gehienek bere horretan dira, eta bat egiten dute araudi-diseinuen lerro nagusiekin: kudeaketa-organoa profesionalizatzea, erabakiak azkar hartzea eta finantza-baliabideak eta elkar-lankidetzaren indartzea. Horrela, enpresek baldintza berberekin lehiatzea lortu nahi da, baina alde batera utzi gabe sozietatearen identitate kooperatiboa, funtzionamendu demokratikoa eta erantzukizun soziala.

Helburu hori lortzeko, kontuan hartu da: batetik, zer egoera eta bilakaera duen, egun, merkataritzako araudi orokorrak, eta, horrekin batera, zer araudi eta irtenbide eman zaizkien kooperatibei zuzenbide konparatuan; eta, bestetik, zer neurri eta tresna ezarri diren oraintsu ekintzaileentzat. Hori guztia kooperatibek auto-antolakuntzarako duten autonomiarekiko orekari eutsiz egin nahi izan da, bat etorritzat haien tradizioarekin eta orokorrean onartuta dauden printzipio eta parametroekin.

Lege hau honela dago egituratuta: 154 artikulua, 5 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, 5 azken xedapen eta xedapen indargabetzailerik bat; guztiak lau titulu, 15 kapitulu eta 18 ataletan banatu dira.

II. Xedapen orokorrak

Kontuan hartuta egungo egoera, komenigarri ikusi da espresuki aipatzea Nazioarteko Kooperatiba Aliantzan jasotako printzipioak, lagungarri gerta daitezkeelako bai kooperatiba-sozietatearen kontzeptua hobeto zehazteko eta ulertzeko, bai hari buruzko araudia hobeto interpretatzeko eta aplikatzeko, betiere eutsiz 4/1993 Legean sozietate-kooperatiba kontzeptuari buruz egiten den formulazioari eta horrek eskaintzen duen legezko bermeari.

Sekzioei dagokienez, esan behar da arlo horrek aurretik ere egokitzapen asko izan dituela, beti azpimarratuz kooperatiben erantzukizunak batasun-izaera duela eta haien organoak sekzioetako gainera gainera daudela. Lege honetan, sekzioen barne-funtzionamendua malgutu da, baina kontuan hartuta aipaturiko batasun-izaera, batez ere hirugarrenetikiko harremanetarako.

Hirugarrenetikiko eragiketen arauketari dagokienez, orokorrean ezer gutxi aldatu da, eta bazkideekiko eragiketek lehentasuna izaten jarraitzen dute; alderdi hori, alabaina, malgutu egin da nekazaritzako elikagaien kooperatiben kasuan, eta berariaz arautu da zeintzuk diren malgutzeko arrazoiak eta gorde beharreko kautela. Lehen bezala arautu da, halaber, enpresa-jarduerak burutzen dituzten kooperatibek behar duten gutxieneko sozietate-kapitalari buruzkoa; izan ere, ekintzailetza-mota guztien eskura egotea lortu nahi da.

III.- Kooperatibak eratzea

Kooperatibak eratzeko arauak ez dira aldatu, bakarrik harmonizaziorako doikuntza tekniko batzuk egin dira: diru-itzulketa ez da beti eskubide bat izango eta organo batzuk ez dira nahitaezkoak; aplikatu beharreko legeei dagokienez, sozietate anonimoen legearen orde, kapital-sozietateena aplikatu beharko da, eta, zehapen prozedurarako, Jaurlaritzan enplegu-arloko eskumena esleituta daukan sailera joko da, eta ez legegintzaldi bakoitzean aldatzen den sailera. Orobat malgutu da, eraketa-eskrituran berean, bazkideek kooperatiban izan beharreko konpromisoa edo gutxieneko parte-hartzea: lege honen arabera, ez da hori zehaztu beharrik izango, eta, horren orde, nahikoa izango da adieraztea zer irizpide ezarriko diren parte-hartze hori ezartzeko.

IV.- Euskadiko Kooperatiba Erregistroa

Aldatu gabe geratu dira, halaber, Euskadiko Kooperatiba Erregistroaren oinarriko printzipioak ere: publizitate formala eta materiala, legalitatea, legitiimitatea, lehentasuna eta segidako traktua. Era berean, azaltzen da zein kasutan aurkaratu daitekeen merkataritzako bide judizialean, eta zein kasutan administrazioarekiko auzibidean; eta eranstean da, praktikotasunagatik, zein hartuko den kooperatiben eratze-datatzat: inskribatzeko titulua aurkezten den eguna.

Era berean, berariaz aipatzen da zer bide erabil daitezkeen inskripzio-prozesuetan: bide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak.

V. Bazkideak

Indarrean dauden baldintza berberetan arautu da bazkideen egoera juridikoa: estatutuetan finkatu beharko da, nahitaez, zein diren lan-bazkideen parte-hartzeari buruzko irizpideak; argitu da, bestalde, parte hartu ahal izango dutela beste erakunde batzuetan ere, baldin eta erakundeok lankidetzan badihardute haien kooperatibekin, edo partaidetza badute haietan. Nolanahi ere, parte-hartze hori mugatua izango da kopuruari dagokionez, salbu eta enpresa-krisialdien kasuan (alderdi hori dagoeneko aurreikusita eta garatuta zegoen erregelamendu bidez).

Berdin arautu da, halaber, bazkideen informazio-eskubidea: bazkideek eskubidea izango dute sozietatearen dokumentazio garrantzitsuena izateko; informazioa mugatu ahal izango zaie, kooperatibentzat oso kaltegarritzat jotzen den kasuan edo bazkideen eskaera nabarmen abusuzkotzat jotzen denean; informazioa ukatzen denean motibatu egin beharko da, eta batzar orokorrak du azken erabakia hartzeko eskubidea. Bestalde, bazkide guztiak gorde beharko dute isilpekoa, sozietatearen interesei kalterik ez egiteko; aldi berean, proposamenak egiteko eskubidea izaten jarraituko dute.

Bere horretan utzi dira honako alderdi hauek ere: zenbat bazkide behar diren gutxienez kooperatiba bat eratzeko (hiru); zer prozesu bete bazkideak onartzeko; nola aurkaratu ez onartzeko erabakia, eta zer ondorio dituen aurkaratzeak; zenbat dirauen probaldiak; zer eratako bajak dauden eta zer epe dauden pertsona juridikoei aurreabisua emateko; zenbat denboran izan behar den gutxienez bazkide; zer eskubide duen kooperatibak kooperatiba uzten duen bazkideari exijitzeko ezen bete ditzala lehendik finkatuta dauden betebeharrak, eta nola bereizten diren legez baja arrazoituak eta arrazoitu gabeak, eta zer kasutan bilakatzen den baja nahitaezko baja. Sozietate-diziplina ere ez da ukitu: zer zehapen-mota dauden; noiz preskribatzen duten faltek eta zein diren prozedura-arauak; noiz eteten diren bazkideen eskubideak; zer epe dauden ebazteko eta zein une zehatzetan landuko den gaia batzar orokorrean.?

Sistematizazioaren mesedetan, bazkideei buruzko kapituluaren lehen artikuluan azaltzen da zein diren sozietate-modalitate ezberdinak eta nola definitzen diren; izan ere, sakabanatua agertzen ziren aurreko legean. Halaxe egin zen, bestalde, erregelamenduan ere. Aipatzekoa da, ildo horretan, lehenengo baldintza berak ezarri direla iraupen mugatuko bazkideek sozietatearekin dituzten harremanak arautzean; izan ere, praktikan ikusi da beharrezkoak direla eta bat datozela kooperatiba-sozietatearen kooperatiba-izaerarekin; bazter utzi da, beraz, besteren kontura lan egiten duten langileak kontratatze aukera, eta erantsi da zenbat denbora behar den iraupen mugatuko bazkide izatek eta zer prozedura jarraitu behar den horretarako.

Jarduean ez dauden bazkideak edo erabiltzaile ez diren bazkideei buruzko alderdiak ere lehen bezala arautu dira, haien botoa bazkideen boto guztien bostena izatera mugatuta; berrikuntza bezala, bazkide-egoera berri bat aurreikusi da: eszedentziadunena. Bazkide horien eskubide eta betebeharrak estatueta erregulatuko dira.

VI. Sozietatearen organoak

Arlo honetan, oro har, hainbat aldaketa egin da alderdi espezifiko batzuk garatzeko; ildo horretan, berrikuntza handienak administrazio- eta kudeaketa-organotan egin dira, gehiago arautu baita arlo hori.

Hala, eta kontuan harturik sistematizazioak duen garrantzia, lehendabizi adierazi da zein diren kooperatiba-organak, haiek banan bana arautzeari ekin baino lehen; antolaketaren arloa, berriz, sozietate bakoitzaren esku utzi da, haien funtzionamendu egokia bermatzeko.

Batzar orokorrari dagokionez, lehen bezala utzi dira: konfigurazioa eta funtzioak, ondo bereizita gainerako organoen funtzioetatik, enpresa modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko eta segurtasun juridikoa eskaintzeko; araubide juridikoa (1993an berritua, bazkide askoko kooperatiben deialdietarako publizitate indartuari dagokionez); bi herenez osaturiko gehiengo indartuak, hainbat erabaki hartzeko behar direnak (gutxiago dira kasu horiek); boto plurala emateko aukera, pertsona juridiko jakin batzuek dutena; bazkideen boto-eskubide mugatua, partziala denean kooperatiban burutzen duten jarduera; interes-gatazkak eta horien ondorioen arauketa, baita akta idazteari eta onartzeari dagozkion alderdi formalak ere.

Aldiz, berrikuntza bat sartu da batzar orokorra egiteko prozeduran: irakaskuntza-kooperatiben kasuan, hirugarren deialdi baten bidez egin ahal izango da batzarra, betiere bigarrenerako deialdia egin ondoren (salbuespen hau lehendik onartuta zegoen kontsumo- eta nekazaritza-elikagaien kooperatibentzat); horretarako, aldatu egin da hasierako arauketa, bigarren deialdira bertaratuen quorum jakin bat eskatzen zuena. Aldaketa hori egiteko erabilitako arazoak, lehenengo aldaketa egiteko —Kontsumoaren eta Nekazaritza-elikagaien kooperatibentzat egindakoa— erabilitako berberak dira: batetik, parte-hartzea; eta, bestetik, errealtate soziologikoa, behar bezala kontrastatua. Beste berrikuntza bat ere sartu da: informazio eta hedabideetako teknologia berriak erabili ahal izango dira batzar orokorraren deialdiak egiteko; izan ere, aurreikusten da ezen, gutxieneko informazio bat bermatuta, bazkideek errazago parte hartu ahal izango dutela sozietateak hartu beharreko erabakietan.

Bada, azkenik, azpimarratu beharreko beste berrikuntza bat: erabakiak aurkaratzeko, kapital-sozietateei buruz oraintsu erregulatutako legean ezarritako irizpideak ezarriko dira (kasuak, legitimazioa, epeak eta

iraungipena). Hala egin da kooperatiba-enpresen trafikorako segurtasun juridikoa bermatzeko eta uste delako ez diela eragingo kooperatiben ezaugarri espezifikoiei.

Kooperatibak administratzeari eta ordezkatzeari dagokionez, lehen bezala arautu dira honako hauek: administratzaileek eskusiboki esleituta dituzten funtzioak eta haien jardunak fede oneko hirugarrenengan dituen ondorioak, nahiz eta hirugarren horiek egindakoa ez izan sozietatearen helburuaren baitakoa. Bere horretan diraute, halaber, kontseiluaren izaerak —kideanitzea edo kidebakarra izan daiteke—, bazkideak ez diren pertsonen parte-hartze mugatua izateko aukerak —haien profesionalizazioa errazteko—, gehiengo indartuak —garrantzi handiko erabakiak hartzeko— eta ezintasunen eta debekuen araudiak, baita betearazpen-batzordeak eta kontseilari delegatuak izendatzeko aukerak ere.

Kooperatiba bakoitzak bere errealitatearen eta beharren arabera hartutako erabakien arabera, arauak gradualki aldatu dira, edo malgutu; hala, kide anitzeko organoetan zenbat kide egon behar duten gehienez eta zenbat gutxienez, hori estatutuetan arautu ahal izango da, eta batzar orokorraren esku utziko da zenbat kide egongo diren kasu bakoitzean; profesionalizazioa bultzatzeko, igo egin da organo horretan bazkide ez direnek parte hartzeko muga (heren bat, gehienez ere); gizon- eta emakume-kopurua orekatzen saiatu beharko da; idazkari-kargua betetzeko, profesional bat jarri ahal izango da kontseilari baten ordezkari; kargugabetutako kontseilariaren ordezkari ez badago, kontseilu-errektoreak berak hautatu ahal izango du haren ordezkaria, aldi baterako, hau da, batzar orokorrak beste bat izendatu bitartean; kontseilariak arrazoitu egin beharko dute zergatik egin duten uko, eta administrazio-organoa uko-egiteari buruzko kalifikazioa eman beharko du; zehaztu da zer prozedura jarraitu behar duten kontseilariak uko egiteko, eta zein diren uko egitearen ondorioak; parte-hartzea bermatzeko, funtzionamenduan informazio- eta komunikazio-teknologia berriak sartzea aurreikusita da, eta, bukatzeko, argitu da zer araubide aplikatuko den botoak zenbatzeko, horretarako batzar orokorraren irizpide bera ezarrita.

Baina, administratzaileen gaia arautzean, honako alderdi hauek aldatu dira gehien: administratzaileen diligenzia- eta leialtasun-betebeharra eta administratzailearen erantzukizun korrelatiboa; erantzukizun hori exijitzeko bazkideek gauzatutako erantzukizun-ekintza, bat etorritik sozietate-araubidean gai horri buruz ezartzen ari diren joera berriekin. Goian esandakoarekiko koherentziaz, administratzailearen ordainsaria ere arautu da, betiere kooperatibak berak erabakitzen duenean haren lana ordaintzea; ordainsaria zenbatekoa izango den, hori batzar orokorrak erabakiko du, baina beti egongo da kooperatibaren egoerari eta egindako lanari lotuta, eta gardentasunez jokatu beharko da alderdi horri dagokionez.

Zaintza-batzordearen arauketan ere ez da aldaketarik egin, izaera demokratikoa duelako eta administrazio-organoa eta batzar orokorra lotzen dituelako, eta ez duelako eragozten administrazio-organoren kudeaketa efizientea. Bai egin dira, ordea, doikuntza batzuk: batzordea nola osatuko den —lan-izaeraren arabera osatu ordezkari sozietate-izaeraren arabera osatuko da—, zer funtzio izango dituen eta zer ondorio izango dituen kooperatibaren kontuei buruz batzordeak egiten duen txostenak, baldin eta kanpoko auditoretza batek ere parte hartzen badu.

Sozietate-kontseiluari dagokionez, ikusirik zer funtzio bete duen euskal kooperatibagintzaren baitan, organo hori kooperatiba-mota guztietan sortzeko aukera aurreikusita da lege honetan, alde batera utzita zenbat bazkide dituen kooperatibak.

Errekurtso-batzordearen erregulazioan ez da aldaketarik sartu, hark erakutsitako eraginkortasunagatik, duen antolaketa demokratikoagatik eta kooperatibek duten autokontrol izaeragatik. Organo hori ere aukerakoa da.

VII. Araubide ekonomikoa

Lege honetan, argiago eta zehaztuago azaltzen da zer erantzukizun duten sozietateak eta bazkideek hirugarrenenentzako, eta nori egotzi behar zaizkion kooperatibaren sortutako galerak; kasu horretan, malgutu

egin da nahitaezko erreserba funtsari egotzi dakioken gehieneko kopurua, baldin eta aipaturiko funtseko kopuruak legezko gutxienekoak baino handiagoak badira. Enpresen kaudimenik eza gertatzen den kasuetan, konkurtso-legeriara joko da.

Erantzukizun hori, nolana ere, mugatua izan da eta mugatua izaten jarraitzen du (1993az geroztik, gutxienez).

Gainerakoan, ez da aldaketarik egin kooperatiben araubide ekonomikoan: finantzatzeko hainbat aukera daude, 1993ko legean kooperatibetako enpresa-proiektuak garatu ahal izateko aurreikusitako sozietate-kapitalaz bestelakoak, kapital-sozietateek darabiltzaten tresna finantzarioekiko korrelazioan; nolana ere, erabaki da finantzaketa-modu horiek kooperatiban orokorrean aurreikustea, eta erregelamenduz egitea garapen espezifikoak.

Ordenamendu juridikoaren hainbat arauen bidez garatutako izpirituari jarraikiz —batez ere, finantza-sektoreko arauetan— produktu finantzarioen inbertsoreak eta kontsumitzaileak babestu nahi izan dira; horri begira, lege honetan gogorarazi da nahitaezkoa dela inbertsore eta kontsumitzaile horiei informazio egokia ematea, hau da, informazioak nahikoa, argia eta ulergarria izan behar duela. Era berean, gogorarazten da indarrean dauden betekizunak bete beharko direla lege honetan araututako mendeko ekarpen finantzarioak harpidetzeko eta emandako informazioa nahikoa, argia eta ulergarria izan dadin bermatzeko. Inbertsio-zerbitzuak ematen dituztenek nahitaez bete beharko dute informazio-betebehar hori; izan ere, horrela bermatu ahal izango dute informazioa gardena eta zuzena emango zaiela aipaturiko tresna finantzarioak eskuratu nahi dituzten kontsumitzaileei.

Sozietate-kapitalari buruzko alderdi hauek ere ez dira aldatu: balorazioa, ohikoak ez diren bazkide-kopuruaren mugak eta ekarpenen ordainketak. Horri buruz, bakarrik bariazio operatibo bat sartu da diru-itzulketen kasurako; hala, likidaziorik egiten ez den kasuan diruaren interes legala baino ordainketa handiagoa egiteko aukera jaso da batetik, eta, bestetik, azaldu da zein kasu espezifikotan itzuli daitekeen kapitala, hau da, zehaztu da ekarpen itzuli daitekeela sozietatearen kapitala edo bazkidearen kooperatibalana murrizten denean.

Azkenik, ez da aldaketarik egin nahitaezko erreserba funtsara eta kooperatiba-heziketa eta -sustapenera eta interes publikoko beste helburu batzuetara soberakinetatik egin beharreko ekarpenei dagokionez: 2008ko legean ezarritako arauak aplikatzen jarraituko da.

VIII. Sozietatearen dokumentazioa eta kontabilitatea

Kooperatibaren kontabilitatearen arauketari dagokionez, bakarrik erreferentzia bat erantsi da: zein den ondare garbiaren aldaketen eta efektiboen fluxuen egoera, beharrezko izanez gero kontabilitateari buruzko araudira egokitzeak. Baina ez da ezer aldatu sozietatearen dokumentazioari, auditoretzari eta kontabilitateari buruz.

IX. Estatutuak aldatzea; kooperatibek bat egitea, eta haiek zatitzea eta eraldatzea

Kooperatiben eraldatzea, bat-egitea eta zatitzea dela eta, lehendik ere irizpide bezala finkaturik zegoen berriazko aukera jaso da bat-egite bereziei dagokienez: sozietate-kooperatibak bat egin ahal izango dute beste sozietate-mota batzuekin, zibilekin edo merkataritzakoekin, baldin eta ez badago hori espresuki eragoz lezakeen bestelako legezko agindurik.

Estatutuei dagokienez, 1993ko legean ezarritako berrikuntzak gorde dira, hala nola: bazkideei buruzkoak (eskubidea dute estatutuen publizitatea eta dokumentazioa eta publizitate berezia izateko eta aztertzeko, baita baja arrazoitua emateko ere), bat-egiteari buruzkoak (bat-egitearen aurretiko erabakia eta bat-egiteko dauden epeak eta gorde beharreko kautelak; publizitate indartua; bazkideen eta zorpekodunen informazio-eskubidea edo inplikaturiko kooperatibak inskribatzeko mekanismoak zein inskripzioaren ondorioak) eta zatitzeari buruzkoak (zein kasutan zatitu daitezkeen kooperatibak eta zer proiektu aurkeztu behar duten, izenpetuta, kooperatibako administratzaileek, edo zer erantzukizun duten —solidarioa eta mugatua— banandu diren kooperatibek).

X. Kooperatibak eraldatzea

Sozietateak berregituratzeko prozesuek ez dute inolako aldaketarik izan, eta lehengo baldintza berdinetan arautu dira, ez baitute, praktikan, arau-aldaketa eragiteko moduko aparteko arazorik sortu. Hala, sozietate-motak eraldatzeko dauden legezko bideak aplikatuko dira, —eraldaketa parte hartzen duten kooperatiben izaera kooperatibista ez galtzeko— eta, aldi berean, sozietateen zuzenbideko araugintza-teknikak aprobetxatu dira.

XI. Kooperatiba-motak

Oro har, modu irekian sailkatu dira kooperatibak, orain arte bezala; horretarako, kontuan hartu da zer helburu duten kooperatibek eta zer egoera juridiko duten bazkideek; espresuki arautu gabeko alderdietarako, kooperatiba-mota bakoitzari dagozkion berriazko alderdiak lehenetsi dira arau orokorren gainetik.

Lan elkartuko kooperatibetan, beraiek ezarri ahal izango dute, orain arte bezala, hala lan-araubidea —barne-araubideko erregelamendu baten bidez arautu ahal izango da— nola diziplina-araubidea; betiere kooperatibon sozietate-izaera —eta ez-laborala— azpimarratuz, nahiz eta gutxieneko lansari-aurrerakin bat aurreikusten jarraitzen den. Besteren konturako langileen kasuan, berriaz azpimarratzen da kooperatiben helburua dela lana bazkide langileei ematea, baina, arrazoi operatiboak direla eta, ez da baztertzeko besteren konturako langileei ere lana ematea, betiere kontuan hartuta mugak: mota horretako langileak ezin dira izan bazkideen %30 baino gehiago (kopuru hori urteko orduen arabera aterako da).

Kopuru hori zenbatzeko, ez dira aintzat hartuko areagotuz joan diren kasu bereziak, pilaturiko esperientziak erakutsi baitu gehitu egin behar direla halako kontratuak: desgaitasunak dituzten pertsonen egindakoak; praktika- eta prestakuntzakoak; hezkuntza-kooperatibek egindakoak, helburutzat integrazioa edo kontziliario familiarra dutenak, edo kooperatibak aldi baterako laneko enpresa bezala diharduenean beste enpresa batzuentzako egindako langile-kontratuak. Bazkide izateko prozeduran, doitu egin da soldatapeko langile bezala eduki beharreko antzintasuna, eta saihestu egin da bazkidetza zuzenean lortzea: segurtasun juridikoa bermatzeko, bazkide izateko eskaria hamabi hilabete lehenago egin beharko da, espresuki.

Era berean, langile autonomoen araubide bereziaren arabera diharduten langileak dituzten kooperatibek beren estatutuetan espresuki jaso dezakete berek ordainduko dizkiotela Gizarte Segurantzari bazkide langilearen kuotak, sozietate-betebeharrak betetze aldera, hargatik eragotzi gabe dagokion sektore-araudiarekiko mendekotasuna. Hala eginez gero, lege-maila izango du aukera hori arautu zuen erregelamenduak. Kasu horretan, ordainketa horiek ez lirateke izango lansari-aurrerakinaren zati, eta soberakin garbia zehazteko partida kengarritzat hartuko lirateke.

Espresuki eta soil-soilik araua argitzeko asmotan egin dira honako ñabardura hauek: batetik, lana kooperatiban egiten duten bazkideen lanaldi partzialaren edo osoaren araubidea, eta, bestetik, lan-arriskuei aurre egiteko arau orokorrak. Bi arlo horietan, laneko segurtasun- eta higiene-nomenklatura egokitu da.

Nekazaritzako elikagaien kooperatibetan ere egokitzapen batzuk egin dira, izenez aparte: egokitu egin da bazkideak aldi baterako ordezkatzan dituzten langileek kooperatibaren bitartekoekin egindako nekazaritza-lanei buruzkoa, eta argitu egin da titulartasun partekatuko erakunde diren bazkideen egoera juridikoa —egoera hori oso ohikoa baita sektore honetan—, baita, segurtasun juridikoa dela eta, haiek kooperatibarekin duten harremana ere. Doikuntza horien helburua da kooperatiba-mota horiek nekazaritza-inguruaren zerbitzura egotea, Europar Batasunaren ikuspegiarekin bat etorritik eta harko erantzukizun sozialari erantzunez. Ildo berean, egokitu egin nahi dira hirugarrenekin eragiketak egiteko dauden arauak, gaur egun %49ko muga baitute eragiketa horiek: kontuan izan behar da bazkideekiko eragiketek dutela lehentasuna. Hala, sektoreari lotutako Batasunaren xedapen espezifikoekin —hirugarrenen ekoizpenak nekazaritzako ustiatzietan integratzeko helburua dute— bateratu nahi da egungo arauaketa, kasuan-kasuan dagozkienekin, nekazaritzako elikagaien kooperatibek arau horiek atxiki, eta %49ko gehieneko portzentaje hori gainditu ahal izateko.

Gainerako kooperatiba-motak sailkatzeko orduan etxebizitzan, garraioen eta junior kooperatibetan egin dira aldaketa gehienak.

Hala, etxebizitzan kooperatibei dagokienez, honako hau lortu nahi da aldaketekin: eraikuntzarako eta kudeaketarako oinarritzko erabakiak kooperatibistek berek hartzea, demokratikoki eta kooperatiba eratzen den unean berean. Hori hala izanda ere, eta kontuan harturik nolako profesionaltasuna eskatzen duen higiezinaren sustapenak eta nola elkartzen diren kooperatibako bazkideak —normalean ez dute elkar ezagutzen— gerta liteke erakunde kudeatzaile bat kontratatu behar izatea, kooperatibari aholkularitza eskainiko diona eraikuntzari eta kooperatibaren finantzaketari buruz. Gainerakoan, eutsi egin zaio haiei dagokien eta oraintsu arautu den legegintza-diseinuaren oinarritzko egiturari (gainerako autonomietako eta estatuko legeriak ere hala egiten du kooperatiba-mota hauen kasuan).

Eta, gainera, beti kontrolatu beharko ditu kudeaketa-eragiketa guztiei buruzko informazioa eta gardentasuna, delegatuak izan edo ez izan.

Era berean, muga bateraino onartzen dira hirugarrenekiko eragiketak etxebizitzan kasuan, bat etorritik beste kooperatiba-motak arautzen dituen 4/1993 Legearekin.

Kontu-auditoretzak nahitaezko izaten jarraitzen du, eta, benetako parte-hartzea eta kudeaketa demokratikoa ziurtatzeko, legelari aholkulariaren figura ezarri da; hala, haren irizpena beharko da funtsezko eragiketa juridiko-ekonomikoak gauzatzeko.

Bestalde, kontuan hartuta zer lotura duen gai honek eraikuntzari eta babes ofizialeko etxebizitzan sustapenari buruzko araudiarekin, oinarritzko legea erregelamenduz garatu beharko da.

Azpimarratu behar da, bestalde, zehaztasun handiz arautu direla erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibak; hala, alternatiba bat eman zaio jabetzazko esleipenari. Izan ere, indargabetutako legeak aukeratzat baino ez zuen jasotzen etxeak esleitzeko modu hori.

Azkenik, bazkideen erantzukizuna dela eta, azpimarratu behar da izaera mankomunatu duela, kapitalari egiten dioten ekarpenari dagokionez eta eraikitze eta etxebizitzaren edo lokalaren esleipen-salneurria estaltzeko egindako entzegei dagokienez.

Garraio-kooperatibei dagokienez, espresuki aurreikusi da nola eratu daitezkeen: zerbitzu-kooperatiba gisa—enpresen zerbitzu-kooperatibak arautu zirenean bezala— edo lan elkartuko kooperatiba gisa. Nolanahi ere, egitura eta araubide juridiko ezberdinen arabera arautu dira bi eraketa-mota horiek, ez daitezzen biak nahastu; izan ere, nahasketa horrek arazoak eta gatazkak sortzen zituen araudia aplikatzerakoan. Beraz, kooperatibok garraio integratuko kooperatiben identitatea bermatuko duten estatutu zehatz batzuen arabera arautuko dira, kontuan hartuta betiere kooperatibei oro har aitortzen zaien izaera integrala.

Junior kooperatibak kooperatiba-mota berri bat dira, espezifikoki identifikatu eta arautu behar direnak, kontuan hartuta unibertsitate-hezkuntzari lotua dagoela sozietate-kontratu horren helburua: kooperatiba bat eratuz eta abian jarritz, ikasleek praktikan jartzea unibertsitatean lortutako ezagutzak. Horrek esan nahi du sozietate horiek epe jakin baterako sortzen direla eta, kasu batzuetan, kooperatiba arrunt bilakatu daitezkeela.

Gainerako kooperatiba-motak ez dira aldatu edo osatu, eta ez zaie ezer erantsi. Hona kooperatiba horiek: kontsumo-kooperatibak (lehen bezala jarrai dezakete eragiketak egiten bazkide ez direnekin); irakaskuntzakoak (hiru modalitatekoak izaten jarraitzen dute, berek araututako araudi malguarekin, eta izaera eta onura publikoko bazkideak onar ditzakete); zerbitzu-, profesional- eta enpresa-kooperatibak (koordinazio-erakunde edo sozietate-zentro erkide bezala jardun dezakete); finantza-kooperatibak (estatuari dagokio horien oinarritzko arauak); osasun-kooperatibak, oraindik ere ia praktikan jarri gabeak (etorkizuneko kooperatiba-aukera gisa) edo kooperatiba komunitarioak (gizarteratze-kooperatibak).

XII. Kooperatibak integratzea eta taldekatzea

Ez da funtsezko aldaketarik egin kooperatibak ekonomia- eta enpresa-mailan integratzeko eta taldekatzeko aplikatu beharreko araudian.

Hala, kooperatiba-taldeek dituzten premiei erantzuteko moduan arautu dira bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak; izan ere, lankidetzan jarduteko arau-esparru egoki bat behar dute, aukera emango diena benetako kooperatiba-egitura izateko eta beren burua integratzeko modua erregulatzeko (parte-hartzaileek kooperatibak izan behar dute gehienak, baina ez denak).

Hori dela eta, ahalik eta modurik irekienean arautu dira, halaber, lankidetzak ekonomikorako beste modalitate batzuk, izaera instrumentalagoa dutenak, lankidetzan diharduten kooperatiben benetako premiei eta unean unekoei erantzun ahal izateko. Kooperatiba horiek, bestalde, aukera dute kontratuzko tresna eta loturetan zein tresna eta lotura pertsonifikatuetan parte hartzeko, edota dagoeneko eratuta dauden taldeetan integratzeko. Aukera hori onartuta dago juridikoki, eta erabiltzen da.

Horregatik, eta kontuan hartuta nola garatzen ari den kooperatibagintza une honetan, kendu egin dira kooperatiba-korporazioak erregulatzen zituzten arauak, bitariko administrazioa ezartzen zutenak. Izan ere, arauak hori orain arte baliagarria izan bada ere, une honetan ez da egokitzat jotzen, mugatzailea izan daitekeelako.

Aldiz, eta segurtasun juridiko handiagoa emateko, lege-mailara ekarri da kooperatiba-taldeen arau-garapena, tresna bereziki egokia delako kooperatibek elkarrekin lankidetzan jarduteko eta merkatuetan eraginkortasunez esku hartzeko.

Azkenik, kooperatiba mistoak daude (berez, legeak arautzen dituen kooperatiba guztiak izan daitezke mistoak). Kooperatiba horiek 1993ko legeak ezarri zituen, berrikuntza garrantzitsu bezala, eta, gero, erregelamenduz garatu ziren enpresa- eta kooperatiba-proiektuak finantzatzen laguntzeko. Oraingo legeak, berriz, berrikuntza bat sartu du kooperatiba-izaera ziurtatzeko: kooperatiba-sozietateko bazkideak baino ezin dira izan, aldi berean, sozietate-zatien titular izanik boto eskubidea duen bazkide eta kooperatiba-bazkide.

XIII. Desegitea eta likidatzea

Funtsean, ez dira aldatu kooperatibak desegiteko arrazoiei buruzko arauak; bakarrik, berrikuntza bat sartu da: kaudimengabeziagatik desegiten bada, egungo konkurtso-araudira egokitu beharko da prozedura. Orobat geratu da aldatu gabe kooperatiba berrindartzeko aukera.

Aldiz, asko aldatu da likidatzaileen lege-araubidea. Aurreko legean, bazkide izan behar zen likidatzaile izateko. Baina, lege honen arabera, ez da betekizun hori bete beharko, baldin eta ez badira betetzen dena delako sozietatea modu ordenatuan likidatzeko eta azkentzeko baldintzak, dela kooperatiba erabat desegituratuta dagoelako, dela bazkiderik ez duelako edo haiek ez direlako gai likidazioa gauzatzeko edo ez dutelako halakorik egin nahi. Ildo horretan, batzar orokorrari ematen zaio ahalmena likidatzaileen funtzionamendu-araubidea ezartzeko.

Bestalde, lehen bezala arautu dira sozietatearen ondasunaren esleipenari eta onartutako azken balantzearen publizitateari buruzko alderdiak, baina aldaketa bat egin da: aurkaratzeko epe espezifiko bat erantsi da, segurtasun juridikoa bermatzeko (zuzenbide konparatuan ezarritakoaren antzekoa eta ondorio bereberekin).

Azkenik, formazko aldaketa bat egin da erregistroa ezerezteko araubidean: likidatzaileek sei urtez kontserbatu ahal izango dituzte liburuak eta gainerako dokumentazioa.

XIV. Kooperatibak eta Administrazioa

Kooperatiben gaian, bi alderdik justifikatzen dute Administrazioaren esku-hartzea: jarduera sustatzea eta kooperatiben legalitatea betetzen dela bermatzea.

Lehenengo alderdiari dagokionez, osatu egin da publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sektoriala. Lehenengo legean, lan elkartuko, kontsumoko, nekazaritzako elikagaien edo etxebizitzaren kooperatiben kasuan aurreikusten zen lankidetzaren hori, baina, lege honetan, beste arlo batzuetara zabaldu da, hain zuzen ere hezkuntzaren, landa-garapenaren, dependentziaren eta integrazio sozialaren arloa. Horretaz gain, kooperatiben mugimenduaren ordezkari instituzionala azpimarratu nahi izan da, kooperatibek ekonomiari eta gizarteari loturiko kontsulta eta erabakietan parte har dezaten bultzatuz, bat etorritik Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legearen ildoez.

Bigarren alderdiari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da nahiko zaharkituta geratu diren hainbat alderdi berritzea, hala eskatzen baitu euskal kooperatibek gaur egun daukan garapenak. Alderdi garrantzitsuetako bat, Administrazioak duen "polizia" zereginagatik, arau-hausteena eta zehapenena da (dagokion ikuskaritza-funtzioarekin), Euskadiko kooperatiben legeria haustearekin lotutako guztia hartzen duena barnean.

Alde horretatik, Euskadiko botere legegileak berariazko zehapen-prozedura bat arautzeko beharra ezarri zuen 1993an, baina gaur egun arte ez da egin, nahiz eta horrekin lotutako proposamenak eta ikerketak egin diren Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluan, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioan eta Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzan berean.

Ikerketa horietan aurreikusten diren berezitasunek lotura dute, batez ere, honako alderdi hauekin:

- *Zer zeregin duen Kooperatiben Konfederazioak, eta, subsidiarioki, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak.*
- *Ikuskaritza-lanaren prebentzio- eta laguntza-izaera.*
- *Kooperatibetarako ikuskapen espezifiko bat jartzea edo Lan Ikuskaritza (Estatuko ereduak) erabiltzea.*

Berezitasun horiek, beraz, beharrezko egiten dute ikuskaritza-arauketa eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea lantzea —4/1993 Legeko 139. eta 140. artikuluetan xedatuta daude arlo horiek—; ez haiek garatzeko, baizik eta alor horretako politika legegilea berrikusteko, 4/93 legea aspalditik baitago indarrean. Horren arrazoia da, alde batetik, Euskadiko kooperatibek enpresa- eta sozietate-garapen handia izan dutela denbora horretan, eta, bestetik, arau-hausteen eta haiei dagokien zehapenen egungo tipifikazioa Administrazioaren babesarekin eta ikuskapenarekin lotutako ikuspegi batean oinarritutako arauetatik datorrela, eta beharrezkoa dela hori berrikustea.

Izan ere, uste da kooperatiben funtsezko alorretara mugatu behar dela Administrazioaren zeregina —partaidetza (hau da, demokrazia kooperatiboa erabiltzea benetan: bazkideek parte hartzea eta erabakiak hartzea) eta elkartasuna (funts banaezinak, aplikazioak)—, eta Administrazioak alde batera utzi behar dituela beste alderdi formal edo operatibo batzuk —merkatuan diharduten gainerako sozietateen antzekoak dira—, ez baitute lotura zuzenik kooperatiben gai eta funtsezko bereizgarriekin. Hau da, enpresa-mota hori "gizarte-intereseko" bihurtzen duten alderdiak landu behar dira, horrek legitimatzen baitu esku-hartze publikoa.

Era berean, eta betiere kontuan hartuz zehapen-eskumena Eusko Jaurlaritzako Enplegu sailari dagokiola, kooperatiba-ikuskaritza Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren eskumena da. Organo juridiko-publiko horrek lehendik esleitura zituen kontziliazio-, bitartekaritza- eta arbitraje-funtzioak, eta horretan dihardu egun ere, bat eginez kooperatiben balio eta printzipioekin.

XV Kooperatiben elkartegintza

Kooperatiba-elkartek gutxi arautu dira lege honetan, elkartzeko askatasunaren mesedetan; lehen bezala arautu dira, halaber, nola parte hartu behar duten Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek kooperatiben arteko harremanak sustatzeko eta zein diren ordezkartza-irizpideak eta nola islatuko den hori kooperatiba-elkartearen izenean.

Eta honako hau bermatzen da; kooperatibetako bazkideen presentzia %50ekoa izango da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluan.

Lehen bezala arautu dira gainerako alderdi organikoak: Eusko Jaurlaritzaren eta federazioen parte-hartzea eta funtzioak. Arbitraje-funtzioari buruz, aldiz, honako hau erantsi da: estatutuetan erregulatutako kooperatiba-barneko bidea agortu behar da kooperatibaren eta bazkideen artean sortutako gatazkak konpontzeko; izan ere, arbitraje-funtzioa autokonposizio-formulan oinarritzen da, hau da, haren helburua da gatazkak kooperatiba barruan konpontzea, hargatik eragotzi gabe arbitraje-bidea.

XVI Xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak, xedapen indargabetzailea eta azken xedapenak

Araua ixten duten xedapenen artean, azpimarratzekoa da bosgarren xedapen gehigarria, kooperatiba-sozietate guztien organoetako genero-berdintasunari buruz diharduena, zeinaren helburua baita organo horiek —guztiak— modu orekatuan eratzea.

I. TITULUA. Sozietate-kooperatiba

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Kontzeptua

1. Kooperatiba da enpresa bat garatzen duen sozietatea, zeinaren lehentasunezko helburua baita beren kideen jarduera ekonomiko eta sozialak sustatzea eta haien beharrak beren parte-hartze aktiboaren bitartez asetzea, kooperatibagintzaren oinarriak betez eta bere inguruko komunitateari erantzunez.

2. Kooperatibak Kooperatiben Nazioarteko Batasunaren irizpideetara egokitu beharko ditu bere egitura eta jarduera, eta lege honen esparruan ezarriko dira irizpide horiek. Lege honen baitan egonik, bestelako edozein erakunde publiko edo pribaturekiko autonomia eta askatasun osoa izango du.

3. Kooperatibek edozein jarduera ekonomiko edo sozial gauzatu ahal izango dute, salbu eta kooperatibagintzaren oinarriko eskakizun eta printzipioekin bat ez etortzeagatik legean espresuki bestelakorik adierazten bada.

2. artikulua. Izena

1. Kooperatibek beren izenean nahitaez gehitu beharko dituzte «Kooperatiba Sozietatea» hitzak edo «Koop. S.» laburdura.

2. Ezin izango da lehendik dagoen sozietate baten izen bera jarri. Sozietatearen izena baliozkoa izateko, beste baldintza batzuk gehitu ahal izango dira erregelamenduz.

3. Beste inolako erakunde ezin izango du erabili «Kooperatiba» hitza edo «Koop.» laburdura, edozein dela ere kooperatiba-mota edo kooperatibaren izaera; salbu eta xedapenen batek espresuki hartara behartu edo hartarako baimena ematen dion kasuan.

3. artikulua. Sozietatearen egoitza

Euskal Autonomia Erkidegoan egongo da Kooperatibaren egoitza, bere bazkideekiko jarduera gehienak burutzen dituen lekuan edo administrazio-kudeaketa eta enpresa-zuzendaritza kokatzen den lekuan.

4. artikulua. Sozietatearen gutxieneko kapitala

Sozietatearen gutxieneko kapitala ezin izango da izan 3.000 euro baino gutxiagokoa, eta eurotan neurtuko da. Kooperatiba eratzen den une beretik ordainduta egon beharko da gutxieneko legezko kapital horri dagokion kopuru osoa.

5. artikulua. Hirugarrenekiko eragiketak

1. Kooperatibek bazkide ez diren hirugarrenekiko kooperatiba-jarduerak burutu ahal izango dituzte, betiere lege honetan eta sozietatearen estatutuetan ezarritakoaren arabera.

2. Kooperatibari baimena eman ahal izango zaio hirugarrenekiko jarduerak edo zerbitzuak hasteko edo lehendik dituenak handitzeko, baldin eta bazkide eta hirugarrenekiko eragiketak legearen baldintza edo muga barruan egin beharrik enpresaren jardura gutxitzea edo okertzea ekartzen badu eta, ondorioz, arriskuan jartzen badu haren bideragarritasun ekonomikoa; salbu eta egoera horren erantzukizuna kooperatibarena denean. Baimen horrek epe eta muga batzuk izango ditu, egoera bakoitzari dagozkionak. Kooperatibak baimen hori eskatu eta hilabetera ez badu jasotzen Lan eta Gizarte Segurantzaren sailaren erantzun espresurik, eskatutako baimena eman dela ulertuko da.

3. Dena den, kreditu- eta aseguru-kooperatibek dagozkien betekizun eta mugak bete beharko dituzte hirugarrenekiko eragiketetan, hain zuzen ere beren finantza-jardueraren arloko araudian ezarritakoak.

6. artikulua. Sekzioak

1. Kooperatiben barruan, sekzioak sortu ahal izango dira, jardura ekonomiko eta sozial bereziak —sozietateren helburuaren baitakoak— burutuko dituztenak. Estatutuetan arautuko da nola sortu eta funtzionatu behar duten sekzioek. Kudeaketari dagokionez, autonomia izango dute, baina kontuan hartuta kooperatibaren erantzukizunak izaera orokorra eta bateratu duela. Kontabilitate independentea eramango dute, nahiz eta kontabilitate orokorra kooperatibari dagokion.

2. Sozietatearen estatutuetan, honako hauek zehaztuko dira:

a) Zer arlo edo jardura sartu diren sekzioaren barruan.

b) Zenbat denbora jardungo duen modu berezitan, baldin eta denbora hori mugatua bada.

c) Zer irizpide ezarri diren sekzio bakoitzari dagokion ondarea zehazteko.

d) Hala dagokionean, zer irizpide erabili diren kontabilitate berezia ezartzeko.

e) Zer irizpide erabiliko diren kooperatiba-jardura neurtzeko, dena delako sekzioaren soberakin positibo

eta negatiboen banaketa bereizia egin behar denean.

f) Zein den araubide organikoa eta zer harreman duen horrek kooperatibaren administratzaileekin.

3. Hala dagokionean, estatutuetan ehunekotan zehaztuko da zer soberakin berezi eta banatu behar diren sekzioen arabera.

4. Sekzioak arautzerakoan, politika berezi bat ezarri ahal izango da kapital-interesei, aurrerakinei edo bazkideekin egindako eragiketen prezioei dagokienez.

5. Batzar orokorrak erabaki ahal izango du berehala etetea sekzio bateko bazkide-batzarrak hartutako erabakiak, baina zehaztu beharko du zergatik diren lege edo estatutuetan esaten denaren aurkakoak edo kooperatibaren interes orokorren aurkakoak, hargatik eragotzi gabe batzar orokorraren erabakiak ere lege honen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera aurkaratzea.

Sekzioak egoteak ez dakar administratzaileek dituzten ahalmenen araubidea aldatzea, baina sekzioaren barruan zuzendariak edo ahaldunak izendatu ahal izango dira sekzio horren jardun eta eragiketaz arduratu daitezten. Kooperatibaren administratzaileek sekzioan hartu diren erabakiak berehalakoan etetea erabaki dezakete, bazkide-biltzarrean hartzen diren erabakietarako ezarritako baldintza beretan.

Estatutuetan edo barne-araubideko erregelamenduan arautuko dira sekzio bateko bazkide-biltzarren eta kooperatibako administratzaileen arteko harremanak.

6. Kreditu-sekzioa edo bestelako sekzioak dituzten kooperatibei kontu-auditoretza izan dezatela eskatuko zaie, haiekin kontratuak egiten dituztenak babesteko.

II. KAPITULUA. Kooperatiba eratzea

7. artikulua. Batzar eratzailerak

1. Sustatzaileek osatuko dute batzar eratzailerak; batzar horrek kooperatibaren estatutuak onartuko ditu, eta batzarra eratzeko beharrezko diren gainerako erabakiak hartuko ditu.

Sustatzaileek kasuan kasuko kooperatibako bazkide izateko behar diren baldintzak bete beharko dituzte.

2. Batzarrera joandako sustatzaileen artean aukeratuko dituzte batzar eratzailerako lehendakaria eta idazkaria.

3. Batzar eratzaileraren aktan, honako hauek agertu beharko dute gutxienez: bilera-tokia eta -data, partaide-zerrenda, eztabaiden laburpena, bozketen emaitzak eta hartutako erabakien testua.

4. Batzar eratzailan idazkari-lanetan ari den sustatzaileak egiaztatuko du akta, zeinak lehendakariaren oniritzia izan beharko baitu.

8. artikulua. Eratzealdian den kooperatiba

1. Eratzealdian den kooperatibako sustatzaileek edo haien artetik batzar eratzailan izendatutako kudeatzaileek egingo dituzte hala kooperatiba sortzeko ezinbestekoak diren egintza eta hitzarmenak nola batzar eratzailak espresuki eskatutakoak. Egintza eta hitzarmenok sozietatearen izenean egingo dituzte. Eratzealdian, kooperatibaren izenean jarduteko gaikuntza izango dute horretarako izendatutako pertsonak ere, hain zuzen ere horretarako berariazko agintea dutenak.

2. Kooperatiba Erregistroan inskribatu aurretik sozietatearen izenean egintza eta hitzarmenok burutu zituztenek izango dute egintza eta hitzarmen horien erantzukizun subsidiarioa, salbu eta egintza eta hitzarmen horiek eragina izateko beharrezkoa bada aurretik kooperatiba inskribatzea, eta, ondoren, kooperatiba horrek bere gain hartzen badu erantzukizun hori.

3. Eratzealdian den sozietatea izango da artikulua honen lehen zenbakian aipatutako egintza eta hitzarmenen erantzule, bazkideen ekarpenek osatzen duten ondarearen bidez. Bazkide bakoitzak izango duen erantzukizuna, berriz, ordaindu behar izan duen ekarpen osoaren araberakoa izango da.

4. Kooperatiba inskribatuta, berak egin beharko die aurre aurreko artikuluan aipatzen diren egintza eta hitzarmenei. Orobat egin beharko die aurre inskribatu eta hurrengo hiru hilabeteetan onartzen dituen egintza eta hitzarmenei. Bi kasu horietan, bertan behera geratuko da sustatzaile, kudeatzaile edo agintariek zuten erantzukizun subsidiarioa.

5. Sozietatearen ondare-balioa gehi sozietatea inskribatzeko nahitaezkoak diren egintzena sozietatearen kapitalaren balioa baino txikiagoa bada, bazkideek estali beharko dute zenbateko bi horien arteko diferentzia.

6. Sozietateak, Kooperatiba Erregistroan inskribatu artean, «eratzealdian» hitza gehitu beharko dio bere izenari.

9. artikulua. Estatutu-proiektuaren alde aurretiko kalifikazioa

1. Eratze-akta eman baino lehen, eta batzar eratzailak aurkako erabakirik hartu ezean, kudeatzaileek Kooperatiba Erregistroari eskatu ahal izango diote estatutu-proiektua azter dezatela. Horretarako, hogeita hamar eguneko epea izango dute, eskaria egiten denetik kontaturik.

2. Zuzen daitekeen akatsik aurkituz gero, horien berri emango die Kooperatiba Erregistroak kudeatzaileei, salbu eta batzar eratzailak besterik erabakitzen duenean; kudeatzaileek hilabete epea izango dute akats horiek konpontzeko.

10. artikulua. Kooperatiba irregularra

1. Sozietatea ez inskribatzeko borondatea egiaztatzen denean eta, betiere, eskritura egiletsi denetik urtebete igaro denean inskripzioa eskatu gabe, edozein bazkidek eska dezake eratzeldian den sozietatea desegitea, horren ondarea likidatu eta gero bere ekarpenak berreskuratzea erreklamatzuz.

2. Egoera horretan, kooperatibak bere eragiketekin hasi edo aurrera jarraitzen badu, sozietate kolektiboetara buruzko arauak ezarriko dira, edo, hala dagokionean, sozietate zibilei buruzkoak. Behin kooperatiba inskribatuta, ez da aplikatuko zortzigarren artikuluko 4. zenbakian ezarritakoa.

11. artikulua. Eraketa

1. Eskritura publiko bidez eratuko da kooperatiba. Agiri hori emateko, bi hilabeteko epea izango da, batzar eratzaillea eratu denetik kontaturik, edo, hala dagokionean, sozietatearen estatutu-proiektua kalifikatzen denetik kontaturik. Ondoren, Kooperatiba Erregistroan inskribatuko da, eta une horretatik aurrera izango du nortasun juridikoa.

2. Eratze-eskritura nahiz sozietateari lotutako beste edozein egintza inskribatzeko, aldezturik ziurtatu behar da likidatu direla inskribatu beharreko egintzaren gaineko zergak edo eskatu dela haien likidazioa.

12. artikulua. Eratze-eskritura

1. Eratze-eskritura publikoa sustatzaile guztien izenean egiten ez bada, batzar eratzaillearen izendatutako izenean egin behar da, batzar horretan hartutako erabakien arabera.

2. Eratze-eskritura publikoan, hala dagokionean batzar eratzaillearen akta azaltzeaz gainera, honakook jasoko dira:

a) Eskritura egiletsi dutenak pertsona fisikoak izanez gero, horien izen-abizenak eta adina; pertsona juridikoen kasuan, berriz, sozietatearen izena. Kasu batean zein bestean, nazionalitatea eta egoitza ere adierazi behar dira.

b) Egilesten borondatea, dena delako sozietatea eratzeko.

c) Egilesten adierazpena, adierazten duena sustatzaile guztiek ordaindu dutela estatutuaren bazkide izateko finkatutako nahitaezko gutxieneko ekarpenaren ehuneko hogeita bost gutxienez, edo, hala dagokionean, goragoko kopuru bat, laugarren artikuluan finkatutako gutxieneko kapitala estaltzeko beharrezko dena. Bestalde, ekarpenaren zati bat ordaintzea atzeratu bada, zati hori nola eta noizko ordainduko den ere zehaztu behar da.

d) Sozietatearen estatutuak.

e) Sozietatean beharrezko diren organoetako karguak betetzeko izendatu dituzten pertsona fisikoen izen-abizenak, lanbidea eta adina, eta pertsona juridikoen kasuan, sozietatearen izena. Bata zein bestea izan, nazionalitatea eta egoitza ere adierazi beharko dira, baita, hala dagokionean, kontu-auditoreei buruzko datuak ere.

f) Adierazpen-agiri bat, aitortzen duena ez dagoela izen bereko beste kooperatibarik. Adierazpen hori agerkari publikoan jasotzeko, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Kooperatiba Erregistroak eta Euskadiko Kooperatiba Erregistroak emandako jatorrizko agiriak beharko dira, izen bereko beste kooperatibarik ez dela ziurtatzen dutenak.

g) Zer balio eman zaien diruzkoak ez diren ekarpenei —halakorik balego—, haien ezaugarriei buruzko deskribapen argia eginez eta ondo zehaztuz zer ekarpen egin dituen sustatzaileetako bakoitzak edo zer ekarpen-betebehar ezarri dizkion bere buruari.

h) Zenbatekoak izango den, gutxi gorabehera, kooperatiba eratzeko gastuak, barne direla dagoeneko eginda daudenak nahiz inskribatu artean egin asmo direnak.

3. Horrez gain, eskritura publikoan jaso ahal izango dira sustatzaileek batzar eratzailan egindako itun eta baldintza guztiak, horiek ez badira legearen edo kooperatiba-sozietateak arautzen dituzten printzipioen aurkakoak.

13. artikulua. Estatutuen gutxieneko edukia

1. Kooperatibaren jarduera arautuko duten estatutuetan, honakoak agertuko dira gutxienez:

a) Zein den kooperatibaren izena.

b) Zein den sozietatearen egoitza.

c) Zer helburu duen sozietateren jarduerak.

d) Zenbat iraungo duen kooperatibak.

e) Zein den kooperatibaren jarduera nagusiaren lurralde-eremua.

f) Zein diren bazkideei onarpena eta baja emateko betekizunak.

g) Zer eskubide eta betebehar dituzten bazkideek, zehaztuz zer konpromiso izango duten kooperatibako jardueretan edo zein izango den haien gutxieneko parte-hartzea.

h) Zein diren sozietatearen diziplina-arauak, falta eta zehapenak, zehapen-prozedura eta errekursoak.

i) Zein den kooperatibaren gutxieneko sozietate-kapitala, eta zein den sozietateko bazkideen hasierako nahitaezko ekarpena.

j) Nola itzuliko diren ekarpenak eta zein den ekarpenok eskualdatzeko araubidea.

k) Zein diren soberakinak banatzeko irizpideak, zehaztuz zer portzentaje bideratu behar diren nahitaezko erreserba funtsera eta eta kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena.

l) Nola egingo den ohiko batzar orokorraren eta bereziaren publizitatea eta, lege honen 34.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zer epetan egingo diren deialdiak (lehena zein bigarrena, edo hirugarrena kontsumoko, irakaskuntzako eta nekazaritza-elikagaien kooperatiben kasuan) eta zein izango den erabakia hartzeko araubidea.

m) Zer egitura izango duen kooperatibaren administrazioaz arduratuko den organoak eta zein izango den organo horren jarduketa-araubidea.

n) Nola dauden osatuta zaintza-batzordea eta, hala dagokionean, errekurso-batzordea eta sozietate-kontseilua, eta zer funtzio dituzten (batzorde horiek nahitaezkoak izan daitezke edo, bestela, estatutuetan aurreikus daitezke).

ñ) Zein diren kooperatiba desegiteko arrazoiak.

2. Sozietatearen estatutuak barne-erregelamenduz garatu ahal izango dira.

14. artikulua. Kooperatiba deuseztatzea

Behin sozietatea inskribatu eta gero, deuseztasun-akzioa Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako arrazoi eta ondorioekin bakarrik baliatu ahal izango da, salbuespen batekin: eratze-egintzan bi bazkide sortzailearen benetako borondatearen orde, lege honetan ezarritako gutxieneko bazkide-kopurua beharko da deuseztasun-akzioa gauzatzeko.

III. KAPITULUA. Euskadiko Kooperatiba Erregistroa

15. artikulua. Antolaketa

Euskadiko Kooperatiba Erregistroa erregistro juridikoa da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza sailari adskribatua, eta organo-egitura bateratua du.

16. artikulua. Erregistroaren eraginkortasuna

1. Erregistroaren eraginkortasunaren printzipioak dira: publizitate material eta formala, legezotasuna,

legitimazioa, lehentasuna eta segidako traktua.

2. Inskripzioak eraketa-izaera izango du hala kooperatibaren eraketan, bat-egitean, zatiketan, desegitean eta berrindartzean egindakoak nola kooperatiba bihurtzen direnean egindakoak, eta dokumentazioa aurkezten den eguna hartuko da inskripzio-datatzat. Gainerako kasuetan, berriz, adierazpen-balioa izango du.

3. Euskadiko Kooperatiba Erregistroak bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzea bultzatuko du hiritarrekiko eta erregistroko irispidea nahi duten erakundeekiko harremanak erraztu ahal izateko, batez ere egintzak erregistroan inskribatu eta gordailutzeko, kontsultak egiteko eta ziurtagiriak eskuratzeko.

17. artikulua. Funtzioak

Euskadiko Kooperatiba Erregistroak honako funtzio hauek izango ditu:

a) Indarrean dagoen legeriaren arabera erregistroan jaso beharreko egintzak kalifikatu, inskribatu eta ziurtatzea, hain zuzen ere honako hauei buruzkoak: lehen eta bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibei buruzkoak; kooperatiben batasun eta federazioei buruzkoak eta federazio-elkarteak edo batik bat lege honetan araututako kooperatiba-motetz osaturiko beste erakunde juridiko batzuei buruzkoak.

b) Nahitaezko liburuak gaitu eta legeztatzea.

c) Goiko a) letran aipatzen diren kooperatiben urteko kontuen eta erabakien egiaztapenen gordailua izatea. Haren ardura bakarra izango da aztertzea ea aurkezturiko dokumentuak legeak eskatzen dituenak diren, ea batzar orokorrak behar bezala onartu dituen eta ea izenpetu behar duten guztiek izenpetu dituzten.

d) Kooperatiben izenari buruzko ziurtagiriak ematea.

e) Egiten zaizkien galderei erantzutea, beren eskumenekoak baldin badira.

f) Lege honen edo berau garatuko duten arauen bidez emandako beste edozein.

18. artikulua. Arau osagarriak

1. Euskadiko Kooperatiba Erregistroa dela eta, administrazio-prozedurako arauak ezarriko dira epeei, espedientean pertsonatu beharri eta ordezkapenari dagokienez, baita lege honetan eta berau garatzen duten arauetan erregulatzen ez diren gainerako alderdi formalei dagokienez ere.

2. Aipatutako arau horiek aplikatuz, Eusko Jaurlaritzan enpleguaren eskumena duen sailburuari jarriko zaio auzibidera jo aurreko erreklamazioa, zuzenbide-sustantibo kooperatiboak ezarritako egintzen

aurkakoa Auzibidera joz gero, arlo zibileko epaitegi eta auzitegiei jarri beharko zaie erreklamazioa, Botere Judizialaren Lege Organikoaz eta ezar daitekeen auzibidezko araubidez bat.

IV. KAPITULUA Bazkideak

19. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak

1. Lehen mailako kooperatibetako bazkide izan daitezke: pertsona fisiko zein juridikoak, publiko nahiz pribatuak; betiere kontuan izanda lege honetako II. tituluan ezarritako salbuespenak.

Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibei dagokienez, 136 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Kooperatiba eratzen den unean, gutxienez hiru bazkide izan beharko dira lehen mailako kooperatibetan. Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibek gutxienez bi kooperatiba-sozietate izan beharko dituzte beren bazkide sortzaileen artean.

2. Kooperatibetako bazkideak honako modalitate hauetakoren batean sartuko dira:

- a) Bazkide kooperatzaileak
- b) Jardunean ez dauden bazkideak edo erabiltzaile ez direnak
- c) Bazkide laguntzaileak
- d) Kooperatiba mistoetan, sozietate-zatien titular izanik boto-eskubidea duen bazkideak.

3. Bazkide kooperatzaileak dira: pertsona fisiko edo juridikoak, kooperatibaren jardunean langile- edo erabiltzaile-gisa modu eraginkor batean parte hartzen dutenak.

4. Jardunean ez dauden bazkideak edo erabiltzaileak dira: legearen 30. artikuluan halakotzat jotzen direnak.

5. Bazkide laguntzaileak izan daitezke: pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, sozietatearen kooperatiba-helburua bete-betean aurrera eramaterik izan gabe ere, helburu horri lagun diezaioketenak. Sozietatearen Estatutuetan erabakitakoaren arabera arautuko dira haien eskubide eta betebeharrak; estatutuetan aurreikusi gabeko guztirako, berriz, aldean artean hitzartutakoa beteko da. Bazkide horiek, kooperatiba-sozietateak ez badira behintzat, ezin izango dute, guztira, botoen herena baino gehiago izan, ez batzar orokorrean ez artezkaritza-kontseiluan.

Bazkide laguntzaileek, kooperatiba-jardueran duten parte-hartzearen arabera, eskubidea izango dute kooperatibaren emaitzetan parte hartzeko, baldin eta estatutuetan espresuki horrela jasotzen bada edo artezkaritza-kontseiluak hori erabakitzen badu. Nolanahi ere, batzar orokorrari jakinarazi beharko zaio zenbatekoa den emaitzetan duten partaidetza hori.

Bazkide laguntzaileak kooperatiba mistoetan bakarrik hartuko dira bazkide kooperatzaileetat.

6. Sozietate-zatien titular izanik boto-eskubidea duten bazkideak dira: kooperatiba mistoetako gutxiengoko bazkideak.

7. Nortasun juridikoa duten erakunde publikoek ere bazkide izateko aukera izango dute, kooperatibaren helburua bada erakunde publiko horien zerbitzuak eskaintzea edo jarduerak egitea; betiere, zerbitzu eta jarduera horiek emateak ez badu ekartzen edo eskatzen agintaritza publikoa erabiltzea.

20. artikulua. Bazkideak onartzea

1. Lege honetan erabakitakoarekin bat etorriz, estatutuetan finkatuko da zer baldintza bete behar diren bazkide izateko.

2. Bazkide gisa onartu edo ez onartzeko arrazoia ezingo da izan erakundearen helburuekiko bereizkeria arbitrarioa edo legez kanpokoa dakarren arrazoia.

3. Onartzeko eskaria idatziz egin beharko zaie administratzaileei, eta haiak hirurogei eguneko epea izango dute gehienez ere erantzuna emateko. Ez onartzeko erabakiak arrazoitua izan behar du. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik ematen ez bada, onartu egin dela ulertuko da.

4. Onartzeko eskariari ezetza ematen bazaio, eskatzaileak errekurtsua jarri ahal izango du errekurtso-batzordearen aurrean edo, halakorik ez badago, batzar orokorraren aurrean; horretarako, hogeitaz eguneko epea izango du, ezezko ebazpena jakinarazi zaionetik kontaturik.

Errekurtso-batzordeak ebatziko du errekurtsu hori, hogeita hamar egun igaro baino lehen, edo, hala badagokio, lehenengo batzar orokorrean erabakiko da, isilpeko bozketa bidez. Bi kasuotan nahitaezkoa izango da alde aurretik entzutea interesdunari.

5. Onartzeko eskariari baietza ematen bazaio, errekurtsua jarri ahal izango da errekurtso-batzordearen aurrean edo, halakorik ez badago eta estatutuek finkatutako bazkide-kopuruak hala eskatzen badu, egiten den lehenengo batzar orokorraren aurrean. Estatutuetan zehaztu beharko da zer epe dagoen errekurtsua jartzeko, baina ezin izango da hogeitaz egun baino gehiago luzatu, erabakia jakitera eman zenetik kontaturik.

Bazkide izatea ez da indarrean sartuko onarpenaren aurkako errekurtsuak jartzeko epea igaro arte, edo, errekurtsua jarrita balego, errekurtso-batzordeak nahiz, hala dagokionetan, batzar orokorrak erabaki arte. Errekurtso-batzordeak hogeitaz hamar eguneko epea izango du ebazpena emateko; batzar orokorrak, berriz, egiten duen lehenengo bileran ebatzi beharko du, isilpeko bozketa bidez. Bi kasuotan, nahitaezkoa izango da alde aurretik entzutea interesdunari.

21. artikulua. Bazkide langileak

1. Lan elkartuko kooperatibak ez diren lehen mailako kooperatiben nahiz bigarren edo maila handiagokoen estatutuetan, aurreikusi ahal izango da ea zer baldintza bete behar izango dituzten

langileek lan-bazkide izateko. Kooperatiban lan pertsonala egitea izango da lan-bazkide horien kooperatiba-jarduera.

2. Lan-bazkideek lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileentzat legean ezarritako arauak bete beharko dituzte, artikulua honetan finkatutako salbuespenekin.

3. Estatutuetan, irizpideak finkatu beharko dira lan-bazkideek ekitatez eta neurritz parte hartu ahal izateko kooperatiban.

4. Estatutuetan probaldiren bat ezartzen bada lan-bazkideentzat, hori ez da aplikatuko baldin eta bazkide berria lehendik ere kooperatiban lanean aritu izan bada besteren konturako langile modura eta probaldiak dirauen beste denbora eman badu lanean. Bazkide bati probaldi hori ezarri, eta bi aldeetako edozeinek bere kabuz azkentzen badu hark bazkide bezala duen harreman juridikoa, ulertu beharko da kide horren lan-harreman juridikoa probaldia ezarri baino zuen berbera dela, hau da, besteren konturako langile bezala zuen berbera; betiere, harreman hura ez bada azkendu bazkide izateko jarri dioten probaldia baino lehen.

22. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bazkideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Batzar orokorraren eta deitzen dieten gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Karguren baterako izendatu badituzte, hura onartzea, salbu eta ez onartzeko arrazoi zuzena dagoen kasuetan.
- c) Kooperatibaren helburu diren jardueretan parte hartzea. Ondorio horietarako, estatutuetan ezarritako dira parte hartzeko eredu edo gutxienerako arauak. Arrazoi justifikaturik egonez gero, administratzaileek ahalbidea izango dute bazkideren bat betebeharrak hori betetzetik libre uzteko dagokion neurrian.

Honela gauzatu ahal izango da bazkideek kooperatibaren jardueretan izango duten konpromisoa edo gutxienerako parte-hartzea: kooperatibaren jardueretan zuzenean parte hartuz; edo — estatutuetan jasota badator—, beste erakunde batzuetan parte hartuz; betiere kooperatibak erakunde horiekiko lankidetzan jarduten badu edo haietan parte hartzen badu edo kooperatibaren helburuari lotutako interes berezia badu. Jatorrizko kooperatibako gutxiengo batek hartuko du parte beste erakunde batzuetan, salbu eta enpresa-premiaren kasuan —arrazoi teknikoak, antolakuntza-mailakoak edo ekoizpen-mailakoak direla medio— edo ezinbesteko arrazoiak daudenean. Halakoetan, aurretiko txosten bat beharko da, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bere ikuskaritza-funtzioak baliatuz emandakoa.

d) Kooperatibak ez burutzea garatzen duen helburuarekin lehian dagoen jarduerarik, eta ez aritzea lankidetzan horrelako jarduerak burutzen dituztenekin; salbu eta administratzaileek espresuki horretarako baimena ematen duten kasuetan.

e) Isilpean gordetzea kooperatibaren jarduerak eta datuak, baldin eta haiek ezagutarazita sozietatearen interesak kaltetzen badira.

f) Aurreikusitako baldintzetan egitea sozietatearen kapitalari egin behar dizkion ekarpenak.

g) Galerak beren gain hartzea, batzar orokorrak erabakitako kopuruan.

h) Legeen eta estatutuen ondorioz sortzen diren gainerako betebeharrak betetzea, eta kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakien ondorioz sortzen direnak betetzea.

23. artikulua. Bazkideen eskubideak

1. Bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Kooperatibako organoetako karguetarako kideak hautatzea eta hautatuak izatea.

b) Batzar orokorrean edo batzarkide diren gainerako organoetan hartuko diren erabaki guztietan proposamenak egitea, eta parte hartzea hitzez eta botoa emanez.

c) Kooperatibaren jarduera guztietan parte hartzea, inolako diskriminaziorik gabe.

d) Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia jasotzea.

e) Bidezkoa bada, sozietatearen kapitalera egindako ekarpenak eguneratu eta itzultzea, baita, hala dagokionean, horiengatik interesak jasotzea ere.

f) Kooperatiba-itzulkina jasotzea, hala dagokionean.

g) Lege eta estatutuen ondoriozko gainerakoak.

2. Beren eskubideez baliatzean, bazkideek kontuan izan behar dute zer dioten legeek eta estatutuek nahiz kooperatibako organoek balio osoz hartutako akordioek.

24. artikulua. Informazio-eskubidea

1. Bazkideek informazioa jasotzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, lege honetan, estatutuetan edo batzar orokorraren erabakietan aurreikusitakoaren baldintzetan, zeinetan egoki iritzitako bideak jarri ahal izango baitira bazkideen eskubide hori erraztu eta gauzatzeko.

2. Bazkide guztiek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Kooperatibaren estatutuen kopia bat eskatu ahal izango dute, baita, hala dagokionean, barne-araubidearen erregelamenduarena ere.

b) Kooperatibako bazkideen erregistro-liburua eta batzar orokorraren akta-liburua aztertzeko eskubidea izango dute. Hala eskatzen badute, administratzaileek batzar orokorraren aktaren eta han hartutako erabakien kopia ziurtatuak eman beharko dizkiete, baita bazkide-erregistroko liburuan egindako

inskripzioen ziurtagiria ere, baldin eta aurretik eskaera arrazoitua egin badute.

c) Administratzaileek hartutako erabakien kopia ziurtatua eskatu ahal izango dute, erabaki horiek bazkideari eragiten badiote.

d) Kooperatibarekiko duen ekonomia-egoeraren berri jaso ahal izango dute. Informazio hori administratzaileek eman beharko diote eskatu eta hilabete igaro baino lehen.

3. Edozein bazkidek kooperatibaren jardueren edo emaitzen berri izateko, argibide edo txostenak eskatu ahal izango dizkie administratzaileei idatziz. Informazio hori idatzizko eskaria egin eta hamabost egun igaro ondorengo batzar orokorraren lehenengo bileran eman beharko zaio eskaria egin duenari.

4. Batzar orokorraren gai-zerrendarekin bat, ekitaldiko kontuez edo proposamen ekonomiko bati buruz eztabaidatu behar bada, kooperatibaren egoitzan bazkideen eskura jarriko dira: urteko kontuen berri ematen duten agiriak, emaitzak ezartzeko proposamenak eta, hala dagokionean, artezkaritza-kontseiluak egindako kudeaketa-txostena edo kontuen kanpoko kontu-ikuskatzailearen txostena; horiek guztiak, bestalde, deialdiak dirauen bitartean egongo dira bazkideen esku aztertu ahal izan ditzaten. Hala badagokio, zaintza-batzordearen txostena ere, 5. artikuluan aipatzen dena, jarriko da bazkideen esku.

Epe horretan zehar, bazkideek agiri ekonomikoei buruzko azalpenak eta argibideak eskatu ahal izango dituzte, idatziz eta batzar orokorra izan baino bost egun lehenago gutxienez, eta batzarrean emango zaie erantzuna.

5. Aurreko zenbakian ezarritako eskubidea eragotzi gabe, sozietateko boto guztien ehuneko hamar gutxienez ordezkatzan duten bazkideek edozein mementotan eskatu ahal izango dute, idatziz, beharrezko iruditzen zaien informazio guztia. Administratzaileek idatziz eman beharko dute eskatu zaien informazioa, eskatu zaienetik hogeita hamar egun igaro baino lehen.

6. Dena den, administratzaileek kooperatibaren gorabehera sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko diete, hiru hilean behin gutxienez, bazkideei edo horien ordezkari; horretarako, egokiena iruditzen zaien bidea erabiliko dute.

25. artikulua. Informazio-eskubidearen muga eta bermeak

1. Administratzaileek uko egin diezaiokete informazioa emateari, arrazoituta, baldin eta eskaera ausartegia edo oztopatzailea bada, edo informazio hori emateak arrisku larrian jar baditzaite kooperatibaren interes legitimoak. Administratzaileek uko egin diezaiokete informazioa emateari, arrazoituta, baldin eta eskaera ausartegia edo oztopatzailea bada, edo informazio hori emateak arrisku larrian jar baditzaite kooperatibaren interes legitimoak. Ez da halako salbuespenik izango, baldin eta ukatutako informazioa batzar orokorrean eman beharrekoa bada eta bertaratutako eta ordezkaturako boto guztien erdia baino gehiago azaltzen bada eskatutako informazio hori ematearen alde. Beste kasu guztietan ere ez da halako salbuespenik izango, baldin eta, eskaria egin duten bazkideek errekurtsioa jarri ondoren, hala erabakitzen badu errekurtsio-batzordeak edo –halakorik ez badago– batzarrak.

Dena den, eskatzaileek aurkaratu ahal izango dute administratzaileen ezetza, lege honen 51. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera; bestalde, artikulua honen 2. zenbakian ezarritako kasuetan, Prozedura Zibilaren Legearen 256. artikuluan aurreikusitako prozedurara jo ahal izango dute.

2. Informazio-eskarian eta horri baiezkua nahiz ezezkoa ematerakoan bidegabekeriarik izan ez dadin eta inor kaltetua gerta ez dadin, berme-sistema bat eratu ahal izango da estatutuetan, kontuan izango dituen zer berezitasun dituen kooperatibak eta zein den bazkidearen benetako egoera hala kooperatiba-jarduerari dagokionez nola harekiko eskubide eta betebeharrei dagokienez.

26. artikulua. Borondatezko baja.

1. Bazkideak nahi duenean utzi ahal izango du kooperatiba bere borondate; horretarako, aurreabisu bat eman beharko die administratzaileei idatziz, estatutuetan zehaztutako epean. Epe hori sei hilabetekoa izango da, gehienez ere, pertsona fisikoentzat, eta urtebetekoa, pertsona juridikoentzat.

2. Bazkidea epe jakinik gabe egongo da kooperatiban.

Halere, enpresarekiko harremana iraupen jakin batekoa izan liteke, baldin eta estatutuetan horretarako aukera ematen bada eta langilea onartzean hala zehaztu bazen. Baliokide izango dira halako loturen berezko eskubide eta betebeharrak eta gainerako bazkideek dituztenak, eta estatutuetan erregulatuko dira. Mota horretako bazkideak ez dira inola ere izango behin betiko bazkideen eta haiek batzar orokorrean dituzten botoen bostena baino gehiago, bazkideak edozein motatakoak izanda ere. Portzentaje hori gainditu ahal izango da lan elkartuko kooperatibetan edo lan-bazkideak dituzten bestelako kooperatibetan, baina, kasu horietan, urtean egindako lanordu-kopurua, iraupen mugatuko bazkideek eta besteren konturako langileek egindakoa, ez da iritsiko bazkide langileek edota izaera mugagabeko lan-bazkideek egindako lanorduen %50era.

Iraupen mugatuko kontratuak dituzten bazkide langileek edo lan-bazkideek iraupen mugagabeko bazkide izateko aukera izango dute, baldin eta hiru urtez badihardute egoera horretan; egoera horretan bost urtez badihardute, berriz, berez bihurtuko dira iraupen mugagabeko bazkide; dena den, estatutuetan ezarri diren baldintza guztiak bete beharko dituzte horretarako.

3. Goiko 1. zenbakian erabakitakoa eragotzi gabe, estatutuetan ezarri ahal izango da ezen bazkideak ekonomia urtealdia bukatu arte geratu behar duela kooperatiban, edo, bestela, gutxieneko egonaldi bat egin behar duela. Gutxieneko egonaldi hori bost urtekoa izango da gehienez ere.

4. Aurreabisua emateko epea ez betetzea eta gutxieneko egonaldian gertatutako bajak arrazoitu gabeko bajatzat hartuko dira, baldin eta kooperatibaren administratzaileek bestelakorik erabakitzen ez badute kasuaren zergatiak aztertu ostean Horretaz guztiaz gainera, beste aukera batzuk ere badaude: bazkideari kooperatiban egin beharreko lan eta zerbitzu guztiak betearaztea eta, hala dagokionean, kalte-ordainak eskatzea.

5. Aurreko zenbakian erabakitakoaz gain, borondatezko bajak arrazoitu gabeak izango dira honako kasuetan:

a) Bazkideak kooperatibarenarekin lehian diren jardueretan aritu nahi badu.

b) Estatutuetan jasotako beste kasu guztietan.

6. Kooperatibak bere jarduera luzatzen duenean, bat egiten duenean edo banatzen denean, kooperatiba-mota aldatzen denean edo haren helburu soziala esanguratsuki aldatzen denean, baja

bidezkotzat joko da, baldin eta erabaki horren kontra bozkatzeko bada, edo, hori erabaki zuen batzar orokorrera joan ez arren, erabaki horrekiko desadostasuna adierazten denean. Eraldatze-kasuetan, 88. artikuluan jasotakoa bete beharko da.

7. Baja egiten duen bazkideak bakarrik eskatu ahal izango du ezen itzul dakizkiola kapitalari egindako ekarpenak —eguneratuta, hala badagokio lege honen 63 artikularen arabera— eta aitor dakiola erreserba banagarritik dagokion zatia. Gainerako sozietate-ondasunetik, berriz, ez du ezer eskatzeko eskubiderik izango.

27. artikulua. Nahitaezko baja

1. Nahitaez baja hartu beharko dute lege honen edo kooperatibako estatutuen arabera bazkide izateko bete behar diren baldintzak galdu dituzten bazkideek.

2. Nahitaezko baja administratzaileek erabakiko dute interesdunarekin hitz egin eta gero, bai beren kabuz, bai beste edozein bazkidek hala eskatuz gero edo lana utzi beharko duenak berak hala eskatuz gero.

3. Administratzaileen erabakia bete egin beharko da behin errekurso-batzordea edo, halakorik ezean, batzar orokorra ados dela jakinaraziz gero, edo horiei errekursoa aurkezteko epea bukatuz gero. Halere, estatutuek horretarako aukera ematen badute, bazkideari berehala eten ahal izango zaizkio, kautelaz, eskubide eta betebeharrak, erabakia nahitaez bete beharrekoa izan arte. Estatutuek zehaztu beharko dute etenduraren norainokoa. Erabakia nahitaez bete behar ez den bitartean, bazkideak batzar orokorrean botoa emateko eskubidea izango du.

4. Bazkide izateko baldintzak galtzen direnean, nahitaezko baja arrazoizkotzat hartuko da, salbu eta baldintza horiek kooperatibarekiko betebeharrak bete nahi ez direnean edo nahitaezko bajaz behar ez bezala baliatu nahi delako galdu direnean.

Arrazoitu gabeko nahitaezko baja kasuetan, aurreko artikuluen 3., 4. eta 7. zerbakietan ezarritakoa aplikatuko da.

. Bazkideren bat ez badago ados bere borondatezko bajaren nahiz nahitaezko bajaren kalifikazio edo ondorioei buruz administratzaileek erabakitakoarekin, errekursoa jartzeko aukera izango du. Halako kasuetan, hurrengo artikuluen 2. eta 4. zerbakietan ezarritakoa aplikatuko da.

28. artikulua. Bazkideak kanporatzea

1. Administratzaileek baino ezin izango dute erabaki bazkide bat kanporatzea estatutuetan jasotako falta oso larriagatik, horretarako izapidetutako espedientearen bidez eta kaltetuarekin hitz egin ondoren.

2. Bazkideak kanporatze-erabakiaren aurkako errekursoa jarri ahal izango dio errekurso-batzordeari edo, bestela, batzar orokorrari, jakinarazpena jaso eta hogeita hamar egun igaro baino lehen.

Errekurto-batzordeari errekurtoa aurkeztu, eta hiru hilabete baino lehen erabaki beharko da. Epe hori igaro eta ezer erabaki edo jakinarazten ez bada, errekurtoa onartu dela ulertuko da.

Batzar orokorrari jarritako errekurtoa haren lehenengo bilerako gai-zerrendan jaso beharko da, eta isilpeko bozketa bidez erabakiko da, aldez aurretik kaltetuarekin hitz egin ondoren.

3. Errekurto-batzordearen edo, halakorik ez badago, batzar orokorraren berrespenaren jakinarazpena jasotzen denetik edo haien aurrean errekurtoa jartzeko epea amaitzen denetik aurrera izango da eraginkorra kanporatze-erabakia.

4. Errekurto-batzordeak edo batzar orokorrak kanporatze-erabakia berretsi ondoren, erabakiaren aurka jo daiteke, 40. artikuluan aipatzen den auzibidetik eta jakinarazpena jasotzen denetik bi hilabeteko epean.

29. artikulua. Sozietatearen diziplina-arauak

1. Kooperatiba bakoitzaren estatutuetan finkatuko dira bazkideen diziplina-arauak. Bazkideak zehatzekotan, estatutuetan jasotako faltengatik izan beharko du, eta falta arinei dagokienez, barne-araubideko erregelamenduan jasotakoengatik. Bazkideek dena delako faltak direla-eta jaso ditzaketzen zehapenak estatutuetan finkatuko dira. Mota hauetakoak izan daitezke: kargu-hartzekoa, ekonomikoa, sozietate-eskubideak etetea edo kanporatzea.

2. Falta arinak hilabeteko epean preskribatzen dira; astunak, bi hilabeteko epean, eta oso astunak, hiru hilabeteko epean.

Preskripzio-epea administratzaileek arau-haustearen berri duten egunean hasiko da, eta, kasu guztietan, arau-haustea egin eta handik hamabi hilabetera. Epea eten egingo da zehapen-prozedurari hasiera ematean, eta berriz ere jarraituko du lau hilabeteen ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada.

3. Zehapen-prozedurak eta errekurtoak zein diren estatutuetan finkatuko da, baina betiere jarraian datozen arauok errespetatu beharko dira:

a) Administratzaileek dute zehapen-eskumena, eta ezingo dute delegatu.

b) Nahitaezkoa izango da aldez aurretik interesdunarekin hitz egitea.

c) Falta astunak eta oso astunak direla-eta jasotako zehapenen aurkako errekurtoak errekurto-batzordeari edo, halakorik ez balego, batzar orokorrari jarri ahal izango zaizkio, zehapenaren jakinarazpena egiten denetik hasita hogeita hamar egun igaro baino lehen.

d) Zehapen-erabakia 51. artikuluan ezarritako izapidetaren arabera aurkaratu ahal izango da. Hala dagokionean, errekurto-batzordearen edo batzar orokorraren berrespena 40. artikuluan ezarritako izapidetaren arabera aurkaratu ahal izango da, jakinarazpena egiten denetik hilabete igaro baino lehen.

4. Estatutuetan, nahitaez zehaztu beharko da zein neurritaraino eteten diren bazkidearen eskubideak.

30. artikulua. Jardunean ez dauden bazkideak edo erabiltzaile ez direnak

1. Kooperatibaren estatutuetan, aurreikusi ahal izango da bazkideek bazkide izaten jarrai dezatela baimentzea, honako kasu honetan: bidezko arrazoi bat eta behar besteko antzinatasuna izanik — estatutuetan ezarritako gutxienezkoa— utzi egiten badiote kooperatibak eskaintzen dituen zerbitzuez baliatzeari edo kooperatiba-jarduera burutzeari.

2. Bazkide horiek, dena den, estatutuetan ezarritakoaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak izango dituzte, baina haien botoak ezin izango dira sozietateko boto guztien bostena baino gehiago izan.

3. Jarduerarik ez burutzea bazkidea erretiratuta egotearen ondorioa balitz, lanean diharduten bazkideei dagokiena baino handiagoa izan ahalko da hark sozietatearen kapitalari egindako ekarpenari dagokion interesa, baina 62. artikuluan ezarritako muga errespetatu beharko da..

4. Sozietatearen estatutuetan, jarduera aldi baterako utzi duen bazkidearen figura arautu ahal izango du, hau da, eszedentziadun bazkidearen figura. Bazkide horri dagozkion eskubideak eta betebeharrak ere estatuetan ezarriko dira.

V. KAPITULUA. Kooperatibako organoak

31. artikulua. Organo-motak

Kooperatibetan beharrezkoak diren organoak:

a) Batzar orokorra.

b) Administrazio-organoa.

2.- Sozietatearen estatutuetan, erregulatu ahal izango dira zaintza-batzordearen, sozietate-kontseiluaren eta errekurso-batzordearen sorrera eta funtzionamendua, lege honetan aurreikusitakoaren arabera. Beste batzuk ere sortu ahal izango dira, baina, halakoek ez dituzte inolaz ere izango aipaturiko organoen funtzio eta eskumen berberak.

3.- Kooperatibako organoek lege honetan ezarritakoaren arabera jardungo dute, eta sozietatearen estatutuen arabera osatuko dira, baita barne-erregelamenduz edo funtzionamendu egokia bermatzeko balio osoz hartutako beste erabaki batzuen arabera ere.

I. ATALA. Batzar orokorra

32. artikulua. Batzar orokorra. Kontzeptua eta eskumenak

1. Kooperatibako batzar orokorra bazkideen bilkura da, bere eskumeneko arloez eztabaidatu eta erabakiak hartzeko erataua.

2. Bazkide guztiek bete behar dituzte batzar orokorraren erabakiak.

3. Batzar orokorrak baino ez du izango honako erabaki hauek hartzeko eskumena:

a) Isilpeko boto bidez honako hauek izendatzea eta ezeztatzea: administratzaileak, zaintza-batzordeko kideak, kitatzaileak eta, hala badagokio, errekurso-batzordeko eta sozietate-kontseiluko kideak. Era berean, erantzukizun-akzioa baliatu ahal izango dute haien guztien aurka.

b) Bidezko arrazoiren bat dagoenean bakarrik, kontu-auditoreak izendatzea eta ezeztatzea.

c) Kooperatibaren kudeaketa aztertzea, eta urteko kontuak eta soberakinen banaketa edo galera-egozpena onartzea.

d) Nahitaezko beste ekarpen batzuk ezartzea, eta zehaztea zer interes sortuko dituzten kapitalari egindako ekarpenek eta bazkide bihurtzeko edo aldian-aldian egin beharreko ekarpenak.

e) Honako hauek jaulkitzea: obligazioak, partaidetza-tituluak eta bereziak edo 67. artikuluan aurreikusitako beste finantzaketa-mota batzuk, hargatik eragotzi gabe 61.2 artikuluan ezarritakoa.

f) Sozietatearen estatutuak aldatzea.

g) Bigarren mailako kooperatibak eta antzeko beste erakunde batzuk sortzea, bai eta horietara bildu edo horietatik bereiztea ere.

h) Sozietatearen bat-egitea, zatitzea, eraldatzea eta desegitea.

i) Estatutuen arabera kooperatibaren ekonomia, antolaketa eta funtzioen egituretan oinarrizko aldaketak eragin ditzaketen beste erabaki guztiak hartzea.

j) Kooperatibaren barne-erregelamendua onartu edo aldatzea.

k) Legeak hala ezartzen duen gainerakoetan erabakiak hartzea.

4. Bestalde, batzar orokorrak kooperatibarentzat interesgarriak diren gai guztiez eztabaidatu ahal izango du, baina behartze-indarreko erabakiak hartu, lege honen arabera sozietateko beste organo baten eskumen eskusiboa ez diren arloetan bakarrik hartuko ditu.

5. Ezin izango dira delegatu lege honen arabera batzar orokorraren erabakia eskatzen duten egintzei buruzko eskumenak, salbu eta artikulua honen 3. zenbakiko g) letran adierazten den kooperatiba-integratioko prozesuetarako aurreikusitakoak.

33. artikulua. Batzar orokor motak

Batzar orokorrak ohikoak edo bereziak izango dira. Ohiko batzar orokorraren helburu nagusia da sozietatearen kudeaketa aztertzea, urteroko kontuak onartzea —beharrezkoa bada—, eta, hala dagokionean, soberakinak banatzea edo galerak egozteak. Bestalde, gai-zerrendan batzarraren eskumenekoa den beste edozein gai gehitu ahal izango du. Gainerako batzar orokor guztiak bereziak izango dira.

34. artikulua. Deialdia

1. Batzar orokorrerako deia administratzaileek egingo dute.

2. Ohiko batzar orokorrerako deia sozietatearen ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak igaro baino lehen egin beharko da nahitaez. Epe hori igaro, eta ez bada ez batzarrik ez deialdirik egiten, edozein bazkidek, notario bidez edo bestelako edozein bide sinesgarri erabiliz, errekeritu ahal izango die administratzaileei batzarrerako deia egin dezatela. Errekerimendua egin, eta hamabost egun igaro ondoren administratzaileek deirik egiten ez badute, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio sozietatearen egoitza dagoen lekuko lehen auzialdiko epaileari, zeinak, deia egin, eta erabakiko baitu nor izango den batzarreko burua. Batzar orokor hori, epez kanpo deitutakoa izanda ere, ohikoa izango da.

3. Batzar orokor berezia edozein unetan bilduko da, administratzaileek beren aldetik eskatuta, zaintza-batzordeak eskatuta edo boto guztien ehuneko hogeitaz gutxienez ordezkatzen duten bazkideek eskatuta. Horretarako, administratzaileei agiri sinesgarri baten bidez egin beharko zaie eskaria, eztabaidarako gaien eta proposamen gai-zerrenda jasotzen duena. Eskaria jasotzen denetik hogeita hamar egunera igarota batzar orokorra biltzeko deirik egiten ez bada, epailearen bidez egin ahal izango da eskaria, aurreko zenbakian erabakitako moduan.

4. Deialdia egin eta hurrengo bost egunak igaro baino lehen, boto guztien ehuneko hamar baino gehiago ordezkatzen duten bazkideek gai-zerrendan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahal izango die administratzaileei, idatziz. Administratzaileek gai horiek kontuan hartu eta gai-zerrenda berria legeak eskatzen duen bezala argitaratu beharko dute, batzar orokorra izan baino lau egun lehenago gutxienez. Batzarraren bilera-eguna ezin izango da inola ere atzeratu.

5. Batzar orokorra biltzeko deialdia sozietatearen egoitzan eta kooperatibak bere jardura garatzen duen leku guztietan jarriko da jendaurrean modu nabarmenean; era berean, estatutuetan hala jasotzen bada, banakako eta idatzizko beste edozein komunikazio-prozeduraren bidez ere zabalduko da.

Kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago baldin baditu edo estatutuek hala eskatzen badute, sozietatearen egoitzaren lurralde historikoan hedapen handia duen idatzizko egunkari batean —idatzizkoa edo digitala— ere iragarriko da deialdia.

Kooperatibak web orri korporatibo bat duenean, sozietatearen web orrian iragarriko da batzar orokorraren deialdia, betiere hark hartu badu web orria sortzeko erabakia eta Euskadiko Kooperatiba Erregistroan irekitako orrian jasota badago erabaki hori.

Deialdia bazkide guztiengana helduko dela bermatzeko, lege honetan aurreikusitakoez bestelako mekanismo batzuk ezarri ahal izango dira sozietatearen estatutueta, eta sozietateari exijitu ahal izango zaio alerta-sistema telematiko bat ezar dezala bazkideentzat batzarrerako deialdia sozietatearen web orrian egiten duenean.

6. Hau izango da deialdia jendaurrean jartzeko epea: bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta hirurogei egun lehenago gehienez.

7. Deialdian zehaztu beharko da, gutxienez, zein egunetan, zein ordutan eta non izango den bilera, bai lehenengo eta baita bigarren deialdian ere, eta bion artean ordu erdiko tartea utzi beharko da gutxienez. Deialdian bertan, bestalde, garbi eta zehaztasunez eta behar bezala sailkatuta jaso beharko dira gai-zerrenda osatzen duten gaiak.

Datu horiez gainera, honako hau ere adieraziko da: bazkideek eskubidea dutela gai-zerrendari buruzko dokumentu guztiak sozietatearen egoitzan aztertzeko, baita, izatekotan, sozietatearen intranetean ere.

8. Artikulu honetako aurreko zenbakietan ezarritakoa eragotzi gabe, deialdi gabeko batzarra osatu ahal izango da, baldin eta bazkide guztiak bilduta edo ordezkaturata egonik aho batez erabakitzen badute batzar unibertsala eratzea erabakitzen baldin badute. Horretarako, denek onartu eta izenpetu behar dute gai-zerrenda eta bertaratutakoena, nahiz eta gero ez duten denek batzarrean geratu beharrik izango.

35. artikulua. Funtzionamendua

1. Batzar orokorra, unibertsala ez bada behintzat, sozietatearen egoitza dagoen herrian burutu beharko da. Batzar orokorra, unibertsala ez bada behintzat, sozietatearen egoitza dagoen herrian burutu beharko da. Bestela egitea justifikatzen duen arrazoiren bat dagoenean, estatutueta finkatu ahal izango da bilera beste leku batzuetan egin ahal izango dela, edo zer irizpide erabili behar dituzten administratzaileek erabakitzeko bilera zein lekutan egin.

Kooperatibaren estatutueta, honako hau ezarri ahal izango da: geografikoki urruti dauden kideek erabakiak baliozkotasunez hartzeko unean parte hartzeko eta beren nahiak adierazteko modua izango dute. Horretarako, bideokonferentzia edo antzeko sistemaren bat erabiliko da, zeinaren bidez bermatuko baita irudi- eta soinu-komunikazioa bi noranzkoko eta aldi berekoa izatea eta ikusteko, entzuteko eta hitz egiteko interakzioa izatea.

Bazkideren batek goian adierazitako moduan parte hartzen badu batzar orokorrean, batzarraren idazkariak, hartutako erabakiak baliozkoak izateko exijituriko baldintza guztiekin batera, espresuki jasoko du hori aktan, baita bazkide horren izen-abizenak eta parte hartzeko erabili den bidea ere.

2. Batzar orokorra baliozkoa izango da lehen deialdian bildutako edo ordezkaturako bazkideek botoen gehiengoa badute, eta bigarren deialdian, bildutakoak edo ordezkaturakoak ehuneko hamarrera iristen badira edo 100 bazkidera iristen badira. Estatutueta bestelakorik esaten ez bada, nahikoa izango da quorum hori bileraren hasieran lortzea. Ordea, Kontsumoko, irakaskuntzako eta nekazaritzako elikagaien kooperatibek —esklusiboki— hirugarren deialdi bat egin ahal izango dute; kasu horretan, berdin dio zenbat bazkide dauden bilduta edo ordezkaturata.

3. Batzar orokorrerako deialdia egin zen unean bazkide zirenek izango dute batzarrera joateko eskubidea.

4. Estatutueta zehazten ez bada nahitaez batzarrera joan behar dela, bazkide batzuek beste batzuk ordezkatu ahal izango dituzte; horretarako, batzar bakoitzeko idatzizko baimen bat izan beharko dute ordezkariak izan bazkideek. Batzar unibertsalaren kasuan, aurreikusitako gai-zerrenda ere jaso beharko da ordezkariak egiaztatzen den idatzian.

Bazkideek ezin izango dute, bakoitzak bereaz gainera, bi ordezkariak baino gehiago izan. Ordezkariak ezeztatu ahal izango da. Ordezkariak beste norbaiti eman dion pertsona batzar orokorrera joaten bada, joate hutsak ordezkariak ezeztatze indarra izango du.

5. Estatutueta hala jasotzen bada, kontsumoko, etxebizitzako, nekazaritzako edo familiako beharrezko aurre egitera zuzendutako kooperatibetan, ezkontideak edo familiako besteren batek edo legezko tutoreak ordezkatu ahal izango du bazkidea batzar orokorrean, baldin eta estatutueta onartzen den ahaidetasun-mailaraino aritzeko gaitasun osoa baldin badute. Orobat zehaztu beharko da estatutueta ea batzar bakoitzerako behar izango den ahalorde berezia edo ordezkariak-idatziak bazkideak zehaztutako eperako balio izango duen.

6. Batzar orokorreko lehendakaria estatutueta izendatutakoa izango da. Hark ezingo balu, administrazio-organoko lehendakaria, eta hark ere ezin izango balu, batzarrak hautatutako bazkidea izango litzateke. Batzarreko lehendakariaren egitekoak izango dira: eztabaidak bideratu, batzarra behar bezala burutu dadin zaindu eta legezko izapideak betearaztea.

7. Lehendakariak idazkari baten laguntza izango du, eta hori ere estatutuek edo batzarrera bildu diren bazkideek izendatuko dute.

8. Lege honetan edo estatutueta aurreikusitako kasuetan, bozketa isilpekoa izango da, baita bertaraturako eta ordezkariak izan bazkideen ehuneko hamarrek hala izan dadila eskatzen duten kasuetan ere.

9. Gai-zerrendan jaso gabeko gai buruzko erabakiek ez dute baliorik izango, lege honetan espresuki dena delako erabakia hartzea baimentzen den kasuetan izan ezik.

10. Administrazioaileek batzar orokorretara joan beharra izango dute. Zuzendari, gerente, teknikari eta enpresak behar bezala jarduteko zerikusia duten gainerako pertsonak batzarrera joatea baimendu edo derrigortu ahal izango da estatutueta. Batzar orokorrak beste edozeini ere eman ahal izango dio batzarrean parte hartzeko baimena.

36. artikulua. Boto-eskubidea

1. Kooperatibetan, bazkideek boto bana izango dute.

2. Dena den, estatutueta honako hau aurreikusi ahal izango da lehen mailako kooperatibei dagokienez: bazkideen boto-eskubidea — kooperatiben, kooperatibok kontrolatutako sozietate eta erakunde publikoen bazkideena— kooperatibarekin duten jarduera-mailaren edo kooperatiba horien arteko harremanetan osagarriak diren prestazioen neurriaren arabera izatea.

Kasu horretan, estatutuetan argi zehaztu beharko da zein diren boto-eskubidea neurtzeko irizpideak.

Kooperatiba-sozietatea ez den bazkide batek izan dezakeen boto-kopurua ezin izango da kooperatibako boto guztien herena baino handiagoa izan.

3. Bigarren edo maila handiagoko kooperatibetan 138. artikuluan ezarritako beteko da.

Kreditu-kooperatibetan, erakunde horiei dagokien araubide berezian ezarritakoa bete beharko da.

4. Bazkide laguntzaileen, jardunean ez dauden edo erabiltzaile ez diren bazkideen eta iraupen mugatuko bazkideen boto-kopurua ezin izango da inoiz ere kooperatibako boto guztien erdia izatera iritsi.

5. Estatutuetan adierazi beharko da zein kasutan abstenituko den bazkidea interes-gatazkak sortzen direnean.

37. artikulua. Gehiengoen araubidea

1. Batzar orokorrean erabakiak hartzeko, baliozkotasunez emandako botoen erdia baino gehiago behar izango da. Horretarako, ez dira zenbatuko ez boto zuriak ez eta abstentzioak ere. Dena den, salbuespenak izango dira lege honetan edo estatutuetan gehiago indartuak eskatzen diren kasuetan.

2. Kooperatibaren eraldatzea, bat-egitea, zatitzea edo desegitea erabakitzeko, batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen baliozko botoen bi herenak behar izango dira, baldin eta kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa baldin bada bertaratu eta ordezkaturakoen boto-kopurua.

38. artikulua. Batzar orokorraren akta

1. Batzar orokorrean hartutako akordioak aktan jasoko dira. Akta idazkariak idatziko du eta, ondoren, akta-liburuan jasoko du. Honako datuok jaso beharko dira:

a) Bileraren eguna eta lekua.

b) Deialdia noiz eta zein modutan egin den, batzar orokor unibertsalak direnetan izan ezik.

c) Deialdiaren testu osoa.

d) Zenbat bazkide bertaratu diren, zehaztuz zein etorri diren beren izenean eta zein besterenean, baita batzarra lehenengo deialdian edo bigarreanean burutu den ere.?

e) Eztabaidatutako gaien eta aktan jaso daitezela eskatutako iritzien laburpena.

f) Hartutako erabakien edukia.

g) Bozketen emaitzak, erabaki bakoitza zenbateko gehiengoarekin hartu den zehaztuta. Aurkako botoa eman duenak hala eskatzen badu, aurkako boto hori jaso egingo da.?

h) Aktaren onespena, bilera bukatu ondoren hala gertatzen bada.

2. Bertaratutakoen zerrenda aktaren hasieran edo beronekin batera jasoko da, lehendakariak oniritzia eman eta idazkariak izenpetutako eranskin batean. Bertaratutakoen zerrenda fitxategi bidez osatu edo euskarri informatikoan jaso ahal izango da, betiere ezaugarri horietako sozietateentzat Merkataritza Erregistroko Araudian finkatutako baldintzak betez.

3. Akta batzarrak berak onartu ahal izango du, batzarra egin ondoren, edo, bestela, lehendakariak eta batzarrak berak izendatutako bi kidek onartuko dute, idazkariarekin batera sinatuta, hamabost eguneko epean.

4. Batzar orokorrera joandako edozeinek eskubidea izango du aktaren edo hartutako erabakien testu osoaren ziurtapenak eskatzeko. Ziurtagiria egiten den egunean idazkari denak emango ditu ziurtagiriok, lehendakariaren oniritziarekin.?

5. Erabakietan esaten direnak onartzen diren unetik jarriko dira indarrean.

6. Erregistroan inskribatu daitezkeen erabakiak Kooperatiba Erregistroan aurkeztu beharko dira, akta onartu eta hurrengo hogeita hamar egun igaro baino lehen.

39. artikulua. Delegatuen batzarra

1. Batzar orokorra delegatuen batzar gisa eratzeko aukera jaso ahal izango da estatutuetan, baldin eta kreditu-kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago baldin baditu edo batzar orokorrean bazkide guztiak egotea modu larrian eta etengabe oztopatzen duten gorabeherak gertatzen badira; prestatze-batzordean aukeratuko dituzte ordezkari horiek.

2. Estatutuetan espresuki araututa egon beharko dira ondorengo alderdi hauek: zer irizpide ezarriko diren bazkideak prestatze-biltzar batera edo bestera adskribatzeko, zein den deialdien eta osaeraren araubidea, zein diren delegatuak aukeratzeko arauak (beti bazkideak izan beharko dute), zenbat boto izango duen bakoitzak batzar orokorrean eta zer izaera izango duen eta zenbat iraungo duen haiei emandako agintaldiak.

3. Prestatze-biltzar bakoitzean zenbat delegatu hautatuko den eta delegatu horiek batzar orokorrean zenbat boto izango duten arautzeko, estatutuetan proportzionaltasun-irizpidek hartu beharko dira kontuan nahitaez.

4. Artikulu honetan eta estatutuetan prestatze-biltzarrei buruz aurreikusi gabeko alderdiei dagokienez, batzar orokorrerako ezarritakoa aplikatutako da, aplikatzekoa den neurrian.

40. artikulua. Batzar orokorrak hartutako erabakiak aurkaratzea

1. Batzar orokorraren erabakiak aurkaratu ahal izango dira, baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira, edo bazkide baten, batzuen nahiz beste pertsona batzuen mesedetan, kooperatibaren xedeen aurkakoak badira.

2. Erabakia ezin izango da aurkaratu, baldin eta, Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako baldintzei jarraikiz, hura ondorioz gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu, ezta aipatu lege horretan aurreikusitako beste kasuetan ere. Aurkaratutako erabakia Kooperatiba Erregistroan jasota badago, ezerezteko erabakiko du epaiak.

3. Aurkaratze-akzioa honako hauek baliatu ahal izango dute: bazkideek, administratzaileek, zaintza-batzordeko kideek edo interes legitimoa duen edozein hirugarrenek; aurkaratze-akzioa baliatzeko aukera urtebetean iraungiko da, salbu eta erabaki horien ondorioak edo edukiak ordena publikoaren aurkakoak direnean.

4. Aurkaratzeko epe hori erabakia hartu zenetik hasiko da kontatzen; erabaki hori Kooperatiba Erregistroan inskribatu behar bada, berriz, inskribatzen den unetik aurrera.

5. Oro har, Sozietate Kapitalaren Legearen arabera ezarriko da aurkaratze-prozedura, salbuespen batekin: demanda-idatzian, zaintza-batzordeak eskatu beharko du aurkaratutako erabakia eten dadila; edo, bestela, gutxienez botoen ehuneko hogeitaz ordezkatzeko eskaria.

6. Aurkaratzea kontuan hartu duen epaiak bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez die eragingo aurkaratutako erabakiaren ondorioz eta asmo txarrik gabe beste batzuek lortutako eskubideei. Aurkaratutako erabakia Kooperatiba Erregistroan jasota balego, ezerez dadila erabakiko luke epaiak.

2. ATALA. Kooperatiba administratzea eta ordezkatzea

41. artikulua. Administratzaileak. Izaera eta eskumenak

1. Administratzaileei bakarrik dagokie kooperatiba kudeatzea eta ordezkatzea; bestalde, legeek edo estatutuek sozietateko beste organo baten esku espresuki uzten ez dituzten beste eskumen guztiak ere haienak izango dira.

2. Estatutuetan zehaztu beharko da zein modutan gauzatuko den administratzaileei esleitutako ordezkaritza. Ordezkapen hori sozietatearen helburuen barruan dauden egintza guztietarako izango da, bai epaiketetan eta baita epaiketaz kanpoetarako ere. Administratzaileen ordezkaritza-ahalmenei estatutuetan jarritako edozein muga indarrik gabekoa izango da hirugarrenen aurrean. Asmo txarrik eta erru larririk gabe jardun duten hirugarrenetik erantzukizuna izango du kooperatibak, nahiz eta estatutuen arabera egintza ez egon sozietatearen helburuen barruan.

42. artikulua. Administratzaileak hautatzea

1. Administratzaileek kide anitzeko organoa osatuko dute, eta organo horri artezkaritza-kontseilua deituko zaio. Dena den, kooperatiban hamar bazkide baino gehiago ez baldin badira, administratzaile bakarra izatea aurreikusi ahal izango da estatutuetan.

Sozietatearen estatutuetan zehaztuko da zenbat izango diren administratzaileak, edo zenbat izango diren gehienez, eta zenbat gutxienez. Azken kasu horretan, batzar orokorrak erabakiko du administratzaile-kopuru zehatza.

2. Administratzailea bakarra baldin bada, bazkidea izan beharko du. Artezkaritza-kontseiluan, berriz, kideen laurdena bazkide ez direnen artean hautatu ahal izango da, salbu eta estatutuetan espresuki galarazten ez bada.

3. Administratzaileak batzar orokorrean hautatuko dira, isilpeko bozketan emandako baliozko botoen kopururik handiena lortzearen bidez.

Baldin eta 46.4 artikuluari jarraikiz artezkaritza-kontseiluan postuak erreserbatzen badira, eragindako bazkide-kolektibo bakoitzak eskubidea izango du kontseilari-kopurua batzarrean zuzenean aukeratzeko, baina dagokion kopurua bakarrik, ez batzarreko kide guztiak. Hori horrela izango da estatutuetan ez bada bestelakorik ezartzen.

4. Pertsona juridiko bat izendatuz gero administratzaile-lanak egiteko, pertsona fisiko bat izendatu beharko du pertsona juridikoak kargu horren funtzioak betetzeko.

5. Onartzen den une beretik izango ditu ondorioak administratzaile-izendapenak, eta Kooperatiba Erregistroan inskribatu beharko da, hogeita hamar eguneko epean, kargua onartzen denetik kontaturik.

6. Administrazio-organismoak zuzendari-gerente bati edo batzuei eman ahal izango dizkie ahalorde orokorrak, baita haiek ezeztatu ere; haien gaitasunak ahalorde-eskrituran ageri direnak izango dira, hau da, kooperatibaren ohiko trafikoari buruzkoak soilik. Kooperatiba Erregistroan jaso beharko dira bai izendapena, bai eskumenak ematea eta ezerezteak. Horretaz gain, administrazio-organismoak ahalorde bereziak eman ahal izango dizkio edozeini.

7. Kontseilari diharduten epearen barruan postu gutxi batzuk hutsik geratzen badira eta ordezkorik ez badago, artezkaritza-kontseiluak bazkide bat izendatu ahal izango du lehenengo batzar orokorra biltzen den arte.

43. artikulua. Ezgaitasunak eta debekuak

1. Honako hauek ez dira administratzaile izango:

a) Birgaitu gabeko konkurtsatutakoak, emantzipatu gabeko adingabeak, epaiketa bidez ezgaituak, kargu publikoetan jarduteko desgaitzen duten zigorrek betetzen ari direnak, lege edo gizarteko arauak modu astunean ez betetzeagatik zigorren bat jaso dutenak eta beren kargua dela-eta irabazi-asmoko jarduerak burutzerik ez dutenak.

b) Funtzionarioak eta administrazio publikoaren zerbitzuko langileak, dena delako kooperatibaren berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioak baldin badituzte.

c) Beren edo besteren kontura arituz, kooperatibarekin lehian dauden jarduerak burutzen dituztenak, edo modu batera edo bestera kooperatibaren interesen aurkako interesak dituztenak.

d) Zaintza-batzordeko eta errekurtsio-batzordeko kideak eta zuzendari-gerenteak.

e) Estatutuetan aurreikusitako kasuetako batean sartuta daudenak.

2. Artikulu honetan aipatzen den ezgaitasun edo debekuren batek administratzailearen bati eragiten badio, berehala utzi beharko du bere kargua Dena den, bere kargua aldi baterako uztera behartu ahal izango du zaintza-batzordeak edo, halakorik ez balego, artezkaritza-kontseiluak, hurrengo batzar orokorra burutu arte. Batzar orokorrak administratzailea kargutik kenduko du, baldin eta kargua kautelaz eten bazaio edo bazkide batek eteteko eskatu badu; salbu eta c) letran aurreikusitako kasuan, zeinetan batzar orokorrak libreki erabakiko baitu kargutik kendu ala ez?

44. artikulua. Ordainsaria

1.- Administratzaileei ordaindu egingo zaie hala jasotzen bada espresuki estatutuetan, zeinetan ordainsariak finkatzeko irizpideak ere ezarriko baitira. Batzar orokorrak finkatuko du zenbat ordaindu behar zaien urtean.

Nolanahi ere, ordainsariak proportzio bat gorde beharko du kooperatibak duen garrantziarekin, haren unean uneko egoera ekonomikoarekin eta, batez ere, administratzaileek beren karguan dihardutenean emandako benetako prestazioekin.

Hori guztia urteko memorian jasoko da.

2.- Karguaren ondoriozko gastuak ordaindu egin beharko zaizkie.

45. artikulua. Karguaren iraupena eta kargutik kentzea

1. Estatutuetan finkatuko den eperako hautatuko dira administratzaileak, bi eta bost urte arteko eperako betiere. Berriz ere hautatu ahal izango dira, denbora tarte bererako, salbu eta estatutuetan kontrakoa ezartzen denean. Izendapenari zegokion epea igaro ondoren ere, karguan jarraituko dute administratzaileek behin-behingo, hurrengo batzar orokorra izan arte.

2. Batzar orokorrean, administratzaileak kargutik kentzea erabaki ahal izango da, gai-zerrendan halakorik agertzen ez bada ere. Gai hori gai-zerrendan ageri ez denean, kargutik kentzearen alde batzarrean dauden botoen eta ordezkaturakoen bi herenak bozkatu beharko du.

3. Administratzailearen bat kargutik kentzen baldin bada, administratzaile berriak hautatu beharko dira batzar orokorraren saio berean, gai-zerrendan halakorik agertzen ez bada ere.

4. Administratzaile bat kargutik kentzeko arrazoia edozein dela ere, Kooperatiba Erregistroan izena ematen denetik aurrera izango ditu ondorioak hirugarrenetik.

5. Kontseilari batek bere karguari uko eginez gero, arrazoitu egin beharko du bere erabakia, idatziz, eta artezkaritza-kontseiluari jakinarazi; kontseiluak erabakiko du ea justifikatuta dagoen uko egiteko adierazitako arrazoia, eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari.

Uko egitearen kalifikazioa batzar orokorrean edo errekurtsio-batzordean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bajarentzat ezarritako baldintza eta epe berberetan.

Kontseilari uko-egileak bere jakinarazpenean finkaturiko datan gauzatuko da uko-egitea; data hori ezin izango da izan jakinarazpena baino lehenagokoa.

Kooperatibaren ustetan uko-egitea ez badago arrazoituta, kalte-galerak ordaintzea eskatu ahal izango zaio dena delako administratzaileari hala dagokionean.

46. artikulua. Artezkaritza-kontseilua osatzea eta berritzea

1. Estatutuetan finkatuko da nola osatu behar den artezkaritza-kontseilua, baina ezin izango dira hiru kide baino gutxiago izan. Behin betiko hutsuneak direla-eta titularren ordezkioak jartzea arautzen bada, erabaki beharko da zenbat izango diren ordezko horiek eta zein izango den hautaketa- eta ordezpen-sistema.

2. Artezkaritza-kontseiluak bere kideen artean aukeratuko ditu lehendakari- eta idazkari-karguak, salbu eta estatutuetan aurreikusten denean ezen hori batzar orokorrari dagokiola; estatutuetan, bestalde, aurreikusi ahal izango da idazkariak ez duela izan behar ez kooperatibako bazkide ez kontseilari. .

3. Artezkaritza-kontseilua partzialki berriztatuko da, salbu eta estatutuetan ezartzen denean kide guztiak berritu behar direla

Kontseilariak behin eta berriz hautatu ahal izango dira, salbu eta estatutuetan kontrakorik ezartzen bada.

4. Estatutuetan, artezkaritza-kontseilua osatzean honako hauek kontuan hartzea aurreikus daiteke besteak beste: zer ezarpen geografiko duen kooperatibak, zer jarduera garatzen dituen, zer bazkide-mota dituen eta zein diren mota bakoitzeko portzentajeak, baita, alderdi horien arabera ezarri beharreko kontseilari-postuen erreserba ere?.

47. artikulua. Artezkaritza-kontseiluaren aktak

1. Estatutuetan arautuko da artezkaritza-kontseiluaren barne-funtzionamendua. Estatutuetan arautu gabeko gaietan, artezkaritza-kontseiluak berak arautu ahal izango du bere funtzionamendua.

2. Artezkaritza-kontseilua biltzeko deia lehendakariak egingo du, eta bilera baliozkoa izateko, kideetako erdiak baino gehiagok egon beharko du bertan. Kontseilariak pertsonalki parte hartuko du kontseiluaren bileretan.

Kooperatibaren estatutuetan, honako hau ezarri ahal izango da: geografikoki urruti dauden artezkaritza-kontseiluko kideek erabakiak baliozkotasunez hartzeko unean parte hartzeko eta beren nahiak adierazteko modua izango dute. Horretarako, bideokonferentzia edo antzeko sistemaren bat erabiliko da, zeinaren bidez bermatuko baita irudi- eta soinu-komunikazioa bi noranzkoko eta aldi berekoa izatea eta ikusteko, entzuteko eta hitz egiteko interakzioa izatea.

Artezkaritza-kontseiluko kideren batek goian adierazitako moduan parte hartzen badu batzar orokorrean, batzarraren idazkariak, espresuki jasoko du hori aktan, hartutako akordioak baliozkoak izateko exijituriko baldintza guztiekin batera; era berean, aktan jasoko du zein diren bazkide horren izen-abizenak eta zer bide erabili duen bileran parte hartzeko.

3. Erabakiak hartzeko, bertaratutakoen erdiak baino gehiagoren botoak behar izango dira, salbu eta besterik agintzen bada legean edo estatutuetan. Kontseilariak boto bana izango dute. Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko ez boto zuriak ez eta abstentzioak ere.

Artezkaritza-kontseiluak bertaratuen gutxienez bi herenen aldeko botoa beharko du honako erabaki hauek hartzeko:

a) Jarduera-zentro nagusi bat edo haren zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzeko.

b) Kooperatibaren jarduera murriztu, zabaldu edo nabarmen aldatzeko.

c) Kooperatibaren antolamenduan aldaketa garrantzitsuak egiteko.

d) Kooperatiba diren edo ez diren beste erakunde batzuekin lankidetzaharremanak egin edo eteteko, biheren lankidetzaharreman horiek iraunkorrak eta baliagarriak gertatzen badira kooperatibarentzat.

Berdinketen kasuan, lehendakariaren botoak erabakiko du.

4. Kontseiluaren erabakiak akta-liburu batean jasoko dira. Bileraren akta lehendakariak eta idazkariak izanpetuko dute, eta izandako eztabaiden laburpena eta erabakien testua ere jasoko ditu, bozketen emaitzeekin batera.

5. Sozietate-kooperatibaren estatutuetan besterik ezartzen ez bada, artezkaritza-kontseiluak betearazpen-batzorde bat edo kontseilari delegatu bat edo gehiago izendatu ahal izango ditu bere kideen artetik.

Ezin izango da inola ere delegatu batzar orokorrari kontuak emateko eta balantzea aurkezteko lana; era berean, ezin izango dira delegatu batzar orokorrak artezkaritza-kontseiluari laga dituen ahalmenak, salbu batzar orokorrak espresuki ematen duenean hori egiteko baimena.

Batzorde betearazleari edo kontseilari delegatuari artezkaritza-kontseiluaren ahalmenak modu iraunkorrean delegatzeko, eta kargu horiek bete behar dituzten kontseilariak izendatzeko, kontseiluko kideen bi herenek horren aldeko botoa eman behar dute, bat etorritik 47.3 artikularekin; delegatutako ahalmen eta izendapen horiek ez dute ondorioz izango Kooperatiba Erregistroan inskribatu arte.

48. artikulua. Administrazioaileen betebeharrak

1. Administrazioaileek beren karguari dagozkion funtzioak eta legeetan eta estatutuetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, kontuan harturik zer izaera duen haien karguak eta zer funtzio esleitu zaizkien, eta behar besteko neurri hartu beharko dituzte kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko.

2. Era berean, ordezkari leial bati dagokion fideltasunez jardungo dute beren karguan, fede onez eta kooperatibaren onurarako, eta esleitu zaizkien ahalmenak ezarritako helburuetarako baliatuko dituzte, eta ez beste ezertarako.

3. Administrazioaileek beren funtzioak amaitu eta gero ere sekretupean gorde behar dituzte isilpeko datuak; salbu eta legeak bestela baimentzen edo eskatzen duen kasuetan, betiere babestuz enpresa-zuhurtzia.

4. Administrazioaileek ez dute inongo jarduerarik burutuko, ez bere kabuz ez besteren konturako, baldin eta horrek benetako lehia egiten badiu kooperatibari, edo, nola edo hala, gatazka etengabea sortzen badu haren interesekiko.

Nolanahi ere, kooperatibak debeku horietatik salbuetsi ahal izango du administrazioailea, betiere kasu berezietan eta batzar orokorrak horretarako baimena ematen badu espresuki.

Administrazioaileak ezin izango du parte hartu bozketan horrelako gatazka-egoera batean inplikaturik badago.

Aipaturiko baimenik gabe gauzaturiko egintzak, kontratuak eta eragiketak deuseztatu ahal izango dira, salbu eta fede oneko hirugarrenek eskuraturiko eskubideen kasuan.

49. Atala - Administrazioaileen erantzukizuna

1. Administrazioaileena izango da legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz sorturiko kalteen erantzukizuna, baita karguari dagozkion funtzioak gauzatzean eragindakoena ere, betiere dolo edo erruz jardun badute. Erantzukizun hori zenbatesteko, kontuan hartuko da ea administrazioailearen kargua ordainpekoa den ala ez.

Administrazioailearen jokabidea arauz kontrakoa dela frogatutakoan joko da hura erruduntzat.

2. Erantzukizun solidarioa dute egintza kaltegarria gauzatu edo erabaki kaltegarria hartu duen organoaren kide guztiek, salbu eta honako hau frogatzen dutenak: erabakia hartu edo betearaztean esku ez hartzeaz gain, ez zekitela erabaki hori hartu zenik, edo jakin arren, kalteak saihesteko beharrezkoa zen guztia egin zutela, edo, gutxienez, espresuki jo zutela erabakiaren aurka.

3. Erantzukizuna berbera izango da egintza edo erabaki kaltegarria batzar orokorrak hartu, baimendu edo

berretsi bazuen ere.

4. Administratzaileen erantzukizuna egitatezko administratzaileengana ere zabaltzen da. Xede horretarako, egitatezko administratzailetzat joko da hala administratzaile izendatu gabe haren funtzioak betetzen dituen, nola sozietateko administratzaileek beren jardunerako jarraitzen dituzten jarraibideak ematen dituen.

Ez da egitezko administratzailetzat joko kooperatibari laguntza finanantzarioa baldintza eta errekerimendu batzuk ezarriz eskaintzen dion hartzekoduna, salbu eta kontrakoa frogatzen den kasuan.

50. Atala - Administratzaileen kontrako erantzukizun-akzioak

1. Administratzaileen aurkako erantzukizun-akzioa kooperatibak gauzatu ahal izango da; aurrez, batzar orokorrak gehiengo soilez erabaki beharko du, nahiz eta eguneko gai zerrendan halakorik agertu ez. Batzar orokorrak edonoz emango dio baiezkua nahiz ezezkoa akzioa gauzatzeari.

Gai-zerrendan agertzen ez bada, aldeko botoa eman beharko dute batzarrean daudenen eta ordezkaturakoen botoen bi herenek. Ez dira kontatuko ez boto zuriak, ez baliogabeak.

2. Batzar orokorrak erantzukizun-akzioa bultzatzea edo gauzatzeari baiezkua ematea erabakiz gero, kaltetutako administratzaileak kargutik kanpo geratuko dira berez eta besterik gabe.

3. Erabakia hartu ondoko hiru hilabeteetan kooperatibak berak erantzukizun-akziorik hasten ez badu, edozein bazkidek hasi ahal izango du. Sozietatearen interesaren alde, botoen %20a ordezkaten duten bazkideek ere hasi ahal izango dute erantzukizun-akzioa, baldin eta administratzaileek ez badute deitzen horretarako eskaturiko batzar orokorra.

4. Kaltea egin eta sei hilabeteetara batzarrak edo bazkideek ez badute akzioa gauzaten, sozietateko edozein hartzekodunek hasi ahal izango du erantzukizun-akzioa, kooperatibaren ondarea berriro osatzeko helburuarekin bakar-bakarrik.

5. Dena den, akzioa iraungita geratuko da baldin eta bi urte igaro badira erantzukizun-akzioa eragin zuten egintzak gertatu edo ezagutu zirenetik.

6. Aurreko zenbakietan erabakitakoa gorabehera, guzti horretatik kanpo geratzen dira bazkide edo hirugarrenei dagozkien norbanako akzioak, hain zuzen ere administratzaileek haien kaltetan egindako egintzen aurkakoak.

7. Leialtasun-betebeharra urratzeak bidegabeki lortutako aberastasuna sozietateari itzultzeko betebeharra ere ekarriko dio administratzaileari, sozietatearen ondareari eragindako kaltea ordaintzeko betebeharrak gain.

51. artikulua. Administratzaileen erabakiak aurkaratzea

1. Erabakiak, artezkaritza-kontseiluarenak, edo hala dagokionean, batzorde betearazlearenak, aurkaratu ahal izango dira, baldin eta legearen edo estatutuen aurkakoak baldin badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarrenen mesedetan.

2. Administratzaileek eta zaintza-batzordeak erabaki horiek aurkaratu ahal izango dituzte, hartu ondorengo hirurogei eguneko epean.

3. Era berean, edozein bazkidek aurkaratu ahal izango ditu erabakiak, haien berri izan eta ondorengo hirurogei eguneko epean, betiere ez bada urtebete igaro erabakia hartu zenetik.

4. Aurkaratzeak zehaztuta dauden ondorioak izango ditu, eta batzar orokorraren erabakiak aurkaratzeko ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

3. ATALA Zaintza-batzordea

52. artikulua. Osaera, agintaldia eta izendapena

1. Estatuetan zehaztuko da zenbat kide titular izan behar dituen zaintza-batzordeak (gutxienez hiru), baita zenbat ordezkari kide izan behar dituen eta zenbat iraungo duen haren agintaldiak, zeina ez baita izango administratzaileen agintaldiaren berbera.

Batzorde hori ez da nahitaezkoa izango, baldin kooperatibak ehun bazkide baino gutxiago baditu.

2. Bazkide izan beharko da zaintza-batzordeko kide izateko, salbu eta estatuetan bestelakorik onartzeko aukera aurreikusi bada. Bestelakorik onartzekotan, zuzentasuna, lan-prestakuntza eta esperientzia teknikoa eta enpresariala eskatuko zaizkio organo horren betebeharren arabera. Bazkide ez diren kide horiek ez dira batzordeko kide guztien erdia baino gehiago izango, erditik azpirantz jota neurtuta.

Kooperatiban berrogeita hamar langile baino gehiago badaude lan-kontratuarekin, horien artetik aukeratutako ordezkari bat kontrol- eta zaintza-batzordeko kide izango da hala aurreikusten bada estatuetan.

3. Batzordeko kideak aukeratu edo kanporatzeko, batzar orokorrean emandako baliozko boto guztien zatirik handiena beharko da, eta isilpeko bozketa egin beharko da betiere; estatuetan oztoporik ezartzen ez bada, berriz ere aukeratu ahal izango dira, eta administratzaileentzat lege honek ezarri dituen arauak bete beharko dituzte erantzukizun, lansari, ezintasun, debeku eta erregistroan inskribatzeari dagokienez.

53. artikulua. Informazio-ahalmenak

1. Administratzaileek zaintza-batzordeari kooperatibaren jardueren eta ustez izango duen bilakaeraren berri eman beharko diote hiru hilabetetik behin gutxienez.

2. Batzordeak bere lana burutzeko behar beste egiaztapen egiteko eskubidea du, eta hori egiteko agindua bere kideetako bati edo batzuei eman ahal izango die edo, bestela, adituen laguntza eskatu ahal izango du, kideen artean halakorik ez badago

3. Batzordeko kide guztiek izango dute emandako edo jasotako informazio guztia ezagutzeko aukera, baina ez dute ikerketa-lanen edo jasotako informazioaren emaitzen berri ematerik izango estatutuetan zehaztutako eremuetatik kanpo, ez eta kooperatibako kideen aurrean ere.

54. artikulua. Jardun-eremua

Zaintza-batzordeak lege honetan zehaztutako funtzioak beteko ditu, baina ezin du kooperatibaren kudeaketan zuzenean parte hartu, eta ezin da kooperatibaren ordezkari izan hirugarrenen aurrean; hala eta guztiz ere, kooperatibaren ordezkari izango da kooperatiba beraren administrazio-organoaren edo bere kideetako edozeinen aurrean, organo hori auzitara eraman behar bada edo organo horren kideekiko hitzarmenak bukatu egin badira.

55. artikulua. Ahalmenak eta funtzionamendua

1. Zaintza-batzordeak honako funtzio hauek betetzeko ahalmena du:

Urteko kontuak aztertzea eta kontu horiei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz nahitaezko txostena egitea, batzar orokorrean azaldu aurretik, salbu eta kooperatibak bere finantza-egoera auditoretzaren baten aurrean aurkeztu behar duenean.

b) Kooperatibako liburuak aztertzea.

c) Kooperatibaren onerako beharrezkotzat jotzen duenean, batzar orokorra biltzeko deia egitea, baldin eta administratzaileek ez badiote, epe barruan, kasurik egin bazkideek 34. artikuluko 2. eta 3. zenbakian ezarritakoaren arabera egindako eskariari.

g) Ordezkaritza-idazkiak egokiak diren gainbegiratu eta kalifikatzea, eta, orokorrean, batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza eta gorabeherak argitzea.

e) Lege honetan zehaztutako kasuetan, sozietatearen erabakiak aurkaratzea.

f) Batzar orokorrari ebazpena emateko aurkeztu dizkion egoera edo arazo zehatzei buruzko informazioa ematea.

g) Batzar orokorrak gainerako organoetako kideak aukeratzen dituen erabilitako hautaketa- eta izendapen-prozesua zaintzea.

h) Administratzaileen funtzioak etetea, baldin eta 43. artikuluko ezintasun- edo debeku-egoeraren batean badaude, eta, hala gertatuz gero, beharrezko neurriak hartzea batzar orokorra bildu arte.

i) Lege honek espresuki agindutako gainerako eginkizun guztiak.

2. Kooperatibak finantza-egoerak auditatu behar dituzenean, zaintza-batzordeak kontabilitate-euskarriak aztertu ahal izango ditu —kideek komeni dela uste badute, behintzat—, eta, beharrezkoa bada, horiei buruzko txostena egin ahal izango du. Dena dela, txosten hori ez da nahitaezkoa izango kooperatibaren urteko kontu auditatuak onartzeko.

Era berean, eta urteko kontuak auditatzen badira ere, zaintza-batzordeak txosten bat egin ahal izango du soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz.

Deskribaturiko bi kasu horietan, zaintza-batzordeak administratzaileei jakinarazi beharko die asmoa duela kooperatibaren urteko kontuei buruzko eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txosten bat —nahitaezkoa ez dena— aurkezteko, bazkideek txosten hori aztertzei aukera izan dezaten ohiko batzar orokorraren deialdia argitaratzen den unean berean.

3. Zaintza-batzordearen funtzionamendu-araubidea estatutuetan, edo, hala badagokio, barne-erregelamenduan erabakitakoaren arabera izango da. Halere, edozein administratzailek edo batzordeko edozein kidek eska diezaioke idatziz bertako lehendakariari organo hori biltzeko deia egin dezala, eskabidea egiteko dituen arrazoiak azalduz. Eskari hori gutxienez artezkaritza-kontseiluaren edo zaintza-batzordearen beraren herenak egiten baldin badu, eta hilabeteko epean osatzeko deirik egiten ez bada, eskatu duten taldeetako edozeinek egin ahal izango du deia.

4. Likidazioaldian, artikulua honetan zehaztu zaizkion funtzioen artetik garai horretan bidezkoak direnak bakarrik beteko ditu zaintza-batzordeak.

4. ATALA. Beste organo batzuk

56. artikulua. Sozietate-kontseilua Izaera eta funtzioak

1. Sozietatearen estatutuetan, sozietate-kontseilu bat eratzeko aukera jaso ahal izango da, kooperatibako bazkideen ordezkotza duen organo izanik oinarrizko funtzio hauek izango dituen: administratzaileei informazioa, aholkuak eta iritziak ematea lan-harremanari dagozkion alderdi guztiei buruz, baita horiei buruzko arauzko txostenak ematea ere, bereziki 104.2 eta 106. artikuluetan adierazitakoei buruzkoak.

2. Halaber, beren estatutuetan hori jasotzen duten kooperatibetan, nahitaezkoa izango da sozietate-kontseiluari iritzia eskatzea bazkide ez diren soldatapekoekiko lan-harremanari dagozkion alderdi guztiei buruz.

3. Sozietate-kontseilua langile bazkideek edo lan-bazkideek osatuko dute. Sozietatearen estatutuetan

zehaztuko da sozietate-kontseiluaren osaera, iraupena, desgitea eta funtzionamendua, eta administratzaileek haren bileretan parte hartzeko aukerarik ba ote duten.

57. artikulua. Errekurtso-batzordea Osaera eta funtzioak

1. Kooperatibako estatutuetan, errekurtso-batzorde bat arautu ahal izango da bazkideen arau-hauste astun edo oso astunengatik enpresan lehen auzialdian hartutako erabaki zehatzaileak berriro aztertzeko, baina bakarrik kaltetuak hala eskatzen badu. Zehatzaileak ez diren erabakiengatik ere errekurtsoa jarri ahal izango zaio batzorde honi, aukera hori ezarri bada lege honetan edo estatutuetan.

2. Organo horretako kide izateko, bazkideek estatutuetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte: antzinasuna, kooperatiben arloko esperientzia eta egokitasuna. Kide titularrak eta ordeko kideak, estatutuetan agindu beste izango direnak, batzar orokorrak aukeratuko ditu isilpeko bozketan, beste eskakizunak betetzeaz gain sozietatean ardurazko kargurik izan ez eta kooperatibako soldatapeko ere ez diren bazkideen artetik. Haien agintaldia ez da hiru urtetik beherakoa izango, eta berriztatu egin ahal izango da.

3. Errekurtso-batzordearen eztabaidak baliozkoak izateko bileran kideen erdiek baino gehiagok egon beharko dute, eta ezingo da botoa delegatu; erabakiak hartzeko, berriz, estatutuetan zehaztuko den gehiengo behar izango da. Diziplinarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko bozketa isilpekoa izango da beti, eta ez da egongo kalitatezko botorik.

4. Errekurtsoei buruzko izapideak egin edo erabakitzerakoan, bazkideek ezin izango dute parte hartu, baldin eta gaiak eragiten dion bazkidearekiko bigarren gradura arteko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna badute edo pertsona horrekiko menpekotasuna, adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna badute.

Errekurtso-batzordearen erabakiak, enpresaren nahiaren adierazpen direnez gero, berehalakoan bete beharko dira eta behin betikoak izango dira. Aurkaratu egin daitezke, batzar orokorrak hartu izan balitu bezala, 40. artikulua ezarritakoaren arabera.

5. Artikulu honetako aurreko zenbakietan jaso ez denetarako, kooperatibaren estatutuek agintzen dutena ezarri beharko da.

VI. KAPITULUA. Araubide ekonomikoa

58. artikulua. Erantzukizuna

1.- Kooperatibak erantzungo du sozietatearen zorrez, uneko eta geroko ondare guztiarekin; salbu eta kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokiona, kasu horretan helburu horiek betetzean sorturiko zorrez bakarrik erantzungo baita.

2.- Bazkideek ez dute sozietatearen zorren erantzukizun pertsonalik izango. Haien erantzukizuna sozietate-kapitalean dituzten ekarpenek mugatuko dute.

3.- Berreskuratu beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja egiten duten langileek ez dute inolako erantzukizunik izango baja hartu aurretik kooperatibak egin zituen zorreatatik.

4.- Baina, bazkideek —baja egiten dutenak barne— erantzukizuna izango dute honako kasu hauetan: kontratuak izenpetu badituzte edo espresuki eta berariaz hartu badituzte konpromisoak kooperatiba-sozietatearekiko, eta haiek, beren izaera dela-eta, ez badira iraungitzen bazkide izateari utzi eta gero.

59. artikulua. Sozietatearen kapitala

1. Bazkideek kapital horri egiten dizkioten ondare-ekarpenek, nahitaezkoek edo borondatezkoek, osatuko dute kooperatibaren sozietate-kapitala. Ekarpene horiek honelakoak izan ahal izango dira:

a) Baja gertatuz gero, berreskuratzeko eskubidea ematen duten ekarpenak.

b) Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, batzar orokorrak edo artezkaritza-kontseiluak baldintzarik gabe itzultzea ezetsi ditzaketen ekarpenak.

Baja-kasuan itzuli daitezkeen ekarpenak kooperatibak baldintzarik gabe itzultzea ezetsi daitezkeen ekarpen bihurtu nahi baditu, edo alderantzizko bihurketa egin nahi badu, batzar nagusiaren erabakia beharko da. Bazkideren bat horrekin bat ez baldin badator, baja eskatu ahal izango du; baja hori arrazoituztat joko da.

2. Ekitaldi ekonomiko batean itzuli beharreko ekarpenen kopurua gorde beharreko sozietate-kapitalari dagokion kopurua baino handiagoa bada, estatutuetan jasota utzi ahal izango da artezkaritza-kontseiluaren aldeko iritzia beharko dela kasu horietan ekarpenak itzuli ahal izateko.

Bazkideren bat bat ez baldin badator portzentaje hori ezartzearekin edo gutxitzearekin, baja eskatu ahal izango du; baja hori arrazoituztat joko da.

Kasu horretan, honako hauek ere aplikatuko dira: 62. artikuluko 4. zenbakia, 64. artikuluko 1. zenbakia eta 97. artikuluko 3. zenbakia.

3. Sozietate-kapitalari egindako ekarpenak ziurtatzeko, izendun agiriak erabiliko dira, baina ez dira diru-baliozko agiritzat hartuko; edo, bestela, izendun partaidetza-libretak erabiliko dira, non egindako ekarpen eta gaurkotze guztiak eta bazkideari egotzitako galerengatik egindako kenketak azalduko baitira.

4. Ekarpene egiteko, legezko moneta erabili beharko da. Sozietatearen estatutuetan baimena ematen bada edo batzar orokorrak hala erabakitzen badu, ondasunak edo eskubideak ere erabili ahal izango dira ekarpenetarako. Halako kasuetan, administratzaileek zehaztuko dute haren balioa, baina, horretarako, beraiek izendatutako aditu independente batek edo batzuek egindako txosten bat aurkeztu beharko dute, adituen erantzukizunez egina eta ekarpenaren ezaugarriari eta balioari buruzkoa eta hura neurtzeko erabili dituzten irizpideei buruzkoa izango dena. Halere, estatutuetan hala jasotzen bada, batzar orokorrak onartu beharko du administratzaileek egindako baliospen hori.

5. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide bakoitzak egindako guztizko ekarpenek ezin izango dute gainditu sozietatearen kapitalaren herena, salbu eta kooperatiba-sozietateen edo bazkide laguntzaileen kasuan. Muga hori ez zaie ezarriko hamar bazkideetik beheragoko kooperatibei.

6. Mendeko finantza-ekarpenentzat joko dira ekarpen-mota horiek jasotzen dituzten kooperatibak hartzekodun guztien ondoren jartzen badituzte kreditu-hurrenkeraren ondorioetarako.

Edozein dela ere sozietatearen kapitalaren izena eta formalizazio juridikoa, sozietatearen kapitaltzat hartuko dira kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin kontraturiko mendeko finantza-ekarpen guztiak, likidazioa onartu ondoren baino itzul ezin daitezkeenak. Kontrakorik hitzartu ezean, ekarpen horiei ez zaie aplikatuko legen honetako 60. artikulutik 65. artikuluetara bitarte ezarritakoa. Ekarpene edo partaidetza horiek itzuli edo karteran lortu ahal izango dira bermea duten mekanismo finantzarioen bidez; mekanismo horiek kapital-sozietateetan partaidetzetarako edo akzioetarako ezarritakoaren parekoak izango dira, 77/91 bigarren Zuzentarauan aurreikusitako aukerak erabiliz edo erregelamenduz ezartzen diren baldintzen arabera.

Ekarpene horiek — horien ordainsaria finkoa, aldagarria edo partaidetza bidezkoa izan daiteke — tituluen edo kontuko idatzoharren bidez adieraziko dira, eta balore higigarritzat hartu ahal izango dira hala aurreikusten denean jaulkipen-erabakian; kasu horretan, horrelako finantza-aktiboek dagokien araudira egokituko da ekarpenon araubide juridikoa.

Ekarpene horiek ez dute inola ere emango batzar orokorrean botoa emateko eskubiderik, ezta administrazio-organoan parte hartzekorik ere.

Ekarpene horien jaulkipenen edo kontratazioaren 100eko 50 gutxienez bazkideei eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie hirugarrenei eskaini baino lehen. Eskaintza horri publikitatea emango zaio, batzar orokorrak deitzeko ezarritako baldintza beretan.

Eskaintza-jaulkipena baimentzeko eskumena duten agintaritzak ekonomikoek informazioa gainbegiratu eta onartu ondoren, organo gainbegirataile eskudunak ezarritako erakunde arduradunak arduratuko dira informazio hori bazkide ez diren hirugarrenek jaso dutela bermatzeaz.

7. Artikulu honen 1. zenbakitik 5.era bitarte ezarritakoa kreditu-kooperatibei eta aseguru-kooperatibei ere ezarriko zaie, baldin eta kooperatiba horien araudietan ez bada horretarako eragozpenik jartzen.

60. artikulua. Sozietatearen kapitalari nahitaez egin beharreko ekarpenak

1. Estatutuetan zehaztuko da zein den bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpena, zeina desberdina izan daitekeen lege honetan ageri den bazkide-mota bakoitzarentzat, kontua hartuta zer izaera duen, fisikoa ala juridikoa. Ezberdina izan daiteke, halaber, bazkide bakoitzarentzat ere, kooperatibaren jarduerarekiko bakoitzak duen konpromisoaren edo erabileraren arabera.

2. Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpenaren ehuneko hogeita bost gutxienez izenpetzearekin batera ordaindu beharko da, eta gainerako guztia sozietatearen estatutuetan edo batzar orokorrak erabakitako epean. Epe hori lau urtekoa izango da gehienez ere.

3. Bazkideei kooperatibaren galerak egozten zaizkielako edo estatutuetan jasotako diru-zehapena

ordaindu behar dutelako, bazkideren batek edo batzuek sozietate-kapitalari egin beharreko ekarpena ez bada heltzen estatutuek edo—halakorik ez badago— batzar orokorrak halakoetarako erabakitako gutxieneko zenbatekora, bazkide horiei berehala eskatuko zaie beste ekarpen osagarri bat egin dezatela bazkide izaten segitzeko. Estatutuek edo —halakorik ez badago—batzar orokorrak finkatuko du zein den ekarpen hori egiteko epea, baina epe hori ezingo da inoiz urtebetetik goragokoa izan.

4. Batzar orokorrak urtero erabakiko du bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpena, eta nahitaezko ekarpen berriak ere erabaki ahal izango ditu, eta zenbatekoa eta ordaintzeko epeak eta baldintzak zehaztu. Zenbateko hori desberdina izan liteke bazkide batentzat edo beste batentzat, 1. zenbakian ezarritako irizpideen arabera. Kapitala nahitaez zabaltzarekin konforme ez dagoen bazkideak baja eman ahal izango du. Baja hori arrazoituztat hartuko da.

Aurrez egindako borondatezko ekarpenak erabili ahal izango dira nahitaezko ekarpen berriak ordaintzeko.

5. Eskatutako ekarpenak ordaintzeko berandutzarik badago bazkideren baten aldetik, kooperatibari legezko interesa ordaindu eta berandutzaren ondorioz egindako kalteen ordaina eman beharko dio, aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera. Bere egoera zuzentzeko agindua jaso ondoko hirurogei eguneko epean zuzendu ez duen bazkidea:

a) nahitaezko baja-egoeran jarri ahal izango dute, bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpenaren edo 3. zenbakian ezarritako gutxieneko kopuruaren kasuan.

b) gainerako kasuetan, kooperatibatik kanporatu ahal izango dute.

61. artikulua. Sozietatearen kapitalari egindako borondatezko ekarpenak

1. Batzar orokorrak erabaki ahal izango du bazkideek sozietatearen kapitalari borondatez egindako ekarpenak onartu ala ez; betiere ekarpen horien baldintzak zehaztu beharko ditu.

2. Administrazioaileek edozein unetan onartu ahal izango dituzte bazkideek sozietatearen kapitalari borondatez egindako ekarpenak, baina haien ordainsaria ez da izango batzar orokorrak kapitalarentzat erabakitako borondatezko azken ekarpenena baino handiagoa, edo, halakorik ezean, ez da izango nahitaezko ekarpenena baino handiagoa.

62. artikulua. Ekarpunen interesa

1. Kapitalari egindako ekarpenek interesa eman dezakete, aurrez batzar orokorrak erabakitako beste, hargatik eragotzi gabe aurreko artikulua 2. zenbakian erabakitakoa.

2. Interes hori ez da legezko interesa baino sei puntu gehiagokoa izango.

3. Kapitalari egindako ekarpenen ordainsariak emango dira, baldin eta horretarako beharrezkoa den soberakin garbirik edo xedapen askeko erreserbarik badago.

4. Batzar orokorrak erabakitzen badu ekarpenei interesen bat sorraraztea edo erabilgarri dituen soberakinak itzulkinetara edo erreserba banagarrietara bideratzea, ordainsari bat jasotzeko lehentasuna izango dute 57.1. b) artikuluan aurreikusitako ekarpenek, baldin eta kooperatibak haiek itzultzea ezesten badu eta titularrek baja egin badute.

63. artikulua. Ekarpentak eguneratzea

1. Kooperatibaren balantzea zuzenbide zibileko sozietateentzat aurreikusitako baldintza eta onura berekin erregularizatu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe erregularizazioaren ondoriozko gainbalioarentzat lege honetan ezarritako xedea.

2. Aipaturiko gainbalio hori kapitala eguneratzeko edo erreserbak, nahitaezkoak zein borondatezkoak, handitzeko erabiliko du kooperatibak; hori ekitaldi bakarrean edo gehiagotan egingo du, kooperatibak berak egoki irizitako proportzioan. Nolanahi ere, kooperatibak konpentsatu gabeko galerak baldin baditu, erregularizazioaren ondoriozko gainbalioa haiek konpentsatzeko erabiliko da, eta gainerakoa arestian aipaturiko helburuetarako.

64. artikulua. Ekarpentak eskualdatzea

Ekarpentak honela eskualdatu ahal izango dira:

1. Bazkideen eta hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izatera engaiatzen diren inter vivos arteko egintzen bidez, betiere estatutuetan ezarritako baldintzetan.

Estatutuetan aurreikusi ahal izango da bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpentak 57.1 b) artikuluan aurreikusitako ekarpentak eskuratuz egin behar direla, hau da, kooperatibak itzultzea ezetsi dituen ekarpenen bidez, betiere haien titularrek baja egin ondoren. Eskualdaketa ekarpen-mota horien itzulketa-eskarien antzinatasunaren arabera egingo da; eskariak data berean egiten diren kasuan, berriz, ekarpenen zenbatekoaren arabera egingo da.

2. Mortis causa oinordetzaren bidez, eskubide-hartzaileei — bazkideak badira eta eskatzen badute, edo, bazkide ez badira, aurretik bazkide gisa onartu ondoren—, 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Onarpen hori heriotza gertatzen denetik hiru hilabeteko epean egin behar da. Bestela, sozietate-ekarpenari dagokion kredituaren likidazioa jasotzeko eskubidea izango dute, hurrengo artikuluan aurreikusten diren baldintzetan.

Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inongo eskubiderik izango kooperatiben ondasunen eta bazkideek sozietatearen kapitalari egindako ekarpenen gainean. Ekarpentak horiek, bestalde, ezin izango dira enbargatu. Horrek ez ditu eragotziko hartzekodunek balia ditzaketan eskubideak, hau da, bazkidearenak diren itzulketen, interesen eta itzulkinen gainean dituen eskubideak.

65. artikulua. Ekarpentak itzultzea

1. Estatutuetan arautuko da sozietatearen kapitalari egindako ekarpenen itzulketa, eta ezarri ahal izango da kenkariak soilik nahitaezko ekarpenen gainean aplikatuko direla, gehienezko portzentaje hauek aplikatuz: % 30eraino baten bat kanporatzen denean, eta % 20raino arrazoitu gabeko baja bat gertatzen denean.

Estatutuetan aurreikusi ahal izango da ezen, itundutako gutxieneko iraupenaldia bete ezean, ehuneko hamar puntu gehitu ahal izango zaizkiola, gehienez ere, arrazoitu gabeko bajari egin behar zaion kenkari-portzentajeari.

2. Kasu bakoitzean aplikatu beharreko kenkari-portzentajearen gaineko erabakia administratzaileen eskumenekoa izango da.

3. Arestian aipatutako kenkarien aurka joan gabe, baja egiten duen bazkideari itzuli beharreko ekarpenaren deskontu-ondorioetarako, baja gertatzen den ekitaldiko itxiera-balantzean jasotako galerak zenbatuko dira, direla ekitaldi horri dagozkionak, direla aurreko beste ekitaldi batzuetatik datozenak edo kapitalari egindako ekarpen osoaren arabera konpentsatu gabe daudenak.

4. Itzulketa-epea bost urtekoa izango da gehienez ere, baja-datatik aurrera kontaturik. Bazkidearen heriotza gertatuz gero, eskubide-hartzaileei egin beharreko itzulketa egitate eragilea izan denetik urtebetetik beherako epean egin beharko zaio.

59.1.b) artikuluan aurreikusitako ekarpenetarako, kooperatibak itzulketa erabakitzen duen datatik aurrera zenbatuko dira aurreko zenbakian aipatutako epeak.

5. Itzulketa Kooperatibak erabakitzen duen ekarpenetan, itzultzeke dauden kopuruak ez dira eguneratu ahal izango, baina eskubidea emango dute gutxienez diruaren legezko interesa jasotzeko.

6.- Aurreko zenbakietan ezarritakoa eragotzi gabe, batzar orokorrak sozietatearen kapitala murrizteko erabakia hartuz ere itzuli ahal izango dira ekarpenak, edo, hala dagokionean, bazkideak kooperatiban burutzen duen jarduera murriztuz, betiere jarraikiz estatutuetan ezarritako baldintzak.

66. artikulua. Partaidetza bereziak

1. Partaidetza berezizat hartuko dira artikulua honetako arauketaren arabeko mendeko finantzaketak, baldintza hauek betetzen dituztenak: harpidedunak ez dira inolaz ere kooperatibak izango, salbu eta artikulua honen 4. zenbakian aurreikusitako bazkideen kasuan; itzulketa ez da gauzatuko partaidetza jaulki eta gutxienez bost urte igaro arte, eta ordainsaria kooperatibaren emaitzen araberakoa izango da.

2. Partaidetza hauen gainerako ezaugarriak jaulkitzen direnean ezarriko dira, libreki, baina ezin izango zaie aitortu, inolaz ere, batzar orokorrean bota emateko eskubidea, ezta administrazio-organoan parte hartekorik ere.

3. Artikulu honetan ezarritakoa soil-soilik aplikatu ahal izango zaie kreditu-kooperatibei eta aseguru-kooperatibei, baldin eta kooperatiba horien araudietan ez bada horretarako eragozpenik jartzen.

4. Ekarpene horien jaulkipenen edo kontratazioaren 100eko 50 gutxienez bazkideei eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie hirugarrenei eskaini baino lehen. Eskaintza horri publikizitatea emango zaio,

batzar orokorrak deitzeko ezarritako baldintza beretan.

5. Artikulu honetan ezarritakoaren arabera arautzen ez diren partaidetzarako —edozein dela ere horien izena— , itun askearen sistema ezarriko da, baita 59. artikuluan sozietate-kapitalarentzat ezarritakoa eta 67.ean bestelako finantzaketei buruz ezarritakoa ere.

67. artikulua. Bestelako finantzaketak

1. Estatutuetan, edo hala dagokionean, batzar orokorrean, sarrera-kuotak eta aldikakoak ezarri ahal izango dira; horiek ez dira sozietatearen kapitalean sartuko, ezta itzuliko ere. Estatutuetan, edo hala dagokionean, batzar orokorrean, sarrera-kuotak eta aldikakoak ezarri ahal izango dira; haiek ez dira sartuko sozietatearen kapitalean, ezta itzuliko ere. Kuota horiek ezberdinak izan ahal izango dira, honako alderdi hauen arabera: zer bazkide-mota aurreikusten diren lege honetan, zein den haien izaera –fisikoa ala juridikoa–, edo zer konpromiso duen kooperatibarekin edo zer proportziotan jardun dezakeen kooperatiba-jardueran.

2. Sarrera-kuotek ez dute gaindituko sozietatearen kapitalari nahitaez egin beharreko ekarpenaren ehuneko hogeita bosta. Sozietatearen kapitala bazkide izateko unean-unean indarrean dagoena izango da.

3. Ez dira sozietatearen kapitalean sartuko bazkideek kooperatibaren kudeaketarako entregatutako ondasunak eta zerbitzuak eta, orokorrean, kooperatiba-zerbitzuak lortzeko egindako ordainketak. Eragiketa horiek kooperatibarekin finkaturiko eta kontraturiko baldintzen mende egongo dira. Haiek guztiak ez dira sartzen kooperatibaren ondarean, eta sozietatearen hartzekodunek ezin izango dituzte enbargatu.

4. Kooperatibak jaulkipenak erabaki ahal izango ditu: obligazioak, partaidetza-tituluak, partaidetza-kontuak, baita boto-eskubiderik ez duten bazkideen edo hirugarrenen borondatezko finantzaketak ere, edozein dela ere haien modalitate juridikoa. Kontuan harturik zein diren kooperatibaren emaitzak, eragiketa horien ordainsaria osoa edo partziala izan daiteke, zeina ezartzen diren epe eta baldintzak betez ordaindu beharko baita.

68. artikulua. Soberakin garbiak zehaztea

1. Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza-sozietateentzat ezarritako kontabilitate-arau eta -irizpideak ezarriko dira.

2. Dena dela, soberakin garbiak zehazterakoan honako hauek partida kengarrizat hartuko dira:

a) Kooperatibaren kudeaketarako entregatutako ondasunen zenbatekoa, zeina ez baita merkatu-preziotik gora balioetsiko, eta bazkide langileen eta lan-bazkideen lan-aurrerakinen zenbatekoa, zeina, oro har, ez baita izango eskualdean bazkide horien jarduera-sektore berean ordaindu ohi dena baino handiagoa.

b) Sozietatearen kapitalari egindako ekarpenen ondoriozko interesak, lege honen 59. artikuluan

arautuak, eta sozietatearen kapitalean sartzen ez diren prestazio eta finantzaketak.

c) Besteren konturako langileei kooperatibaren emaitzetan ematen zaien partaidetza.

69. artikulua. Soberakinak antolatzea

1. Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko zenbatekoak eta eskatu daitezkeen zergak kendu ostean, soberakin baliagarri bilakatuko dira soberakin garbiak.

2. 2. Urtero, honela erabiliko dira soberakinak:

a) Ehuneko hogeita hamar, nahitaezko erreserba-funtserako eta kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako. Portzentaje horretatik, gutxienez ehuneko hamar kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako, eta ehuneko hogeita hamar, nahitaezko erreserba-funtserako.

b) Gainerakoarekin, berriz, batzar orokorrak erabakiko du zer egin: bazkideei itzuli, edo borondatezko-erreserba-funtsetarako eman –funts banagarri edo banaezin moduan, estatutuek ezartzen duten moduan, edo, halakorik ez badago, batzar orokorrak erabakitzen duen moduan–, edota, hala badagokio, soldatapeko langileek parte har dezatela kooperatibaren irabazietan; dena den, kontabilitatean gastutzat jo ahal izango da parte-hartze hori.

3. Nahitaezko erreserba-funtsa sozietate-kapitalaren ehuneko berrogeita hamarrera heltzen ez den bitartean, erdiraino murriztu ahal izango da kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako ezartzen den gutxieneko ekarpena.

4. Bazkideei itzulkinak esleitzeko orduan, kontuan izango da zer eragiketa, zerbitzu edo jarduera egin duen bazkide bakoitzak kooperatibarekin, eta proportzio berean esleituko zaizkie.

5. Kooperatibak estatutuetan onartu eta zehaztu ahal izango du soldatapeko langileek eskubidea dutela irabazietan parte hartzeko; bestela, batzar orokorrak erabaki ahal izango du hori. Parte-hartze hori, bestalde, soldatan islatuko da; lan-arloan aplikatu behar den araudian halako osagarririk ezarrita badago, hura ordezkatzeko du, osagarri hori baino handiagoa bada. Txikiagoa izanez gero, aldiz, araudiak ezarritako osagarria aplikatuko da.

70. artikulua. Nahitaezko erreserba-funtsa

1. Kooperatiba finkatu, garatu eta bermatzeko da nahitaezko erreserba-funtsa, eta ezin da bazkideen artean banatu, lege honek espresuki aurreikusitako egoeretan izan ezik.

2. Honako diru-kopuru hauek zuzendu beharko dira nahitaezko erreserba-funtsera:

a) Soberakin baliagarrien portzentaje bat. Batzar orokorrak ezarriko du portzentaje hori, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Bazkideei baja emanez gero, sozietatearen kapitalari nahitaez egin beharreko ekarpenen kenkariak.

c) Sarrera-kuotak.

71. artikulua. Kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena

1. Estatutuek edo batzar orokorrak finkatutako oinarritzko ildoak aplikatuz, interes publikoko helburu hauetakoren bat izango du soberakinei 69. 2.a artikuluan ezartzen zaien nahitaezko ekarpenak:

a) Bazkideak eta langileak prestatzea eta heztea kooperatibagintzaren eta kooperatiba-jardueren arloan eta lanpostuarekin lotuta ez dauden beste arlo batzuetan.

b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzea. Eremu horretan, gastu hauek ere estaliko dira: kooperatiba guztiak sustatu, lagundu eta zuzentzeko sortutako erakundeetan parte hartzearen sortzen diren gastuak edo kooperatibek elkarri laguntzeko jarduerak sortzen dituztenak.

c) Hezkuntza, kultura, lanbidea eta laguntza sustatzea eta kooperatibagintzaren ezaugarriak zabaltzea kooperatibak lan egiten duen gizarte-inguruan eta gizarte orokorrean.

d) Euskararen erabilera sustatzea.

e) Kooperatiba-enpresa berriak sustatzea. Horretarako, diru-ekarpenak egingo zaizkie kooperatiben euskal mugimenduak sustatzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakundeei.

2. Aurreko zenbakiko a), b) eta c) letretan adierazten diren helburuetara bideratu ahal izango da nahitaezko ekarpen hori, diru-ekarpenak eginez aurreko 1.b letran adierazten diren irabazteko asmorik gabeko erakundeei edo lankidetzak-erakundeei.

Bitartekaritza-erakunde horiei diru-ekarpenak egiteko, dena den, beharrezkoa izango da adierazitako interes publiko horiek dituzten helburuetara zuzentzea ekarpenok; horretarako, bitartekaritza-erakundeak berak egingo ditu jarduerak; bestela, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei zuzenduko dizkie jasotzen dituen baliabideak.

3. Kooperatibak ezin du erabaki ekarpen horren gainean, non eta ez diren interes publikoko helburuetara zuzentzen; ondorioz, ekarpen hori enbargaezina da, eta balantzearen pasiboan azaldu behar da.

4. Ekarpene horretarako aurreikusitako helburuetarako erabiliko dira kooperatibak bazkideei ezartzen dizkieten zehapene ekonomikoak.

5. Kooperatibak berak adierazitako interes publikoko helburuetara zuzentzen ez den diru-kopurua, berriz, irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzenduko zaie hurrengo ekitaldi ekonomikoan; hau da, soberakinak banatzeko erabakitzen den ekitaldian ez, hurrengoan.

72. artikulua. Galerak egoztea

1. Estatutuek finkatu beharko dute zein diren galerak konpentsatzeko irizpideak. Irizpideok, nolana ere, erregela hauek bete beharko dituzte:

a) Borondatezko erreserba-funtsik badago, galera guztiak egotzi ahal izango dira funts horietara.

b) Nahitaezko erreserba-funtsera egotziko da, gehienez ere, soberakin positiboak izandako azkenengo bost urteetan nahitaez legezko funtsetara bideratu diren diru-kopuruen batz bestekoa edo, kooperatiba bost urte horiek baino berriagoa bada, eratze-unetik beretik bideratutakoen batez bestekoa. Hala ere, nahitaezko erreserba-funtsak kooperatibaren sozietate-kapitalaren % 50 gainditzen badu, galerak konpentsatzeko erabili ahal izango da portzentaje horretatik gorako zenbatekoa.

c) Nahitaezko eta borondatezko funtsekin konpentsatzen ez den zenbatekoa, berriz, bazkideei egotziko zaie. Zer eragiketa, zerbitzu edo jarduera egin duen bazkide bakoitzak kooperatibarekin, proportzio berean egotziko zaio zenbatekoa. Egindako zerbitzu edo eragiketa horiek, aldiz, bazkide bakoitzak gutxienez egin behar dituenak baino gutxiago badira, aipatutako galera horiek ere proportzionalki egotziko dira derrigorrez egin beharreko gutxieneko kooperatiba-jardueraren arabera.

Batzar orokorrak erabakita, era hauetakoren batean egotziko dira bazkide bakoitzari egotzi beharreko galera horiek:

i. Zuzenean, edo bazkideak sozietate-kapitalari egiten dizkion ekarpenetatik kenduta, edo, hala dagokionean, bazkideak kooperatiban egiten duen edozein finantza-inbertsionatik kenduta, baldin eta inbertsio horrek egozpen hori onartzen badu; betiere, galera sortu eta hurrengo ekitaldiaren barruan.

ii. Bazkideak hurrengo bost urteetan izan ahal dituen itzulkinen kontura. Konpentsatu gabeko galerarik geratzen bada, bazkideak konpentsatu beharko ditu, gehienez ere hilabeteko epean.

2. Galerak kontu berezi batera egotzi ahal izango dira etorkizuneko irabazien kontura amortizatzeko. Bost urtekoa izango da, gehienez ere, galerak horrela amortizatzeko epea. Epe hori igaro eta galerarik geratzen bada konpentsatu barik, artikuluko honetako 1. zenbakiko a), b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera konpentsatuko dira; azken kasuan, gehien jota hilabeteko epean.

3. Aurreko zenbakietan adierazitako epe horiek guztiak igaro eta galerarik geratzen bada konpentsatu gabe, ekarpen batzuk egin beharko dira, batzar orokorrak erabaki beharko dituenak. Nolanahi ere, bazkideari baja emango zaio, baldin eta haren ekarpenak estatutuaren ezarritako gutxiengora heltzen ez badira eta hark beste ekarpenik egiten ez badu. Hori guztia gorabehera, kooperatibak konkurtsoa bultzatu beharko du konkurtso-legearen arabera.

VII. KAPITULUA. Sozietatearen dokumentuak eta kontabilitatea

73. artikulua. Sozietatearen dokumentuak

1. Kooperatibek antolatuta eta eguneratuta izan beharko dituzte liburu hauek:

a) Bazkide-erregistroa.

b) Sozietate-kapitalari egiten zaizkion ekarpenen erregistroa.

c) Akta-liburua: batzar orokorrarena, artezkaritza-kontseiluarena eta, hala badagokio, zaintza-batzordearena, errekurso-batzordearena eta prestatze-biltzarrena.

d) Inbentario- eta balantze-liburua eta liburu egunkaria.

e) Lege-xedapenek eskatzen dituzten beste guztiak.

2. Liburuek eta kontu-erregistroek koadernatuta eta orrialdekatuta egon beharko dute, eta Kooperatiba Erregistroak gaitu beharko ditu erabiltzen hasi aurretik.

3. Era berean, balioa izango dute prozedura informatikoz egiten diren idazpenek eta idatzioharrek. Haiek, gero, bata bestearen atzetik koadernatuko dira nahitaezko liburuak osatzeko; liburu horiek, berriz, Kooperatiba Erregistroak legeztatuko ditu, ekitaldia itxi eta sei hilabeteko epean.

1. zenbakiko c) letran adierazten diren liburuak legeztatzen ez diren bitartean, akten kopia erkatua bidali beharko zaio Kooperatiben Erregistroari, aktok onartu, eta bi hilabeteko epean.

74. artikulua. Kontabilitatea

1. Kooperatibek kontabilitate txukuna eraman behar dute, nork bere jarduerari egokitua merkataritza-kodearen arabera; kontabilitate horrek, bestalde, errespetatu behar ditu kooperatibaren araubide ekonomikoaren berezitasunak.

2. Ekitaldia ixtean, kooperatibaren urteko kontuak egin beharko dira. Urteko kontuok, berriz, honako hauek jasoko dituzte: balantzea, irabazi-galeren kontua, memoria, ondare garbian izandako aldaketen egoera eta, hala badagokio, efektibo-fluxuen egoera.

Administratzaileek kudeaketa-txostena ere egin beharko dute, baldin eta, hurrengo artikuluaaren arabera, kooperatiba behartuta badago ekitaldiko kontuak auditatzera.

3. Kontuak onartu eta hilabeteko epean, administratzaileek urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte Kooperatiba Erregistroan gordailua egiteko; behar izanez gero, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreena ere aurkeztu beharko dituzte. Administratzaile guztiak sinatu beharko dituzte urteko kontu horiek eta kudeaketa-txostena; baten baten sinadura falta bada, espresuki adieraziko da zergatik.

75. artikulua. Kontu-auditoretza

1. Honako egoera hauek gertatzen direnean, kanpo-auditoretza baten menpe jarriko dira kooperatibetako urteko kontuak eta ekitaldiko kudeaketa txotenak, kontu-auditoretzari buruzko legean eta lege hori garatzen duten arauetan ezarritako moduan:

a) hala eskatzen dutenean aipatutako lege horrek edo hura garatzen duten arauak.

b) hala eskatzen duenean batzar orokorraren deialdia egiteko eskatzen den gutxieneko bazkide-kopuru berak; betiere, hori eskatzen dutenek aurre egiten badiete auditoretzak dakartzan gastuei. Dena den, gastuon zenbatekoak itzuliko dira funtseko akatsik edo irregulartasunik antzematen bada kontabilitatean.

c) estatutuek aurreikusten dutenean, edo hala erabakitzen duenean batzar orokorrak edo artezkaritza-kontseiluak edo zaintza-batzordeak .

2. Batzar orokorrak izendatuko ditu kontu-auditoreak. Hala ere, batzar orokorrak egokiro izendatzen ez baditu edo izendatutako pertsonak ezin badituzte beren funtzioak bete, administratzaileek izendatu beharko dituzte auditoreak, eta horren berri emango diote batzar orokorrari hark egiten duen lehenengo bilkuran.

76. artikulua. Legelari aholkularia

1. Administratzaileek erabakita, kooperatibek legelari aholkulari bat izendatu beharko dute, baldin eta urteko kontuak kanpo-auditoretza baten mende jarri behar badituzte kontu-auditoretzari buruzko legean ezarritakoaren ondorioz.

2. Legelari aholkulariak irizpen bat eman eta sinatuko du, non adieraziko baitu ea zuzenbidearen araberakoak diren ala ez batzar orokorrak edo artekaritza-kontseiluak hartutako erabakiak, Kooperatiba Erregistroan inskribatzekoak direnak.

Erabaki horien ziurtagirietan, berriz, jasota geratuko da akta-liburuan azaltzen direla legelari aholkulariaren irizpenaz emandako erabaki horiek.

3. Zabarkeria profesionalik izanez gero, legelari aholkulariak arlo zibiletik erantzun beharko du kooperatibaren aurrean, haren bazkideen aurrean eta hirugarrenen aurrean.

4. Legelari aholkulari funtzioa betez gero, ezin izango da izan ez zuzendari kudeatzaile, ez administratzaile edo errekurso-batzordeko kide, ezta zaintza-batzordeko kide ere.

5. Kooperatibaren eta legelari aholkulariaren arteko harremanak hainbat modutakoak izan daitezke: zerbitzu-errentamendukoak (langile profesional gisa edo lan-kontratudun gisa) edo sozietate-harremanak (kooperatibako bazkide langile gisa edo lan-bazkide gisa).

Abokaturik izanez gero, zerbitzu hori kooperatiben batasunek edo federazioek eta beste kooperatiba batzuek eman ahal izango dituzte, eta abokatuak izango dute irizpena emateko eta betearazteko erantzukizun profesionala. Abokatu horien eta aipaturiko erakundeen arteko harremanak ez badira profesional liberal gisa emandako zerbitzu-errentamendukoak, erakunde horiek arlo zibiletik erantzungo dute, abokatuarekin batera, legelari aholkulari kargua betetzean kooperatibari sortutako kalteengatik.

VIII. KAPITULUA. ESTATUTUA SOZIALAK ALDATZEA

77. artikulua. Estatutuak aldatzea

1. Batzar orokorrak erabakiko ditu sozietatearen estatutuetan egiten diren aldaketa guztiak; horretarako, baina, honako baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Proposamenaren egileek txosten idatzi bat aurkeztea, adieraziko duena zergatik egin behar diren aldaketak.

b) Deialdian, argi eta garbi adieraztea zer puntu aldatu behar diren.

c) Deialdian, espresuki azaltzea bazkide guztiek eskubidea dutela: batetik, sozietatearen egoitzan aztertzeko proposaturiko aldaketaren testu osoa eta hura justifikatzen duen azalpen-txostena, eta, bestetik, dokumentu horiek eskatzeko edo etxean dohainik jasotzeko.

2. Eskritura publikoan idatziko da aipaturiko erabaki hori, eta Kooperatiba Erregistroan jasoko.

3. Horrez gain, sozietatearen izena, egoitza edo helburua aldatzea erabakitzen bada, sozietatearen egoitza zer lurralde historikotan dagoen, lurralde historiko horretan zabalkunde handia duen egunkari batean iragarriko da proposamena inskribatu baino lehen.

4. Kooperatiba-mota edo haren sozietate-helburua nabarmenki aldatzeko proposamena egiten bada, bazkideek kooperatibatik alde egiteko eskubidea izango dute, baldin eta proposamenaren kontrako botoa ematen badute, edo, batzarrera joan ez arren, administratzaileei idazki bidez zuzentzen badiete beren desadostasuna, erabakia Kooperatiba Erregistroan inskribatu, eta berrogei eguneko epean. Horrelakoetan, arrazoituztat joko da baja.

78. artikulua. Sozietatearen egoitza aldatzea

Estatutuek besterik erabakitzen ez badute, ez da batzar orokorraren erabakirik beharko udalerrri berean sozietate-egoitzaz aldatzeko. Administratzaileek berek erabaki dezakete hori; eskritura publikoan jaso beharko dute, eta, gero, eskritura publiko hori Kooperatiba Erregistroan jaso.

IX. KAPITULUA. Kooperatibek bat egitea eta haiek zatitzea

79. artikulua. Kooperatibek bat egiteko moduak eta bat egitearen ondorioak

1. Kooperatibek bat egin ahal izango dute, dela kooperatiba batzuk batu eta beste berri bat sortuta, dela eraturik dagoen kooperatiba batek beste bat edo batzuk irentsita.

2. Kooperatibak desegino dira beste bat sortzeko edo beste kooperatiba batzuek irents ditzaten, baina ez dira likidatuko; haien sozietate-ondareak osorik eskualdatuko dira, eta kooperatiba berria edo irenslea jabetuko da azkentzen den kooperatibaren eskubide eta betebeharez. Era berean, kooperatiba berrian edo irenslean sartuko dira bat egitearen ondorioz desagindako kooperatibetako bazkideak.

3. Kooperatiba berria edo kooperatiba irenslea jabetuko da bat-egitearen ondorioz azkentzen diren kooperatiben nahitaezko funts guztiez.

80. artikulua. Bat egiteko proiektua

1. Bat-egitean parte hartzen duten administratzaileek kooperatibak bat-egiteari buruzko proiektu bat idatzi beharko dute, eta aurretiazko hitzarmen gisa sinatu.

2. Bat egiteko proiektuak honako xehetasun hauek jasoko ditu gutxienez:

a) Zein den bat-egitearen proiektuan parte hartzen duten kooperatiben izena, mota eta egoitza, eta, halakorik erabakita badago, kooperatiba sortu berriaren izena, mota eta egoitza; Kooperatiba Erregistroko inskripzio-datuak ere inskribatu beharko dira.

b) Zer sistema erabiliko den zehazteko ea zer partaidetza-zati dagokion azkentzen diren kooperatibetako bazkide bakoitzari, kooperatiba-kapitalari egindako ekarpen modura, kooperatiba berrian edo irenslean; horretarako, kontuan hartuko dira borondatezko erreserba banagarriak, halakorik badago.

c) Zer eskubide eta betebehar onartzen zaizkien desagindako kooperatibako bazkideei kooperatiba berrian edo kooperatiba irenslean.

d) Kooperatiba berriak edo kooperatiba irensleak zer egunetatik aurrera joko dituen egintzat, kontabilitate-ondorioetarako, desagindako kooperatiben eragiketak.

e) Zer eskubide izango dituzten desagindako kooperatiben partaidetza berezien titularrek edota partaidetza-tituluen eta antzeko beste titulu batzuen jabeek kooperatiba berrian edo kooperatiba irenslean.

3. Behin bat-egiteari buruzko proiektua onartu eta gero, bat egiten duten kooperatiben administratzaileek ez dute eragozpenik jarriko proiektua onartzeko edo azkendutako kooperatibetako bazkideek kooperatiba berrian edo irenslean duten partaidetza-zatia nabarmen aldatzeko; beraz, ez dute horren kontrako egintzarik gauzatuko, eta ez dute horren kontrako kontraturik sinatuko.

4. Proiektua bertan behera geratuko da, baldin eta hura onartu eta sei hilabetera onartzen ez badute prozesuan parte hartzen duten kooperatiba guztiek.

81. artikulua. Bat-egiteari buruzko informazioa

Bat-egitea onartu behar duen batzar orokorreko deialdia egitean, honako dokumentu hauek jarri beharko dira bazkideen eskura sozietatearen egoitzan:

- a) Bat-egitearen proiektua.
- b) Bat-egitearen onurak eta ondorioak azaltzen dituzten txostenak, kooperatiba bakoitzaren administratzaileek idatziak.
- c) Bat-egitean parte hartzen duten kooperatiben urteko kontuak, azken hiru ekitaldietakoak, eta, hala dagokionean, kudeaketa-txostenak eta kontu-auditoreenak.
- d) Kooperatiba bakoitzaren bat-egitearen balantzea, onartu den azken urteko balantzeaz bestelakoa baldin bada balantze hori. Azken urtean onartutako balantzea jo ahal izango da bategite-balantzetzat, baldin eta bat egiteari buruzko erabakia hartzeko batzarra egin aurreko sei hilabeteren barruan itxi bada.
- e) Kooperatiba berriaren estatutu-proiektua edo kooperatiba irensearen estatutuetan sartu beharreko aldaketak jasotzen dituen testu osoa.
- f) Bat-egitean parte hartzen duten kooperatiba guztietan indarrean dauden estatutuak.
- g) Bat-egitean parte hartzen duten sozietateetako administratzaileak pertsona fisikoak badira, zein diren haien izen-abizenak eta adina; pertsona juridikoak izanez gero, berriz, zein den administratzaileen nazionalitatea eta egoitza, eta zer egunetatik aurrera betetzen duten kargua. Beste administratzaile batzuk proposatzen badira bat-egitearen ostean administratzaile izateko, administratzaileei buruz adierazitako datu berberak.

82. artikulua. Bat egiteko erabakia

1. Bat-egitean parte hartzen duten kooperatiba guztietako batzar orokorrek hartu beharko dute bat-egiteari buruzko erabakia, bat-egiteari buruzko proiektuarekin bat etorriz.
2. Estatutuak aldatzeko legeetan eta estatutuetan bertan ezarrita dauden arauak aintzat harturik, batzar orokorra egiteko deialdian azaldu beharko da bat-egitearen proiektuari gordailua eman zaiola Kooperatiba Erregistroan; bestalde, deialdi horretan jaso beharko da bazkide guztiek eskubidea dutela sozietatearen egoitzan aztertzeko aurreko artikuluan adierazitako dokumentu guztiak eta dokumentu horien testu osoa eman edo doan helaraz diezaieten.
3. 37. artikuluko 2. puntuan aurreikusitako gehiengoak onartu beharko du bat-egitearen erabakia, eta erabaki horrek ezin izango du aldatu lehendik hitzartuta dagoen bat-egitearen proiektua.
4. Bat-egitearen erabakian, kooperatiba berri bat eratzeko legez eskatzen diren xehetasunak ere jaso beharko dira. Kooperatiba irensearen kasuan, berriz, bat-egiteari buruzko erabakian jaso beharko da zer

aldaketa egin behar diren estatutuak onartzeko.

5. Prozesu horretan parte hartzen duten kooperatibetako batzar orokorrek proiektua onartuz gero, kooperatiba horiek behartuta egongo dira bat egiteko prozedurarekin jarraitzeko.

6. Behin kooperatibek bat egiteko erabakia hartu eta gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da erabaki hori; era berean, zabalkunde handiko bi egunkaritan ere argitaratu beharko da: zer lurralde historikotan dauden bat-egitean parte hartzen duten kooperatiba guztien sozietate-egoitzak, lurralde historiko horietan zabalkunde handia duten bi egunkaritan.

83. artikulua. Bazkidearen eskubidea kooperatiba uzteko

1. Bat-egitean parte hartzen duten kooperatibetako bazkide guztiak eskubidea izango dute kooperatiba uzteko, baldin eta bat-egitearen kontrako botoa ematen badute, edo, batzarrera joan ez arren, bat-egitearen kontra azaltzen badira eta desadostasun horren berri ematen badiete administratzaileei idazki bidez, bat-egiteari buruzko azken iragarkia argitaratu eta berrogei eguneko epean.

2. Eskubide hori baliatuz gero, arrazoituztat joko da bazkidearen baja. Bat-egitearen ondorioz kooperatiba azkentzen bada, kooperatiba berriaren edo irensearen betebeharra izango da bazkideei ekarpenak itzultzea.

84. artikulua. Hartzekodunen aurkajartze-eskubidea

1. 82. artikuluko 6 zenbakian aurreikusitako iragarkiak jarri eta sei hilabete igaro beharko dira kooperatibek bat egiteko. Epealdi horretan zehar, bat-egitean parte hartzen duten kooperatibetako baten hartzekodunek idatziz azaltzen badira bat-egitearen kontra, kooperatibak ezingo dira batu harik eta erabat likidatu arte hartzekodun horiekin dituzten kredituak, edo zorrak dituen sozietateak edo bat-egitearen ondorioz sortzen den kooperatibak nahikoa berme eskaini arte.

2. Hartzekodunek, bestalde, onartu beharko dute ordain dakiela, nahiz eta epeak igarota ez egon.

3. Bat-egiteari buruzko erabakiaren iragarkian, espresuki aipatu beharko da hartzekodunek aurkajartze-eskubide hori dutela.

85. artikulua. Bat-egitearen eskritura eta hura inskribatzea

1. Eskritura publiko bakar batean eratuko dira bat-egiteari buruzko erabakiak, eta eskritura horretan azalduko dira: batetik, bat-egitearen erabakia, batzen diren kooperatiben batzar orokorrek hartzen dutena, eta, bestetik, azkentzen diren kooperatiben bat-egitearen balantzeak.

2. Kooperatibek bat egitearen ondorioz kooperatiba berri bat eratuz gero, legez eratzeko eskatzen diren xehetasunak ere jaso beharko dira eskrituran. Kooperatiba batek beste bat irentsiz gero, kooperatiba

irensleak zer aldatzen duen estatutuetan, aldaketa horiek jaso beharko dituzte eskriturek.

3. Bat-egiteak indarra izan dezan, ezinbestekoa izango da kooperatiba berria inskribatzea, edo, irenste-prozesu bat izan bada, kooperatiba irenste dela inskribatzea. Bat egitearen edo irenstearen ondorioz sortzen den eratze-eskitura Kooperatiba Erregistroan inskribatu eta gero deuseztatuko dira azkentzen diren kooperatiben erregistro-idazpenak.

86. artikulua. Kooperatibek bat egiteko modalitate bereziak

1. Lege-aginduren batek espresuki debekatu ezean, kooperatibek bat egin ahal izango dute sozietate zibilekin, merkataritza-sozietateekin edo bestelako erakundeekin; kooperatibak erakunde edo sozietate horiek irenste ahal izango ditu, edo sozietate berri bat eratu ahal izango da. Bestelako erakunde batek kooperatiba bat irensteko eta harekin bat egiteko, berriz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren homologazioa beharko da.

Horrelako bat-egiteetan, bat egiten duten sozietateen arauak aplikatu beharko dira.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa beteko da nekazaritzako elikagaien kooperatibek eta nekazaritzako elikagaien transformazio-kooperatibek bat egiteko.

87. artikulua. Kooperatiba zatitzea

1. Honako bide hauek erabilia zatitu daitezke kooperatibak:

a) Azkenduta, aurretik ezer likidatu gabe. Ondarea bi zatitan edo gehiagotan bereiziko da, eta osorik bideratuko da kooperatiba eratu berri batera edo batzuetara edo lehenagotik eratuta zegoen beste batera edo batzuetara. Bazkideak ere kooperatiba horien artean banatuko dira, eta kooperatiba horiei adskribatuko zaizkie.

b) Kooperatibako bazkideak eta ondarearen zati bat edo batzuk bananduta, baina kooperatiba bera azkendu gabe, eta berri den edo lehenagotik eratuta zegoen beste kooperatiba batera edo batzuetara adskribatuta bazkideak.

2. Kooperatiben administratzaileek zatitze-proiektu bat hitzartuta. Proiektu horrek proposamen bat jaso beharko du zehazteko zein ondare-zati eta zenbat bazkide igorriko diren kooperatiba irensteetara edo prozesu horren ondorioz sortzen diren kooperatibetara.

3. Kooperatiba zatitzearen ondorioz kooperatiba onuradun batek bereganatzen duen betebeharren bat bete ezean, gainerako kooperatibek solidarioki bereganatu beharko dute betebeharrak hori harik eta zatitzerakoan bakoitzari egozten zaion aktibo garbiko diru-kopurura iritsi arte. Zatitzearen ondorioz bereizitako sozietateak bere nortasuna galtzen ez badu, zatitutako sozietateak berak izango du betebeharrak guztiaren erantzukizuna.

4. Kooperatibek bat egiteko aplikatzen diren arau berak aplikatuko dira haiek zatitzeko, salbu aurreko

zenbakietan azaltzen diren salbuespenak; kooperatibak zatitzeko prozeduran parte hartzen duten kooperatibetako bazkide eta hartzekodunek, bestalde, kooperatibek bat egitean izaten diren eskubide berak izango dituzte.

X. KAPITULUA. Kooperatibak eraldatzea

88. artikulua. Kooperatibak eraldatzea

1. Kooperatibak eraldatu, eta sozietate zibil edo merkataritza-sozietate bilaka daitezke, betiere ondorengo baldintza hauek betetzen badira:

a) Bakarrik jo ahal izango da eraldatzera enpresen premietarako sozietate-konponbiderik ez dagoenean kooperatibei buruzko sistema juridikoan; betiere, administratzaileen ustez eta –hala badagokio– kooperatibako zaintza-batzordearen eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren ustez konponbiderik ez dagoenean.

b) Batzar orokorraren erabakia beharko da, espresua eta aldekoa. Hori erabakitzeko, estatutuak aldatzeko dauden baldintza berak bete beharko dira.

c) Batzarraren erabaki hori, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta hedapen handiko bi egunkaritan ere bai: zer lurralde historikotan duen kooperatibak egoitza, lurralde historiko horretako bi egunkaritan.

d) Eraldaketaren eskritura publikoak, bere aldetik, hautatzen den sozietate-mota eratzeko legez eta arauz eskatzen diren xehetasun guztiak bilduko ditu, eta lege honetan ezarritako guztia errespetatu beharko du. Eskritura horri, behar izanez gero, aditu independenteek diruzkoa ez den sozietate-ondareari buruz egiten duten txostena erantsiko zaio, merkataritza-legeriak aurreikusten duena.

e) Eskritura publiko hori, lehenengo, Kooperatiba Erregistroan aurkeztu beharko da baja inskribatzeko; gero, hala badagokio, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistroan ere aurkeztu beharko da, erakundeak hartzen duen forma hartzen duela, haren lehenengo inskripzioa egiteko. Eskriturarekin batera, balantzea aurkeztu beharko da, eraldatzeko erabakia hartu zen egunaren bezperan itxi zena; bestela, azken ekitaldia amaitzerakoan itxitako balantzea, baldin eta azken ekitaldia itxi eta sei hilabete baino gehiago igaro ez badira, hura sozietatearen egoitzan aurkezten bada eta bazkideek aztertzeko moduan jartzen bada batzar orokorreko deialdia egiten den egun beretik aurrera.

f) Kooperatibaren eraldaketa ezingo da inskribatu harik Kooperatiba Erregistroan egiaztatu arte eraldatzen den kooperatibak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak sinatzen duten akordioa, lege honetako 97.2d puntua betetzeari buruzkoa.

Halaber, zerrenda batean jasoko da zein bazkide baliatu diren kooperatiba uzteko eskubideaz, zer kapital ordezkutzen duten bazkide horiek, eta zein den azken balantzea, administratzaileek egina eta eskritura egilesten den egunaren bezperan itxia.

2. Kooperatiba eraldatu arren, ez da aldatuko haren nortasun juridikoa: sozietate berriak nortasun

juridiko bera mantenduko du.

3. Bazkideek kooperatiba uzteko eskubidea izango dute, baldin eta batzarrean ezezko botoa ematen badute, edo, batzarrean azaldu ez arren, bat ez badatoz eta hori adierazten badiete administratzaileei idazki bidez, erabakiaren azken iragarkia argitaratu eta berrogei eguneko epean. Bazkide horiek eskubidea izango dute kapitalari egindako ekarpenak itzul dakizkien, eraldatze-erabakiaren egunetik estatutuek zehazten duten egunera bitartean edo batzarrak erabakitzen duen epean, baina 65. artikuluan aurreikusitako epea luzatu gabe. Legezko interesak ere jasoko dituzte atzeratutako diru-kopuruengatik.

4. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluan egiaztatu beharko da nahitaezko erreserba-funtsaren diru-kopuruaren eta borondatezko erreserba banaezinen diru-kopuruaren balio nominala, eraldatze-prozesuaren ondorioz sortzen den sozietatearen partaidetza-kontuen titulu gisa edo Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak onartutako beste ordainketa-modu gisa.

Estatutuetan aurreikusitako xedeetarako erabiliko da kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena; kooperatiba likidatuz gero, berriz, lege honen 97.2 a) artikuluan ezartzen den xederako.

5. Kooperatiba eraldatzea onartzerakoan, batzar orokorrak aukera izango du erakunde berri baten partaidetza ekonomiko bilakatzeko bazkide bakoitzak sozietate-kapitalari egindako ekarpenak, eta partaidetza hori bilakatu ahal izango da: edo bazkide bakoitzak kooperatiban jarri duen kapitalaren arabera, edo kooperatiban duen boto-eskubidearen arabera, edo bi irizpide horiek kontuan harturik.

89. artikulua. Kooperatiba bihurtzea

1. Lege-agindurik espresuki debekatu ezean, kooperatiba ez diren sozietate zibilak, merkataritza-sozietateak edo bestelako erakundeak eraldatu, eta lege honetan arautzen diren kooperatiba-motetako bat bihurtu ahal izango dira.

2. Batzar orokorrak erabakiko du kooperatiba eralda daitekeen ala ez; bestela, sozietatearen borondatea adierazten duen sistema baliokide bat, legeriak ezarritako gehiengo aldeko izanik. Eraldaturiko kooperatibaren nortasun juridikoak bere hartan jarraituko du, eta hala adieraziko da eskritura publikoan, non ezinbestez jasoko baitira kooperatiba bat eratzeko lege honetan eskatzen diren xehetasun guztiak.

3. Eraldaketaren eskritura publikoa inskribatzeko, merkataritza-erregistroan aurkeztuko da, eta, hala badagokio, diruzkoa ez den sozietate-ondareari buruz aditu independenteek egindako txostena erantsiko baitzaio. Eskritura hori, hala badagokio, bidezko diren beste erregistro guztietan ere aurkeztuko da; nolana ere, beti aurkeztu beharko da Kooperatiba Erregistroan, eraldaketa-erabakiaren egunaren bezperan itxitako balantzearekin batera.

4. Kooperatiba bilakatzeak ez du aldatzen, hala ere, eraldatutako erakundeko bazkideek lehendik zuten erantzukizun-egoera, eraldatu aurretik sozietateak zituen zorren ondorioa dena; salbu hartzekodunek espresuki onartzen dutenean eraldaketa hori.

XI. KAPITULUA. Kooperatibak desegitea eta likidatzea

90. artikulua. Desegiteko arrazoiak

Hona zein diren kooperatibak desegiteko arrazoiak:

1. Estatutuetan finkatutako epemuga betetzea.
2. Sozietatearen helburua betetzea, edo argi eta garbi ikustea ezin dela hura bete.
3. Sozietatearen organoak geldirik edo jarduerarik gabe geratzea, edo, arrazoirik gabe, kooperatibajarduera etetea; kasu bietan, bi urtean gertatzea hori.
4. Kooperatiba eratzeko legez eskatzen den gutxienekotik behera murriztea bazkide-kopurua, baldin eta murrizketa horrek hamabi hilabete baino gehiago irauten badu.
5. Estatutuetan ezartzen den gutxienekotik behera murriztea sozietatearen kapitala, baldin eta hamabi hilabete edo gehiago irauten badu murrizketa horrek.
6. Kooperatibek bat egitea edo haiek erabat zatitzea.
7. Kooperatibaren likidazio-fasea irekitzea konkurtso-prozeduran.
8. Batzar orokorrak desegite-erabaki hori hartzea, betiere 37. artikuluko 2. zenbakian ezarritako gehiengoaren erabakiz.
9. Lege edo sozietate-estatutuetan ezarritako beste edozein arrazoi.

91. artikulua. Desegiteko arrazoen eraginkortasuna

1. Finkaturiko aldia amaitzeak erabateko ondorioak izango ditu, salbu batzar orokorrak espresuki luzatzen badu epe hori 37. artikuluko 2. zenbakiko gehiengoaren bidez, eta Kooperatiba Erregistroan inskribatzen bada epea luzatu dela. Epealdia luzatzea erabakitzen bada, horrek bide emango du: batetik, bazkidearen baja arrazoituzat jotzeko, baldin eta hark kooperatiba uztea erabakitzen badu, eta, bestetik, 77. artikuluan ezarritako moduan onar dakion bazkideari eskubide hori.

2. Bestelako arrazoren bategatik kooperatibak desegiteko, ezinbestekoa izango da batzar orokorraren erabakia, ohiko gehienaren bidez hartua; salbu aurreko artikuluko 6. eta 8. puntuetan aurreikusitako egoeretan. Halakoetan, administratzaileek batzar orokorreko deialdia egin beharko dute bi hilabeteren epean. Zaintza-batzordeak edo edozein bazkidek eskatu ahal izango die administratzaileei deialdia egin dezaten.

3. Administratzaileek eskatu beharko dute kooperatiba judzialki desegiteko, baldin eta batzar-deirik egiten ez bada, batzarrik egiten ez bada estatutuetan ezarritako epean, edo, batzarra egin arren, ezin bada desegiteko erabaki edo kooperatiba ez desegitea erabakitzen bada. Halakoetan, edozein

interesdunek ere eskatu ahal izango du kooperatiba judizialki desegiteko. Nolanahi ere, interesdunak izango dira: Eusko Jauriaritzan enplegu-eskumenak esleituta dituen saila, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua eta kooperatiben ordezkartzarik handiena duten federazioak.

4. Kooperatiba Erregistroan inskribatu beharko da desegiteko erabakia edo desegitea deklaratzeko duen ebazpen judiziala; era berean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, eta lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean ere bai: zein lurralde historikotan dagoen sozietatearen egoitza, lurralde historiko horretako egunkari batean argitaratuko da.

5. Desegindako kooperatiba, bestalde, berriro jarri ahal izango da jardunean, desegiteko arrazoia desagertzen baldin bada eta bazkideen ekarpenak itzultzen hasi ez bada.

Horretarako, beharrezkoa izango da batzar orokorraren erabakia, 37. artikuluko 2 zenbakian aurreikusitako gehiengoaren bitartez hartua. Erabaki horrek, hala ere, ez du ondorioz sortuko harik eta Kooperatiba Erregistroan inskribatu arte.

Konkurto-prozeduren kasuan, eta likidazio-fasea hasi ez bada, hitzarmen bat sinatu behar da hartzekodunekin kooperatiba berriro jartzeko jardunean.

92. artikulua. Likidazio-prozesua

1. Behin kooperatiba desegin ondoren, likidazioaldia irekiko da, bat-egiteetan edo erabateko zatitzeetan izan ezik. Kooperatibak bere nortasun juridikoa gordeko du; dena den, "likidazioaldian" hitza gehituko dio bere izenari tarte horretan.

2. Likidazioaldian, batzar orokorraren araubidearen gaineko lege- eta estatutu-arauak beteko dira. Likidatzaileek egingo dituzte batzar orokorraren deialdiak, eta batzarburu jardungo dute batzarretan; batzar horietan, berriz, adieraziko dute zelan doan likidazioa denon onerako erabakiak har daitezkeen.

93. artikulua. Likidatzaileak izendatzea

1. Batzar orokorrak likidatzaile bat edo gehiago hautatuko ditu kooperatibako bazkideen artean, baina beti kopuru bakoitietan. Arrazoi zuzena adieraziz, bazkideetako inork nahi ez badu nahi likidatzaile izan, kooperatibako bazkide ez diren pertsona fisiko edo juridikoen artean izendatu beharko da. Likidatzaileei ordaindu ahal izango zaie.

Izendapenak ez du ondorioz sortuko hirugarrenen aurrean Kooperatiba Erregistroan inskribatu arte.

2. Kooperatiba desegin, eta hiru hilabeteren buruan inork ez bada likidatzaile izendatzen eta inork ez bada izendapen hori onartzen, administratzaileek sozietatearen egoitzako merkataritza-arloko epaileari eskatu beharko diote likidatzaileak izendatzeko, eta hark kooperatibako bazkide ez diren pertsonak izendatu ahal izango ditu.

Era berean, edozein interesdunek ere egin ahal izango du eskaera hori, kontuan hartuta zer zehazten

den 91.3 artikuluan.

94. artikulua. Funtzioak eskualdatzea

Behin kooperatiba desegin eta gero, administratzaileek ordezkatzeko eta kudeatze-lanetan jarraituko dute, baina kalteak saihesteko baino ez, eta likidatzaileak izendatu bezain pronto utziko dute kargua; aurretik, dena den, kooperatibaren inbentarioa eta balantzea sinatu beharko dute likidatzaileekin batera, eta, balantze horretan, likidazio-egunaren erreferentzia egin.

Horrez gain, eta likidatzaileek argibiderik eskatzen badiete, administratzaileek xehetasun eta aurrekari guztien berri eman beharko diete likidazio-eragiketak egin ditzaten.

95. artikulua. Likidatzaileen funtzioak

1. Likidatzaile bat baino gehiago dagoenean, batzar orokorrak erabakiko zu zer araubide aplikatuko zaien.

2. Likidatzaileek ahalmena izango dute likidazio-eragiketa guztiak egiteko. Esleitzen zaizkien funtzioak betetzeko, kooperatiba ordezkatzeko dute epaiketari eta epaiketatik kanpo; bestalde, sozietateak behartuko dute hirugarrenen aurrean, kooperatibaren administrazio-organoa behartzen den moduan.

Bereziki, funtzio hauek izango dituzte:

- a) Aurreko artikuluan aipatzen diren inbentarioa eta hasierako balantzea sinatzea.
- b) Kooperatibaren liburu eta gutunak betetzea eta jagotea, eta ondareak osorik jarrai dezan zaintzea.
- c) Gauzatzeke dauden eragiketak bukatzea, eta kooperatiba likidatzeko egin beharreko zeregin guztiak egitea.
- d) Sozietatearen ondasunak besterentzea.
- e) Gauzatzeke dauden kredituak erreklamatzeko hirugarrenei edo bazkideei, eta kredituok jasotzea.
- f) Sozietatearen interesek hala eskatzen dutenean, transakzioak eta arbitrajeak hitzartzea.
- g) Hartzekodunei eta bazkideei ordaintzea eta kooperatibaren gerakinak eskualdatzea, 97. atalean ezarritakoaren arabera.

3.- Honako hiru kasu hauetan amaituko dira likidatzaileen funtzioak: likidazioa erabat burutzen denean, batzar orokorrak izendapena errebokatzen duenean, edo, botoen ehuneko hogeitaz ordezkatzeko duen bazkide-talde batek arrazoi zuzenengatik eskatuta, ebazpen judiziala ematen denean. Likidatzaileen erantzukizuna kudeatzaileena adinakoa izango da.

96. artikulua. Likidazioan esku-hartzea

1. Likidazio-eragiketak fiskalizatzeko, bazkideen hogeik sozietate-egoitzako lehen merkataritza-arloko epailariari eskatu ahal izango dio kontu-hartzaile bat edo gehiago izendatzeko.

2. Likidatzen den ondarea ugaria denean, bazkide asko dagoenean edo likidazioa garrantzitsua denean beste edozein arrazoiengatik, Eusko Jaurlaritzan enplegu-eskumena esleituta duen sailburuak, ofizioz edo interesdunen eskariz, pertsona bat edo gehiago izendatu ahal izango ditu likidazioan kontu hartzeko eta legeak nahiz sozietate-estatutuak betearazteko.

3. Likidatzaileen egintzek ez dute baliorik izango, baldin eta kontu-hartzaileek parte hartzen ez badute.

97. artikulua. Sozietatearen ondasunak esleitzea

1. Sozietatearen ondasunak ezingo dira esleitu sozietatearen zorrak erabat likidatu arte, zorrok kontsignatu arte edo muga-egunera iritsi ez diren kredituak ordaindu direla ziurtatu arte.

2. Zor horiek likidatu ondoren, honela esleituko dira sozietatearen gainerako ondasunak:

a) Kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.

b) Bazkideek sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak (hala badagokio, ekarpen eguneratuak): bazkideei itzuliko zaizkie. Lehenengo eta behin, borondatezko ekarpenak itzuliko zaizkie, eta nahitaezko ekarpenak gero.

c) Bazkideek borondatezko erreserba-funtsetan duten partaidetza: bazkideen artean banatuko da, hori egitea zilegi bada estatutuen arabera edo batzar orokorrak erabakitakoaren arabera, eta estatutuetan edo erabaki horretan ezarritako arauak beteta; halako araurik ez badago, bazkide bakoitzak azken bost urteetan kooperatibarekin egin dituen eragiketa, zerbitzu edo jardueren proportzio berean banatuko da, edo, bost urtetik beherako kooperatiben kasuan, haiek eratu zirenetik hasita.

d) Nahitaezko erreserba-funtsetik edo kooperatibaren ondasun likidotik geratzen dena: halakorik geratzen bada, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da, salbu bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibetarako 139. artikuluan xedatzen dena.

3. Harik eta 59.1.b artikuluan aurreikusitako ekarpenak itzuli arte, sozietatearen ondasunen esleipenean parte hartuko dute kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren ostean parte hartuko dute, eta, sozietate-estatutuek kontrakorik aurreikusi ezean, gainerako ekarpenak itzuli baino lehenago.

98. artikulua. Azken balantzea

1. Sozietatearen zor guztiak likidatu ondoren, likidatzaileek sozietatearen ondare-egoerari buruzko azken balantzea osatuko dute, eta sozietate-ondasunak banatzeko proiektua idatziko dute aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Azken balantzea eta sozietatearen ondasunak banatzeko proiektua batzar orokorrean aurkeztuko da onartzeko, zaintza-batzordeak txostena egin eta gero, edo, hala dagokionean, kontu-auditoreek eta -hartzailleek irizpena eman eta gero. Onarpen hori, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta sozietatearen egoitzako lurralde historikoan hedapen handia duen egunkari batean argitaratuko da, eta iragarkian jaso beharko da ezen erabaki horiei buruzko dokumentazioa sozietatearen egoitzan dagoela interesdunek eskura dezaten. Horrez gain, iragarki hori argitaratu, eta berrogei eguneko epea egongo da kaltetuta sentitzen diren bazkideek eta kredituak ordainduta edo bermatuta ikusi ez duten hartzekodunek erabakia aurkara dezaten batzar orokorrak horretarako ezarritako prozeduraren arabera. Ondoriozko aktiboa ezingo da banatu aurkaratzeko epea igaro arte edo erreklamazioak epai irmoz ebatzi arte. Hala ere, likidatzaileek ordainketak egin ahal izango dituzte sozietatearen ondasunen kontura, baldin eta, zenbatekoak direla eta, erreklamazioen emaitzen pentzutari ez badaude.

99. artikulua. Erregistro-ezereztea

Likidazioa amaitu eta sozietatearen ondasunak aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera banatu ostean, likidatzaileek Kooperatiba Erregistroari eskatuko diote kooperatibaren idazpenak ezerezteko; horretarako, eskritura aurkeztuko dute, zeinari azken balantzea eta likidazio-eragiketak erantsiko baitzaizkio. Kooperatibaren merkataritza-liburuak, korrespondentzia eta trafiko-ziurtagiriak, berriz, sei urtean gorde beharko dira, kooperatibaren idazpenak ezeztatzen diren egunetik aurrera.

100. artikulua. Kooperatibaren konkurtsoa

Kooperatibei konkurtso-legeria aplikatu beharko zaie, eta Kooperatiba Erregistroan inskribatu beharko dira erregistro-publizitateari buruz ematen diren ebazpen judizial guztiak.

II. TITULUA. Xedapen bereziak

IV. KAPITULUA. Kooperatiba-motak

I. ATALA. Arau erkideak

101. artikulua. Sailkapena eta aplikatu beharreko eta araudia

1. Kooperatibak eratzeko, oinarritzat hartu beharko dira kapitulu honetan arautzen diren kooperatiba-motak. Kooperatiba-mota horiek gorabehera, bestelako kooperatibak ere eratu ahal izango dira estatutubidez, baldin eta argi eta garbi zehazten bada zein den kooperatiba-jarduera eta kooperatiban parte hartu behar duten bazkideen jokabide juridikoa; hala eginez gero, zer erakunde-motaren antz handiagoa izan, erakunde-mota horiei legez aurreikusitako araudia aplikatuko zaie.

2. Hona zein den kooperatiba-mota edo tipo bakoitzari legez ezartzen zaizkien muga bakarra: ezin izango da dagokion motako bigarren mailako erakunderik eratu, baldin eta kooperatiba-kide gehienak pertsona fisikoak izan behar badira nahitaez.

3. Kooperatiba bakoitzak, bestalde, bete beharko ditu, bai lege honetan bere burua eratzeko ezartzen diren printzipioak, bai dagokion motari aplikatu beharreko xedapen bereziak; dagokion atalean aurreikusten ez den guztirako, berriz, arau orokorrak bete beharko ditu.

2. ATALA. Lan elkartuko kooperatibak

102. artikulua. Helburua eta arau orokorrak

1. Lan elkartuko kooperatibak dira: batez ere pertsona fisikoak elkartzen dituztenak lanaldi osoan edo partzialean edozein jarduera ekonomiko edo profesional egiteko, eta, jarduera horren ondorioz, elkarrekin ondasunak edo hirugarrenentzako zerbitzuak produzitzeko.

Bazkide langileek sozietate-harremanak izango dituzte kooperatibarekin.

2. Bazkide langile izateko, gai izan behar da nork bere lana legez kontratatzeko. Atzerritarrak ere bazkide langile izan daitezke, betiere Espainiako Estatuan lanean aritzeko berariazko legerian aurreikusitakoaren arabera.

3. Bazkide langile izateari utziz gero, ezin izango da kooperatiban lan egin.

4. Lan elkartuko kooperatiben helburua da: bazkideei enplegu bat ematea eta haiek lan egitea. Hala eta guztiz ere, bazkideek besteren konturako kontratuak ere egin ahal izango dituzte, baina kontratu horiek inoiz ezingo dute gainditu bazkide langileek urtean egiten dituzten orduen ehuneko hogeita hamarra. Enpresako premia objektiboak direla-eta, portzentaje hori gainditu ahal izango da, baina hiru hilabeteetan baino ez. Epe hori luzatzeko, egoera arrazoitu, eta baimena eskatu beharko zaio enplegu-arloko eskumena adskribatuta duen sailari. Sail horrek, berriz, hamabost eguneko epean ebatzi beharko du, eta baimena onartutzat joko da isiltasuna gertatzen bada.

Portzentaje horretan ez dira zenbatuko:

a) Mendeko lan-zentroetan edo ataletan urtean egindako orduak, edo zentro edo atal osagarrietan eginak.

Nolanahi ere, mendeko lan-zentroan edo lan-zentro osagarrian egindako lantzat joko da kooperatibek kontratatutako langileek besteren kontura eta epe mugatu batean egiten dutena bezeroen edo onuradunen lokaletan edota administrazio publikoarentzat. Halaber, era horretako lantzat joko dira kooperatibak obretan, muntaketa-lanetan edo jarduera laguntzaileetan egin behar dituen jarduerak; betiere, jarduera horiek ez badira kooperatibaren sozietate-helburu nagusia, eta, jarduerak berak hala eskatuta, kooperatibako lokaletatik kanpo egin behar badira, eta, horrez gain, kooperatibarekin duten erlazioa ez bada egonkorra eta iraupen mugagabekoa.

b) Legezko subrogazioaren ondorioz, kooperatibetan integratuta dauden besteren konturako langileek egiten duten lana, eta subrogazio horien menpe dauden jardueretan hasten diren langileek egiten dutena.

c) Bazkide langileen ordezkapenak egiten dituzten langileek egiten duten lana edo soldatapeko langileek egiten dutena eszedentzietan edo aldi baterako ezintasun-egoeretan edo amatasun-, adopzio-edo harrera-egoeretan edo familia eta lana uztartzeko.

d) Bazkide langile izateari esplizituki uko egiten dioten langileek egiten duten lana.

e) Enpresak aldi baterako laneko enpresa gisa jarduten duenean, erabiltzaileen esanetara jartzeko kontratatzen diren langileak.

f) Enplegu eta prestakuntza-programetan, prestakuntza, orientazio eta lan-bitartekaritzako kooperatibetako ikasleek egiten duten lana.

g) Praktika- eta prestakuntza-kontratuak dituzten langileak.

h) Desgaitasun fisikoak edo psikikoak dituzten pertsonak egiten duten lana; halakoetan, gutxienez % 33ko desgaitasuna izan behar dute onartuta. Salbu laneko zentro berezi modura onartu eta kalifikatu diren lan elkartuko kooperatibetan.

i) Kooperatibak administrazioarekin edo nagusiki administrazio publikoen partaidetza duten enprekin, partzuergoekin, fundazioekin eta gainerako erakundeekin duen kontratuaren ondorioz lanean hasten diren langileak.

Zenbaki honetan xedatutakoa gorabehera, zortzi bazkide langile baino gutxiago duten kooperatibek aukera izango dute gehienez ere bi langile enplegatzeke inoren konturako lan-kontratuaz.

5. Estatutuetan finkatu ahal izango da zer prozedura bete behar den soldatapeko langileak bazkide izatera iristeko. Epemugarik gabeko kontratua izan eta kooperatiban urtebete baino gehiagoko antzinasuna duen langileak ere bazkide langile modura onartu beharko dira, baldin eta artikulua honetan arautzen diren kooperatibek soldatapeko lanetarako ezarritako muga gainditzen badute; horrela sartzen diren bazkide langile berriok, bestalde, ez dute probaldirik egin beharko, baldin eta gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte eta hala eskatzen badute hurrengo hamabi hilabetetan, eskubide horretaz baliatzeko aukera dutenetik aurrera.

Aukera horretaz baliatu ezin diren artean, bazkide izateko aukerarik ez duten soldatapekoek ere parte hartu ahal izango dute kooperatibaren irabazietan –irabazirik badago–, baina estatutuetan definitzen den portzentajearen. Portzentaje hori, berriz, inoiz ez da izango lanbide-maila bereko edo antzeko bazkideei onartutako kooperatiba-itzulikinaren ehuneko hogeita bosta baino txikiagoa. Soldatapeko langilea baja denean, parte-hartze hori kalkulatzeko, oinarritzat hartuko dira batzar orokorrak onartutako azken kontuak. Lege honetako 69.5 artikuluan adierazten da nola hartuko den parte irabazietan.

6. Lan egiteagatik, bazkide langileek eskubidea izango dute aldian-aldian –hilabetetik beherako aldietan–lan-aurrerakinak jasotzeko, zeinak ez baitira lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak izango, urteko zenbatekotan.

7. Kooperatiba-mota hauen lan-zentroek eta haien bazkideek lan-arriskuen prebentzioari eta laneko segurtasunari eta higienari buruzko arau orokorrak bete beharko dituzte.

Halaber, lan-arloko legeriak ezarrita, hamazortzi urte beteta ez duten bazkide langileek mugak izango dituzte gaueko lanak egiteko edota lan osasungaitz, nekagarri, kaltegarri edo arriskutsuak egiteko.

8. Gizarte Segurantzari dagokionez, besteren konturako langileen edo autonomoen sailean sartuko dira bazkide langileak. Estatutuek aukeratuko dute zein araubidekoak izango diren.

Lan elkartuko kooperatibek estatutuetan erabakitzen badute bazkide langileak bere egitea kasuan kasuko araubide bereziko langile autonomo gisa Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginak –ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, beren gain hartuko dute, bazkideak kooperatibetan eta zerbitzaldian dauden bitartean, haien kuotak eta betebeharrak ordaintzeko betebeharra; betiere, horrela jasota badaukate estatutuetan. Hala ere, hori ez da eragozpen izango Gizarte Segurantzari dagokion araubidea ezartzeko. Ordaindutako zenbatekoak ez dira aurrerakinaren parte izango, eta partida kengarritzat joko dira legearen 67. artikuluan definitutako soberakin garbia zehazteko orduan.

9. Kooperatiben uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 86.2 artikulua arabera, lan elkartuko kooperatiba batek bertan behera uzten badu zerbitzu-kontrata edo administrazio-emakida bat berari egoztekoak ez diren arrazoengatik eta beste enpresaburu bat egiten bada haren kargu, kontrata edo emakida horretan lanean diharduten bazkide langileen eskubideak izango dira: indarrean den araudiaren arabera, besteren konturako langileek kooperatiban dituzten eskubide berak.

Aurreko paragrafoan azaltzen den egoeran dauden langileak lehentasun-eskubidea izango dute, bost urtean, jatorrizko kooperatibara itzultzeko, baldin eta lanpostu berririk sortzen bada eta lanpostu berriak haien lanpostuak zuen eduki bera edo antzekoa badu.

103. artikulua. Probaldia

1. Estatutuek probaldia ezar dezakete langile bat bazkide gisa hartzeko baldintza modura.

Probaldi hori ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Hala eta guztiz ere, probaldia hamazortzi hilabetera arte luza daiteke, baldin eta lanpostu horiek lanbide-eskakizun bereziak badituzte eta administratzaileek zehaztu behar badute zein diren eskakizun horiek (salbu estatutuetan batzar orokorrari ematen zaionean espresuki ahalen hori). Dena dela, lanpostu horiek ezingo dira izan kooperatibako lanpostu guztien ehuneko hogeitahi baino gehiago.

2. Probaldian, bazkide langilegaiek bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte, baina berezitasun hauekin:

a) Nork bere kabuz erabaki ahal izango dute lan-harremanak eten ala ez. Kooperatibako administratzaileek ere ahalmen bera izango dute.

b) Ezin izango dira hautagai izan sozietatearen organoetako karguak betetzeko.

c) Ez dute ez betebeharririk ez ahalmenik izango sozietatearen kapitalari ekarpenik egiteko, ezta sarrera-kuota ordaintzeko ere.

d) Ez diete eragingo probaldian zehar kooperatibak izan ditzakeen galerak, eta ez dute eskubiderik izango kooperatiba-itzulkinak jasotzeko; dena den, eskubidea izango dute irabazien portzentaje bat kobratzeko, soldatapekoei onartzen zaiena bezalakoa.

104. artikulua. Lan-araubidea

1. Estatutuek edo barne-araubideko erregelamenduak ezarriko dute zein den bazkide langileen lan-araubideko oinarritzko esparrua; estatuturik edo erregelamendurik ez badago, batzar orokorrak ezarriko du oinarritzko esparru hori.

2. Besteak beste, honako gai hauek arautu daitezke araubide horretarako: lanaren antolaketa, lanaldiak, asteko atsedena, jaiegunak, oporrak, baimenak, lanpostuen sailkapena, mugigarritasun funtzionala, lan-utzialdiak, kooperatibako lanarekiko harremanak eten edo azkentzeko arrazoiak eta, oro har, bazkide langileak egiten duen lanarekin zerikusia duten eskubide nahiz betebeharreri buruzko gaiak.

105. artikulua. Diziplina-araubidea

1. Estatutuek, barne-araubideko erregelamenduak edo, halakorik ezean, batzar orokorrak finkatuko dute zein den bazkide langileen diziplina-araubidearen oinarritzko esparrua.

2. Diziplina-araubideak arautuko du zer arau-hauste egin daitezkeen lanean, zein diren zehapenak, zer pertsona edo organok duten delegatuta zehatzeko ahalmena, eta zein den zehatze-prozedura – izapideak, errekurtsioak eta epeak–; nolana ere, lege honetako 28.1 artikuluan oro har arautzen diren defentsa-bermeak errespetatuko dira zehatze-prozeduran.

3. Administrazioaileek baino ezingo dute erabaki bazkide langileak kanporatzea; erabaki horren kontra, berriz, langileek errekurtsioa jarri ahal izango diote errekurtsio-batzorderi edo –halakorik ez badago– batzar orokorrari hamabost eguneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera. Kanporatzeko erabaki horrek ez du indarririk izango dagokion organoak berretsi artean edo errekurtsioa aurkezteko epea amaitu artean; hala ere, kooperatibak enplegurik gabe utzi ahal izango du behin-behinean bazkide langilea, eta hark eskubidea izango du dagozkion lan-aurrerakinak jasotzeko lanean jarraituko balu bezala.

106. artikulua. Ekonomia, teknika, antolaketa edo produkzioako arrazoiaren ondorioz edo ezinbesteko arrazoiaren ondorioz kontratua etetea edo nahitaezko baja ematea.

1. Ekonomia, teknologia edo ezinbesteko arrazoiak direla-eta edo ezinbestez, lan elkartuko

kooperatibek lan egiteko betebeharra eta eskubidea kendu ahal izango diote bazkide langileari aldi baterako; aldi horretan, bestalde, bazkide langileak lanarekin batera doazen diru-eskubide zein betebeharrak galduko ditu, baina bazkide izateagatik dagozkion gainerako eskubideak eta betebeharrak gorde.

Horretarako, batzar orokorrak deklaratu beharko du ezen, adierazitako arrazoi horietakoren bat dela eta, lanik gabe geratuko direla kooperatibako bazkide langile guztiak edo haietako batzuk, eta zenbat denboran geratuko diren lanik gabe; era berean, zehatz-mehatz adierazi beharko du zein diren egoera horretan geratzen diren bazkide langileak eta zergatik.

Lanik gabe uzteko arrazoiak desagertzen direnean, bazkide langileak bere eskubide eta betebeharrak guztiak berreskuratuko ditu.

2. Ekonomia, teknika, antolaketa, produkzio edo ezinbesteko arrazoi larritasuna dela eta, behin betiko murriztu behar bada lanpostu-kopuru orokorra edo lanbide-kolektibo edo -talde jakin batzuen lanpostu-kopuru orokorra, batzar orokorrak erabaki beharko du zenbat bazkideri eman behar zaion baja kooperatiban, eta nor diren bazkide horiek. Kasu horietan, nahitaezkozkat eta arrazoituztat joko da baja, eta kooperatiba uzten duten bazkideek eskubidea izango dute berehala itzul diezazkieten sozietate-kapitalari egin dizkieten ekarpenak; baja izan eta hurrengo bi urteetan, berriz, lehentasun-eskubidea dute kooperatibara itzultzeko, baldin eta betetzen zuten lanpostuaren antzeko beste lanposturik sortzen bada.

Kooperatiba uzten duten bazkideak 59.1.b) artikuluan aurreikusitako ekarpenen titularrak badira eta kooperatibak ez badu erabakitzen ekarpen horiek berehala itzultzea, kooperatiban segitzen duten bazkide guztiak berehala eskuratu beharko dituzte ekarpen horiek, batzar orokorrak erabakitzen duen moduan.

107. artikulua. Auziak

Lan-arloko organo judizialek ebatziko dituzte lan elkartuko kooperatiben eta haien bazkide langileen artean sustatzen diren auziak, kooperatibako bazkide izatearren sortzen badira. Ondorioz, merkataritza-arloko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe geratuko dira auziak, baldin eta zerikusirik ez badute bazkide-langile lotura berezi horrekin, hau da, beste edozein kooperatibaren eta haren bazkideen arteko auzien modukoak badira.

Ondorio horietarako, honako gai hauek baino ez dute zerikusia lankide-kooperatibaren eta haren bazkide langileen arteko harremanekin: lan-aurrerakinak edo haien prestazio osagarriak edo ordezkioak jasotzea, halakorik eska daitekeen neurrian; sozietate eta lanari buruzko diziplina-arauak hausteagatik ezarritako zehapenen aurkako errekursoak, arrazoi berberagatik jarritako kanporatze-zehapenen aurkako errekursoa barne; lanetik kentzea eta lan-utzialdiak; Gizarte Segurantzari buruzko gaiak; soldatapeko langilea izatetik bazkide langile izatera pasatzea, eta, oro har, kooperatibako lanaren araubidearen barne-arauetan jatorria duten eskubide eta betebeharrak.

Edonola ere, halako auzigaiak ebazterakoan, lege hau ezarriko da lehenengo eta behin; gero, kooperatibaren estatutuak eta gainerako barne-erabakiak eta, oro har, kooperatibagintzaren printzipioak. Halakorik ez badago, lanari buruzko legeria erabiliko da analogiaz.

3. ATALA Kontsumo-kooperatibak

108. artikulua. Helburua eta gizarte-funtzioa

1. Kontsumo-kooperatiben helburua da: ondasun nahiz zerbitzuak eskaintzea bazkideei eta haiekin bizi direnei, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen bidezko eskubide eta interesak defendatzea eta sustatzea. Era honetako kooperatiben bazkide izan daitezke: pertsona fisikoak eta azkenengo hartzaile diren erakundeak edo organizazioak.

2. Estatutuek onartzen badute, kontsumo-kooperatibek bazkide ez diren pertsona edo erakundeei ere ekaini ahal izango dizkiete ondasun edo zerbitzuak, bere lurralde-eremuan.

4. ATALA. Irakaskuntza-kooperatibak

109. artikulua. Helburua eta motak

1. Irakaskuntza-kooperatiba dira: irakaslanak egiten dituztenak jakintza edo prestakuntzako edozein adarretan, edozein mailatan, etapatan, ziklotan, gradutan eta motatan. Eskolaz kanpoko ekintzak eta haiekin zerikusia dutenak ere egin ditzakete; era berean, eskola-zerbitzu osagarriak eman ditzakete, eta irakaslanak errazten dituzten zerbitzu guztiak.

2. Ikasleak, haien gurasoak edota haien legezko ordezkariak biltzen dituztenean, lege honetan kontsumo-kooperatibetarako ezarritako arauak ez ezik, 35.2 artikulua ere aplikatu beharko zaie. Irakasleak eta ikastetxeko gainerako langileak ere sartu ahal izango dira kooperatiban, bai lan-bazkide modura, bai bazkide laguntzaile modura; beste interesdun batzuen artean, ikasle ohiak ere izan ahal izango dira bazkide laguntzaile.

3. Irakaskuntza-kooperatibak irakasleak, irakasle ez diren langileak eta zerbitzu-langileak biltzen dituztenean, 35.2 artikuluan bildutakoa ez ezik, lege honetan lan elkartuko kooperatibetarako ezarritako arauak ere aplikatuko zaizkie, eta, besteak beste, ikasleak, haien gurasoak edo legezko ordezkariak eta ikasle-ohiak ere izan ahal izango dira bazkide laguntzaile.

4. Estatutuetan aurreikusiz gero, integrala edo sektoreartekoa izan ahal izango da irakaskuntza-kooperatiba; horretarako, batetik, gutxienez irakasle eta irakasle ez diren langile gehienak bildu behar dira, eta, bestetik, ikasle gehienak edo haien ordezkari gehienak; bestela, halako gehiengoetara iritsi gabe, mota horretako kooperatiba bat eratzeko estatutuetan eskatzen den bazkide-kopurura heldu beharko da talde bi horietako kideekin.

110. artikulua. Irakaskuntza-kooperatiba integralen berezitasunak

1. Aurreko artikuluko 4. puntuan aipatzen diren kooperatibei dagokienez, 35.2 artikuluan jasotakoa ez ezik, honako hau ezar daiteke estatutuetan:

a) Probaldiak jartzea kooperatiba osatzen duten bi taldeetako bazkideei; gehienez ere, ikasturte osoak izango dira probaldiok.

b) Aurreikustea kooperatibako organo sozial guztiek gehiengo indartuz funtzionatuko dutela, organo bakoitza eratzeko behar den quorumaren hiru laurdenak gainditu gabe.

c) Oro har finkatzea, erabakiak hartzeko aurreikusten den gehiengo indartua lortzen ez den kasuetarako edo horrek ardurara ez duen kasuetarako, zenbat izango diren gehienez ere kontseilariak eta zenbat boto esleitu ahal izango zaizkion batzar orokorrean bazkide erabiltzaileen taldeari lan-bazkideekin gorde beharreko oreka gal ez dadin.

d) Batzarretara joateko eta haietan hitz egiteko eskubideak arautzea, oreka zaintzeko neurriak jarrita edo jarri gabe; aurretik, bazkide erabiltzaileek biltzar berezi bat edo gehiago egin ditzakete hurrengo batzar orokorrean edo ondorengoetan izango dituzten ordezkariak hautatzeko; estatutuetan zehaztuko da zein epetan egin ahal izango diren batzar horiek.

e) Kide anitzeko organoetako lehendakariak txandakatzeko sistema bat aurreikustea; hala, kooperatiba osatzen duten bi taldeetako bazkideek aukera izango dute iraupen bereberko aldietan txandakatzeko kide anitzeko organo guztietako lehendakaritzetan.

f) Batzorde erabakitzaile bat antolatzea, osaera parekidea izango duena eta adituek parte hartzea onartuko duena, organoetan batzuetan gertatzen diren berdinketak ebazteko; horretarako, batzorde horri delegatu ahal izango zaio dagokion organoak adostu ezin dituen gaiak erabakitzeko ahalmena, berdin delarik zein den gaiaren edukia.

2. Estatutuek aukera ematen badute, gaiak aukeratuta edo denak batera bidali ahal izango dira batzorde horretara. Era berean, estatutuek arau berezi batzuk ezarri ahal izango dituzte bazkide laguntzaileek behar bezala parte har dezaten.

3. Dena delako kooperatiba hori berriro bideratzeko aurreko artikuluko 2. eta 3. zenbakietan araututako kooperatiba-motaren batera –sozietatea zatituta edo zatitu gabe–, estatutuetan ezarri ahal izango da zein jarraibide edo oinarrizko irizpide segitu behar diren erabakiak hartzeko bazkide-talde bat sistematikoki eta nabarmenki jartzen denean beste baten gaineratik –sozietatearen organoak geldiarazten dituztelako edo organo horiei eragozpen handiak jartzen dizkietelako behin eta berriro– edo behar bezala oinarritutako beste arrazoi batzuk gertatzen direnean.

111. artikulua. Izaera edo onura publikoko bazkideak

1. Kooperatibetan, bazkide laguntzaile modura onartu ahal izango dira erakunde publikoak eta onura publikoko erakunde pribatuak, ongintzakoak barne; horrez gain, bazkide erabiltzaile ere izan ahal izango dira aldi berean, baldin eta ikasle adingabeak edo ezinduak zaintzen badituzte edo legez babesten badituzte, edo adinez nagusiak diren ikasleak ordezkatzan badituzte, arestian aipaturiko erakundeen mendeko etxe, egoitza edo establezimenduetan hartu dituztelako eta haiek espresuki eman dietelako beren ordezkaritza.

Estatutuetan, espresuki arautuko da, lege honen esparruan eta hezkuntza-arloan indarrean dauden xedapenen esparruan, zer ondorio duen aldi berean bazkide laguntzaile eta bazkide erabiltzaile izateak.

2. Halako erakundeek, zuzenbidezko edozein tituluren bitartez, era guztietako ondare-ekarpenak egin ditzakete kooperatiba eratzeko edo egoki garatzeko; besteak beste, lursail, etxe eta bestelako ondasun higiezinak laga ahal izango dituzte, tresneriaz hornituak edo hornitu gabeak.

3. Estatutuek aurreikusiz gero, erakunde-mailako bazkideei lekua gordeko zaie artezkaritza-kontseiluan, eta, bazkide erabiltzaile diren aldetik, ordezkatzan dituzten ikasleen arabera boto-kopurua izango dute batzar orokorretan, baina 36. artikulua 2. puntuko mugarik gabe.

5. ATALA. Nekazaritzako elikagaien kooperatibak

112. artikulua. Helburua eta jarduera

1. Nekazaritzako elikagaien kooperatibak dira: nekazaritza-, basogintza- eta abelazkuntza-ustiategien edo ustiategi mistoen titularrak elkartzen dituztenak hornidurak, ekipoak eta zerbitzuak merkaturatzeko edo eskaintzeko edota honako hauek hobetzeko ekonomiaren eta gizartearen edozein arlotan: kooperatibaren bazkideen ustiategiak, kooperatiba bera, haren elementu eta osagaiak edo landa-ingurune bizimodua eta, besteak beste, kooperatibak bere langileekin eskaintzen dituen zerbitzuak, dela nekazaritza-lanak egiteko, dela aipatutako ustiategietan edo bazkideentzat eskaintzen dituen antzeko beste lan batzuk egiteko.

Titulartasuna partekatua bada eta erakunde hori arautzen duen legeriak ezarritako betekizunak betetzen baditu, kide biek izan ahal izango dira bazkide, edo titulartasun partekatua duen erakunde bera; nolabait ere, bazkide horiek ezingo dira bazkide izan banaka, eta ezingo dute izan boto bat baino gehiago.

Era berean, titulartasun partekatua duen erakunderen bat izendatzen bada administrazio-organoko karguren bat betetzeko, erakunde horrek ziurtagiri bidez jakinarazi behar du kide bietako zeinek beteko dituen administrazio-organoko berezko funtzioak. Betekizun hori bera bete behar da, halaber, sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan eta nortasun juridikorik gabeko erakunde kasuan.

Bazkide izatera iritsi eta hala jarraitu ahal izateko, kooperatibako estatutuen bidez konpromiso bat eskatu ahal izango da sozietatearen helburuko jardueran aritzeko, eta ez beste ezertan.

2. Sozietate-helburua betetzeko, nekazaritzako elikagaien kooperatibek, estatutuen arabera bereak dituzten jardueraz ez ezik, beste edozein ere egin dezakete, kooperatibak, bazkideen ustiategiak, haien atalak edo landa-ingurune bizimodua hobetzeko aurrebaldintza, ondorio, osagarri edo baliabide direnak, ekonomia, teknika, lan, ekologia eta gizartearen onerako diren neurrian.

113. artikulua. Hirugarrenetik eragiketak

1. Nekazaritzako elikagaien kooperatibek –balioaniztunek zein espezializatuek– jardun ahal izango dute merkataritzan eta jarduera horrekin lotuta dauden jarduerak guztietan are gehiago, honako kasu hauetan kontsumitzaileengana heldu ahal izango dira zuzenean nekazaritza-produktuekin, nahiz eta produktuok ez izan kooperatibako ustiategietakoak:

a) Ekitaldi ekonomiko bakoitzean, ehuneko bostera; portzentaje hori banan bana aplikatuko zaio hirugarrenen nekazaritza-produktuak erabiltzen dituen jarduerari bakoitzari.

b) Estatutuek aurreikusiz gero, ehuneko berrogeita bederatziraino heldu ahal izango da gehieneko portzentajea ekitaldi ekonomiko bakoitzean.

c) Kooperatibari egotzi ezin zaizkion arrazoiak daudenean, arestian adierazitako muga horiek gainditu ahal izango ditu kooperatibak, baldin eta lege honen 5. artikuluan aurreikusitako baimena lortzen badu.

Kooperatibak honako kasu hauetan azaldu ahal izango ditu estatutuetan muga horiek: sektore-araudi bereziak daudenean edo haiek aplikatzeko beste batzuk eman direnean, kooperatibari aplikatu behar zaizkionak nekazaritzako elikagaiei loturiko jarduerengatik, eta arestian adierazitako mugak baino handiagoak ezartzen direnean hirugarrenetikiko produktuatarako edo muga horiek handitzeko baimena ematen denean. Hala eta guztiz ere, estatutuetan espresuki adierazi beharko da zer xedapenek ematen duen bide portzentaje hori aplikatzeko.

2. Beren ustiategiak edo bezeroenak hornitzeko lanetan ari diren nekazaritza-elikagaien kooperatibek –berdin izanik jarduera hori bakartzat edo bereizitzat duten– bazkide ez diren hirugarrenei eskaini ahal izango dizkiete produktuak edo zerbitzuak, aurreko zenbakiko a) eta b) letretan ezarritako mugen barruan eta antzerako kasuetan; dena dela, kooperatiba-jardueraren ohiko geldikinak izanez gero, kooperatibaz kanpoko edonori eskaini ahal izango dizkiote inolako mugarik gabe.

6 . ATALA. Erkidegoan ustiatzeko kooperatibak

114. artikulua. Helburua eta eremua

1. Kooperatiba-mota hauek honako hauek elkartzen dituzte: batetik, nekazaritzan ustiatzeko izan daitezkeen ondasunak erabili eta aprobetxatzeko eskubideen titularrak, eskubide horiek kooperatibari lagatzen dizkietenak –han lanik egin gabe edo lan eginez–, eta, bestetik, erakundean lan egiten dutenak, erabiltze-eskubiderik laga ez arren. Haien helburua da: lursailak eta bestelako ekoizpen-baliabideak denon eskura jartzea nekazaritzako enpresa edo ustiategi bakar bat sortu edo kudeatzeko eta enpresa edo ustiategi horretan batzeko kooperatibak dituen ondasunak, edozein tituluren ondorioz dituenak.

Sozietatearen helburua lortzera zuzendutako edozein jarduera garatu ahal izango dute, hala nekazaritzako produktuak zuzen lortzeko jarduerak, nola ustiategiaren atal, funtzio eta prozesu guztiak eratu eta hobetzeko prestakuntza-lanak egiteko jarduerak; era berean, bilketa- eta banaketa-lanak eta lan horiekin zerikusia dutenak eta osagarri direnak gauzatzeko jarduerak egin ahal izango dituzte, eta, oro har, berez nekazaritzakoak direnak edo jarduera horien aurreko edo osteko lanak eta lan osagarriak egiteko direnak ere bai.

2. Lege honek nekazaritzako elikagaien kooperatibetarako aurreikusten duena bete beharko da hirugarrenen produktuak merkaturatzeko kooperatiba-jarduerak gauzatzeko. Lan-kontratua duen langileak ezingo dira izan kooperatibako lan-bazkide guztien ehuneko hogeita hamar baino gehiago.

3. Kooperatiba hauetan, estatutuek mugatuko zein den kooperatibaren lurralde-eremua, hau da, non garatu behar duten lan-bazkideek kooperatiba-jarduera eta non kokatu behar diren ustiapena osatzen duten ondasun higiezinik gehienak.

115. artikulua. Bazkideen araubidea.

1. Inoiz, bazkide bera, lan-bazkide ez ezik, ondasunak erabili eta aprobetxatzeko eskubideen bazkide lagatzaile ere izan ahal izango da aldi berean; hala ere, halakoetan, bazkideak boto bakarra baino ez du izango.

2. Lege honek lan elkartuko bazkide langileentzat ezartzen dituen arau berak aplikatuko zaizkie lan-bazkideei; atal honetako salbuespenak salbuespen.

3. Estatutuetan ezarriko da gutxienez zenbat denbora eman behar duten bazkideek, ondasunak erabili eta aprobetxatzeko eskubideen lagatzaile diren aldetik, kooperatiban (hamabost urte gehienez ere), eta zeintzuk diren titularren eskubideak kooperatibari eskualdatzeko arauak.

4. Maizterrek eta gozamen-eskubideren baten gainerako titularrek laga ahal izango dute ondasunak erabili eta aprobetxatzeko eskubidea, kontratuak edo lege-tituluak dirauen artean gehienez ere, baina hori ez da arrazoitzat hartuko maizterra botatzeko edo kontratua desegiteko.

Horrelakoetan, kooperatibak titularrari barkatu ahal izango dio estatutuetan ezarritako gutxienerako epe hori ez betetzea, baldin eta erabiltze- eta aprobetxatze-eskubideen titularrak konpromisoa hartzen badu dagokion lotura juridikoaren indarraldia amaitu arte lagako dituela eskubide horiek.

116. artikulua. Egitura ekonomikoa

1. Ekarpen-mota bi bereizi behar dira: benetako ondare-ekarpenak (diruzkoak izan ala ez), sozietatearen kapitala osatzen dutenak, eta bestelako ekarpenak, lana, zerbitzuak edo laguntza teknikoa emateko betebeharrean oinarritzen direnak eta ezingo direnak izan sozietate-kapitalaren parte.

2. Tokian tokiko errenta- eta lansari-mailaren parekoak izango dira soldata-ordainsarien eta ondasunen erabilera lagatzeagatik sortzen diren errentak.

Bazkideek zer jarduera bete kooperatiban, halako itzulkinak egiaztatuko zaizkie, hain zuzen ere ondasunak erabiltzen uzteagatik kooperatibak ordaindu behar dituen errenten eta lan-aurrerakinen proportzio berekoak.

3. Itzulkinak aitortzeko erabiltzen diren irizpide berak erabiliko dira galerak egozteko ere; dena den, estatutuek edo batzar orokorrak zehaztuko dute zer bete behar den lan-bazkideei gutxienerako konpentsazio bat bermatzeko: eskualde berean pareko lanaren trukean ordaintzen denaren ehuneko hirurogeita hamarrekoa izango da, behetik jota, eta inoiz ere ez lanbide arteko gutxienerako soldata baino txikiagoa.

4. Estatutuetan ezarriko da zer prozedura erabili denen artean ustia daitezkeen ondasunak balioesteko; era berean, estatutuetan arautu ahal izango da zein den obra-, hobekuntza- eta zortasun-

araubidea, gozamenerako utzi diren eta sozietatean erkidegoan ustiatzeko planaren ondorio diren ondasunei eragin diezaieketena. Era berean, arau batzuk ezarri ahal izango dira ondasunak erabiltzeko eta aprobetxatzeko eskubidea kooperatibari uzten dioten bazkideak galarazita izan dezaten ondasun horiek hirugarrenei eskualdatzea, bazkideek kooperatiban nahitaez egon behar duten denbora guztian, baldin eta, horren ondorioz, kooperatibak ezin baditu erabili eta aprobetxatu ondasun horiek.

SECCIÓN 7ª. Etxebizitza-kooperatibak

117. artikulua. Helburua, eragiketak eta eremua

1.- Etxebizitza-kooperatiben helburua da: bazkideei etxebizitzak, lokalak, eraikinak eta eraikin osagarriak eta instalazioak eskaintzea; higiezin horiek eta denek erabiltzen dituzten atal, zati edo eraikinak hobetzea, zaintzea eta kudeatzea; behar diren zerbitzuak antolatu eta ematea, eta etxebizitzak, lokalak eta eraikinak eta batzuei zein besteei zuzendutako instalazioak birgaitzea.

Nolanahi ere, kooperatibak berak garatu beharko du, zuzenean, sozietate-helburua; gutxienez, oinarrizko alderdietan. Hala eta guztiz ere, kooperatibak hirugarrenak kontratatu ahal izango ditu helburua lortzeko edo osatzeko. Kontratu horiek, berriz, legelari aholkulariaren aldeko irizpena jaso beharko dute.

2.- Etxebizitza-kooperatibek lursailak erosi, zatikatu eta hiritartu ahal izango ditu, eta, oro har, behar bezainbat jarduera eta lan egin ahal izango dituzte sozietate-helburua lortzeko.

Era berean, kooperatibaren premiak bete eta gero, merkataritza-lokalak, lursailak, instalazioak eta eraikin osagarriak besterendu ahal izango dituzte, edo hirugarrenei errentan eman ahal izango dizkiete; dena den, batzar orokorrak erabaki beharko du hori egitea.

Bestalde, kooperatibak bazkide ez diren hirugarrenei ere besterendu ahal izango dizkie sustatzen dituen etxebizitzak, baldin eta hori egin behar badu kooperatiba-sustapena finantzatzeko. Halakoetan, bazkide ez diren hirugarrenekin egindako eragiketak, behienez ere, bazkideei egindako esleipenen ehuneko berrogeikoak izango dira, eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak homologatu beharko ditu, premia hori egiaztatu beharko du eta.

3.- Etxebizitza-kooperatibek etxebizitza eta lokalak baino ezingo dituzte sustatu. Nolanahi ere, kooperatiba bakoitzak sustapen bakarra egin ahal izango du bere jardute-eremuan, zeina estatutu bidez ezarriko baita. Bazkide gehienek eremu horretan bizi beharko dute, ez bada kooperatiba gehienbat edo soil-soilik hirugarren adineko bazkideei zerbitzua emateko bada edo bigarren bizietxeak sustatzeko bada.

Horrelako kasu berezietan, posta ziurtatu hartu-agiridunarekin egingo dira batzar orokorreko deialdiak, eta bazkideek horretarako adierazitako helbidera bidaliko dira gutunak.

118. artikulua. Esleitzeko edo lagatzeko araubidea

1.- Zuzenbidez onarturiko edozein tituluren bidez esleitu edo laga ahal izango zaizkie bazkideei etxebizitza eta lokalen jabetza edo erabilpena, normalean erabiltzeko izan edo denboraldi baterako izan.

2.- Kooperatiba desegin beharko da sustatzen dituen etxebizitza eta lokalen jabetza esleitu eta gero, baina, betiere, berme-epea eta ezkutuko akatsak direla-eta erakunde sustatzaile modura erantzuteko aurreikusitako legezko epea igaro eta gero; salbu eta sozietate-estatutuek edo erakunde publikoekin sinatutako hitzarmenek epe luzeagoa ezartzen dutenean.

3.- Kooperatibak higiezin bakar modura etxebizitza eta lokal multzo bat sustatzen duenean bazkideei lagatzeko, kooperatibaren jabetzakoa izango da higiezin-multzoa, jabari oso edo beste eskubide baten modura, epe mugagabe batean; bestela, sozietate-estatutuetan hala erabakiz gero, epe mugatu batean.

Halakoetan, kooperatiba-kideek eskubidea izango dute kooperatibak esleitzen dizkien etxebizitzak eta lokalak erabiltzeko kooperatibaren estatutu eta barne-antolamenduko arauen arabera; estatutu eta barne-antolamenduko arau horiek, berriz, bazkideen eskubide eta betebeharrak arautuko dituzte.

Erabilera lagatzeko kooperatiba-mota hauetan, kapital-ekarpen bat izendatu beharko da bazkide izateko, eta higiezina sustatzeko edo erosteko kostuen araberakoa izango da ekarpen horren gehienezko zenbatekoa. Bazkideek, bestalde, aldian aldiko kuota batzuk ordaindu beharko dituzte, kooperatibako organoek finkatuak, mantentze- eta hobetze-lanetarako eta etxebizitzarako higiezinaren pareko kontzeptuetarako.

Bazkidearen bat en baja gertatzen bada, artezkaritza-kontseiluaren esku geratuko da haren erabiltze-eskubidea, eta kontseilu horrek beste bazkide bati esleituko dio. Erabiltze-eskubide hori, berriz, *mortis causa* eskualdatu ahal zaie hildako bazkidearen kausadunei, bazkidetzat onartu eta gero, betekizun orokorrekin bat etorri; horretarako, baina, haiek eskatu egin beharko dute hori egiteko, hiru hilabeteko epean. Bestela, eskubidea izango dute dagokien kreditua likidatzeko.

Itzultzen den zenbatekoari, nolana ere, lege honen 119. artikulua 2. zenbakiko bigarren eta hirugarren paragrafoak aplikatu beharko zaizkio.

119. artikulua. Bazkideen araubidea.

1.- Etxebizitza-kooperatibak eratzeke, aurreko 117. artikulua aipatzen dituen bazkide guztien % 50 beharko da gutxienez, sustatutako proiektuaren arabera; proiektu horrek, berriz, eratze-eskrittura izan beharko du. Portzentaje hori ez zaie eskatuko administrazio batekin edo gehiagorekin sustapen bat hitzartzen duten etxebizitza-kooperatibei, hargatik eragotzi gabe lege honen 19.1 artikuluan ezarritakoa.

Nolana ere, pertsona fisikoak eta kooperatibak elkartuko dira, gehienbat, horrelako kooperatibetan. Legelari aholkulariak aldeko irizpena eman, eta adierazi beharko du bazkide izateko baldintzak betetzen direla, salbu eta babes publikoko etxebizitzaren sustapenetan.

Kooperatibak esleipen-hartzaileei eskatzen badie dirua aurreratzeko eraikuntzaren kontura, diru hori

bermatuta egon beharko da, eta, horretarako, abal-kontratua edo aseguru sinatu beharko da kalte-ordainak ziurtatzeko kontratua betetzen ez den kasuetan.

2.- Jabetza esleitzen duten kooperatibetan, pertsona fisiokoek ezingo dute eskuratu bi etxebizitza baino gehiago kooperatiba-erregimenean, salbu familia ugarietarako aitorturiko eskubideak dituztenean.

Bazkideren baten baja gertatzen bada, eta estatutuek hala onartzen badute, 65. artikuluko 1. zenbakian finkaturiko kenkariak aplikatu ahal izango zaizkie bazkideak etxebizitzak eta lokalak ordaintzeko jarritako diru-kopuruei; gehienez ere, zenbaki horretan ezarritako portzentajeen ehuneko berrogeita hamarreko kenkariak aplikatu ahal izango zaizkie.

Bazkideari itzuli ahal izateko aurreko paragrafoan aipatzen diren diru-kopuruak eta sozietate-kapitalari dizkion ekarpenak, beharrezkoa izango da beste bazkide edo hirugarren batek bereganatzea haren eskubide eta betebeharrak.

Etxebizitza edo lokala esleitu aurretik bazkideak kooperatiba uzten badu, jarraitu beharko du hura eraikitzeke hartutako konpromisoei aurre egiten; gehienez ere, hura esleitzeko azken preziora iritsi arte. Hori guztia egin beharko du beste bazkide edo hirugarren batek bereganatu arte esleituta dituen eskubideak eta betebeharrak, etxebizitza edo lokalarenak. Dena den, betebeharrak bete beharko ditu beste bazkide edo hirugarren hori kooperatiban sartzen bada, baina beste etxebizitza edo lokal bat esleitzen bazaio, ez berarena.

3.- Etxebizitza-kooperatibetako bazkideen erantzukizuna mankomunatu sinplea da, eta haren gehieneko muga da: sozietatearen kapitalari egin behar dizkion ekarpenak, nahitaezkoak eta borondatezkoak, gehi eraikitzeke kontuan sartutako diru-kopuruak eta etxebizitza edo lokala esleitzeko prezioa osatzeko egin behar dituen guztiak. Salbu Administrazioak ezarritako gehienezko prezio bat duenean; izan ere, kasu horretan, prezio hori izango da erantzukizun-muga ondorio guztietarako, bai kooperatibaren aurrean, bai bazkide edo hirugarrenen aurrean.

120. artikulua. Artezkaritza-kontseilua.

1. Estatutuek espresuki besterik onartu ezean, administratzaile-kargua etxebizitza-kooperatiba batean baino ezingo da bete, ez gehiagotan.

Kargu horien titularrek ezin izango dute jaso inongo ordainsaririk beren funtzioa betetzeagatik; hala ere, lan horretan izandako gastuen kalte-ordaina jaso ahal izango dute.

2. Artezkaritza-kontseiluak behar beste ahalorde delegatu edo egiletsi ahal izango du sozietatearen helburua betetzen laguntzeko. Ahalorde horiek inoiz ere ez dira luzatuko sozietatearen helbururako gauzatzen diren egintza edo kontratuak baino gehiago, ezta eraikitzeke eta finantzatzeko oinarritzko erabakiak eta hirugarrenetik kontratuak baino gehiago ere. Ahalorde horiek, bestalde, Euskadiko Kooperatiba Erregistroan inskribatu beharko dira legelari aholkulariak aldeko irizpena eman eta gero.

121. artikulua. Kontuak auditatzeko eta legelari aholkularia izateko betebeharra

1. Etxebizitza-kooperatibek kontu-auditoretza baten esku jarri beharko dituzte urteko kontuak, haiek aztertu eta onartzeko ohiko batzar orokorrari aurkeztu baino lehenago. Lege-betebehar horrek indarra izango du bazkideei etxebizitzak edo lokalak esleitu edo laga arte.

Etxebizitza-kooperatibek legelari aholkulari bat izan beharko dute 117., 118. eta 119. artikuluek aipatzen dituzten erabakiei buruzko irizpenak emateko; legelari aholkulari horrek, bestalde, honako erabaki hauei buruzko irizpidea ere eman beharko du:

a) Bazkideak onartzeari edo atxikitzeari buruzko erabakiak

b) Bazkide-ohiak beste bazkide batzuekin edo bazkide ez diren beste pertsona batzuekin ordezkatzeko erabakiak.

c) Erakunde kudeatzailearekiko kontratuak.

d) Eraikitze-kontratuak.

e) Etxebizitza-kooperatibaren sozietate-estatutuek finkatzen dituztenak.

122. artikulua. Babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea eta eskubideak eskualdatzea

1. Etxebizitza-kooperatibak babes publikoko etxebizitzak sustatzen dituenean, mota horretako etxebizitzaren araudia bete beharko du.

2. Ondorioz, etxebizitza edo lokalak *inter vivos* eskualdatzeko, errespetatu beharko dira administrazioko sustapen-araubidean aurreikusten diren mugak eta lehentasunezko eskuratze-eskubideak; halakorik ez badago, mota horretako kooperatibei buruzko ordezkari araudi orokorra ezarriko da.

3. Aurreko paragrafoan jasotzen ez diren etxebizitza-kooperatibei dagokienez, sustapen bakoitzaren estatutuetan edo erregelamenduan zehaztuko da zer muga dituzten bazkideek etxebizitza eta lokalak besterenganatze edo errentan emateko, eta zer eskubide duten bazkidegaiek.

8. ATALA. Finantza-kooperatibak

123. artikulua. Kreditu-kooperatibak

1. Kreditu-kooperatiben helburua da: bazkideen finantza-premia aktiboak eta pasiboak betetzea; horretarako, hirugarrenekin ere jardun dezakete, eragiketa-eremu orokorrean diharduen beste edozein kreditu-etxeri berez dagozkion jarduerak eta zerbitzuak egiten.

2. Kreditu-kooperatibek baserritarren kutxa izena erabili ahal izango dute, baldin eta, beren estatutuen eta antolamenduaren ondorioz, batez ere landa-ingurunean eta ingurune horretako bizilagunei zerbitzua emateko sortzen badira.

3. Artikulu honetan arautzen diren erakundeek mailegu-kooperatibei buruzko araudia eta arlo horretako legeria beteko dute beren eraketa, egitura, funtzionamendua eta jarduera gauzatzeko.

4. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak, indarrean dauden legeekin bat etorritz, kreditu-kooperatiben gainean dituen funtzioak beteko ditu: proposatze-, arautze-, informatze- eta ikuskatze-funtzioak eta estatistika- eta diziplina-funtzioak.

124. artikulua. Aseguru-kooperatibak

1. Aseguru-kooperatiben helburua da: aseguru-arlo guztietako aseguru-jarduerak gauzatea; prima finkoko aseguruaren erakunde, prima aldakorreko erakunde edo lan elkartuko erakunde gisa antolatuta daitezke lan egiteko.

2. Era honetako kooperatibek, aseguru-erakunde diren aldetik, oinarrizko aseguru pribatuari buruzko araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen den araudia bete beharko dute, eta lege hau ere bai, adierazitako araudi bi horien osagarri modura.

9. ATALA. Osasun-kooperatibak

125. artikulua. Osasun-laguntzako kooperatibak

1. Aseguru-kooperatibak dira, eta bazkideen, asegurudunen edo haien onuradunen osasun-arloko arriskuak babestea da haien enpresa-jarduera.

2. Kooperatiba horien helburua bada bazkideen eta haien onuradunen osasun-arloko arriskuak babestea, prima finkoko aseguru-kooperatibetarako ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

3. Kooperatiban osasun-arloko profesionalak eta arlo horretakoak ez diren langileak biltzen badira beste hirugarren aseguratu batzuk artatzeko, lan elkartuko aseguru-kooperatibetako araudia aplikatuko zaie.

126. artikulua. Osasun-instalazioetarako kooperatibak

Osasun-kooperatibak dira kooperatiba hauek ere, eta, lege honen ondorioetarako, osasun-instalazioetarako kooperatibak dira: pertsona fisiko eta juridikoez osatzen direnak osasun-sorospena

emateko bazkide onuradunei eta haien senideei eta –hala balegokie– erakundeko langileei; horri begira, ospitale, klinika eta antzerakoak sustatu, tresneriaz hornitu, administratu, jagon eta kudeatzen dituzte. Era honetako kooperatibei, ospitaleetako legeria ez ezik, kontsumo-kooperatiben araudia aplikatu behar zaie; araudi horri, hala badagokio, erregelamenduz finkatzen diren egokitzapenak egingo zaizkio, zerbitzuaren berezitasunak ikusita eta kooperatiben jardute-sektorea kontuan harturik.

10. ATALA Zerbitzu-kooperatibak

127. artikulua. Profesionalen zerbitzu-kooperatibak

1. Profesionalen zerbitzu-kooperatibak dira: beren kontura lan egiten duten artisau, profesional edo artistek eratzen dituztenak hornidurak eta zerbitzuak eskaintzeko, edota beste zenbait jarduera egiten dituztenak bazkideen jarduerak egiten laguntzeko edo jarduera horien eta jarduera horien emaitzen alderdi hauek bermatu edo osatzeko: ekonomia, teknika, lana, ekologia, antolamendua edo alderdi funtzionala.

2. Bazkideak profesional liberalak edo artistak badira, artikulua honetan arautzen den kooperatiba-mota bat sortzeko ez du inolako eraginik izango dagokien proiektu eta lanei aplikatzen zaien betearazpen- eta erantzukizun-arabidean; izan ere, proiektu eta lanok zein lanbidetakoak diren, lanbide horretako arauak aplikatu beharko dira.

128. artikulua. Enpresen zerbitzu-kooperatibak

1. Enpresen zerbitzu-kooperatibak dira: aurreko artikuluko 1 zenbakian araututako sozietate-helburua izanik, arrantza-, industria-, merkataritza- edo zerbitzu-sektoreetako enpresaburu indibidualak edo enpresaburu-sozietateak elkartzen dituztenak, berdin delarik zein den haien forma juridikoa enpresa-funtzioak eta bazkideen ustiapenen jarduerak edota emaitzak errazteko, bermatzeko edo osatzeko.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakora bil daitezke ondasun- edo eskubide-erkidegoak, eta nortasun juridikorik gabeko bestelako erakundeak, baldin eta eskubideak eta betebeharrak bereganatzeko gaitasuna badute eta nork bere kideetatik ordezkari bat izendatzen badute kooperatiban jardun dezan.

129. artikulua. Garraio-kooperatibak.

1. Garraio-kooperatiben helburua da: garraio-zerbitzuak antolatzea eta/edo eskaintzea, edo helbide hori betetzen laguntzen duten jarduerak egitea.

2. Forma hauetakoren bat hartu ahal izango dute:

a) Lan elkartuko garraio-kooperatiba edo, besterik gabe, garraio-kooperatiba: garraiolari, gidari edo bestelako langileak elkartzen dituzte, elkarrekin lan egin eta garraio-zerbitzuak emateko.

Lan elkartuko kooperatiben araudia aplikatuko zaie garraio-kooperatibei; kooperatiba-mota horietan, bazkide langileak ez dira garraio-enpresen titular izango, eta ezingo dute fakturatu lana emateagatik. Bazkide horiek baja izanez gero, dirutan itzuliko zaizkie egindako ekarpenak.

b) Garraio-jarduerak gara ditzaketen garraio-enpresen titularrak elkartzen dituen garraio-kooperatiba. Kooperatibaren helburua da: bazkideen enpresa-jarduera erraztea, eta zerbitzuak eta hornidurak eta bestelako eragiketak ematea bazkideen ustiapenen ekonomia eta teknikak hobetzeko.

130. artikulua. Erakundeen zerbitzu-kooperatibak

1. Korporazio eta erakunde publikoek, fundazioek, sindikatuek eta era guztietako elkarteek era ditzakete erakundeen zerbitzu-kooperatibak, berdintasunean jokatuta, antolamendu- edo funtzio-arazo edo -premia guztiak ebazteko ezertan eragin gabe erakunde bazkide bakoitzaren autonomian edo berezitasunetan.

131. artikulua. Junior kooperatibak

1. Ikasleek sustatzen dituzte junior kooperatibak. Haien helburua da: ikasleek praktikan jartzea matrikulatuta dauden ikastetxeetan bereganatzen dituzten trebetasunak edo jakintzak, jarduera ekonomikoak garatuz ondasunak produzitzeko edo zerbitzuak emateko.

2. Mugagabea izango da kooperatibaren iraupena. Hala ere, bazkide guztietatik 2k baino ez dutenean betetzen ikasle izateko betekizuna, Junior kooperatiba-sozietate izateari utziko dio kooperatibak. Kooperatiba izateari utzi, eta, gehienez ere 30 eguneko epean, horren berri eman beharko zaio Kooperatiba Erregistroari ondorioak izan ditzan.

132. artikulua. Arau osagarriak

1. Ezingo da zerbitzu-kooperatibarik eratu lege honen arabera beste kooperatiba batzuenak diren sektoreetan jarduteko edo beste kooperatiba-mota batzuen helburu ekonomikoak lortzeko.

2. Estatutuetan zehaztuko da zein mailatako lankidetzak eskatu ahal zaien bazkideei, noraino heltzen diren kooperatibari aitortzen zaizkion koordinazio-ahalmenak eta zer indar duten; halaber, estatutuetan ezarriko da ea kooperatibak parte hartu ahal duen ala ez bazkideen jarduera, enpresa edo ustiapenak finantzatzen.

3. Atal honetan arautzen diren kooperatiba-mota hauetan guztietan, zein sektoretan, jarduera profesionaletan edo adarretan lan egiten duten bazkideek edo zer izaera duten bazkideek, alor horretako

terminoak sartu ahal izango dituzte kooperatibaren izenean.

11. ATALA. Gizarteratzeko eta laneratzeko kooperatibak

133. artikulua. Gizarteratzeko kooperatibak

1. Batez ere, desgaitasunen bat duten pertsonak eratuko dituzte gizarteratzeko kooperatibak, eta lan elkartuan oinarritu ahal izango dira bazkideek egindako produktu eta zerbitzuak antolatu, bideratu eta merkaturatzeko edo orokorrean kontsumitzen diren edo gutxi batzuek soilik kontsumitzen dituzten ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko.

2. Edozein gizarte-zerbitzu ematen duten erakunde publikoek parte hartu ahal izango dute gizarteratzeko kooperatibetan; horretarako, baina, dagokien ekarpena egin beharko dute, eta erakunde publikoko ordezkari bat izendatu. Ordezkari horrek, kooperatibako gainerako bazkideekin batera, lan egingo du laguntza teknikoa, profesionala eta soziala emateko; sozietatearen organo guztietako bileretara joango da, eta botoa izango du haietan.

3. Gizarteratze-kooperatibek inoren konturako kontratuak egin ahal izango dituzte izaera bereko taldeekin, beste enpresa batzuek egiten dituzten baldintza beretan; dena den, kooperatiba hauei ez zaizkie aplikatuko lege honen 102. artikuluko 4. zenbakiko lehenengo paragrafoak langile horiei ezartzen dizkien mugak.

134. artikulua. Laneratzeko kooperatibak

1. Laneratzeko kooperatiben helburua da: ondasunak eta zerbitzuak sortzeko edozein jarduera ekonomiko garatuz, gizartean bazterturik dauden pertsonak prestatzea, gizarteratzea eta laneratzeko pertsona horiek ohiko lan merkatuan sar daitezen.

2. Laneratzeko kooperatibek inoren konturako kontratuak egin ahal izango dituzte izaera bereko taldeekin, beste enpresa batzuek egiten dituzten baldintza beretan; dena den, kooperatiba hauei ez zaizkie aplikatuko lege honen 102. artikuluko 4. zenbakiko lehenengo paragrafoak langile horiei ezartzen dizkien mugak.

II. KAPITULUA. Kooperatiba integratzea eta taldekatzea

I. ATALA. Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak

135. artikulua. Helburua eta ezaugarriak

1. Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatiben helburua da: kooperatibak kide modura dituen elkarteen eta kidesun horren ondorioz sortzen den taldearen jarduera ekonomikoa osatzea, sustatzea, koordinatzea, indartzea edo integratzea, elkarteen estatutuetan ezartzen diren nondik norako berekin edo neurri berean.

Estatutuetan jaso beharko da zein diren kooperatiba horren organoari esleituko zaizkion funtsezko ahalmenak, beharrezkoak direnak aipaturiko helburu hori betetzeko. Ahalmen horiek, bestalde, sozietatearen helburuak dirauen artean jarraituko dute indarrean, eta bat egiten duten elkarteetako organoek ezin izango dute azertu nola erabiltzen diren ahalmen horiek; dena den, bidezko gerta daitekeen babes judiziala izan ahal izango dute.

Enpresak bateratzeko eratzen bada kooperatiba, haren estatutuetan zehaztuko da zein diren enpresa-jarduera integratuan sartzen diren arloak, zein diren taldeko zuzendaritza bateratua zuzentzeko oinarriak eta zein diren taldearen ezaugarriak.

2. Estatutuetan arautuko da, bestalde, elkartzen diren erakundeek egiten dituzten proposamenetatik zein gai edo arlotakoak izango diren aholku soilak –ez-lotesleak– bigarren mailako edo mailako handiagoko kooperatibentzat. Horri buruzko zalantzarik izanez gero, ulertuko da bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatiba horri transferitu zaizkiola sozietate-helburuarekin zuzenean lotutako ahalmen guztiak, eta haren erabaki eta jarraibideek lehentasuna dutela taldeko erakunde bakoitzaren erabakien gainetik.

136. artikulua. Bazkideen ahalmenak, bazkide bilakatzea eta bazkideen bajak

1. Sozietate hauetako eskubide osoko kide izan daitezke: maila beheagoko kooperatibak eta lan-bazkideak eta izaera publiko edo pribatuko erakunde eta pertsona juridikoak, betiere interes edo premia berak badituzte eta estatutuak hori galarazten ez badu. Erakunde hauek, guztira, ezin izango dute izan bigarren edo geroagoko mailako kooperatibaren boto guztien erdia baino gehiago; hala ere, muga estuagoak ezarri ahal izango dira estatutuetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, halako kooperatibek bazkide laguntzaileak onartu ahal izango dituzte, lege honen 19.2 artikuluko araudiaren arabera.

2. Artezkaritza-kontseiluak erabakiko du ea onartuko duen bazkide modura edozein pertsona juridiko; horretarako, kontseiluan diren kideen eta aurkeztu diren botoen bi heren lortu beharko da gutxienez, salbu estatutuetan bestelako gehiengoren bat aurreikusten denean. Estatutuek, bestalde, behin-behingo lotura-aldiak edo bi urtera arteko probaldiak arautu ahal izango dituzte.

3. Pertsona juridikoren batek bazkide izateari utzi nahi badio, eta artezkaritza-kontseiluak salbuespenik onartzen ez badio, aurreabisua aurkeztu beharko du urtebete lehenago. Kooperatibatik bereizi baino lehen, bestalde, bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibarekin hitzartutako betebeharrak bete beharko ditu, edo, artezkaritza-kontseiluak hala erabakiz gero, kalteordaina eman beharko dio kooperatibari dirutan. Gainera, eta estatutuetan kontrakorik aurreikusi ezean, bereizitako elkartearekin baja hartu aurretik hartutako konpromisoak bete beharko ditu, bi urtean gehienez ere.

137. artikulua. Araubide ekonomikoa

1. Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatiba baten sozietate-kapitalari egin beharreko nahitaezko ekarpenak zehazteko, kontuan izango da zer kooperatiba-jarduera duen hitzartuta bazkide bakoitzak kooperatibarekin, eta estatutuetan ezarriko da, edo bazkide-kopuruaren arabera, edo lege honen 60.1 artikuluan lehen mailako kooperatibetarako ezarritako irizpideen arabera.

2. Erreserba-funtsei eta –hala badagokio– kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari egotzi beharrekoak egotzi eta gero, estatutu bidez hitzartutako kooperatiba-jardueraren arabera banatuko dira emaitzak, irabazienak zein galerekin.

3. Estatutuek finkatuko dute, bestalde, zer irizpide edo moduluk definitzen duten kooperatiba-jarduera.

138. artikulua. Egitura organikoa eta boto-eskubidea

1. Zenbat bazkide pertsona juridikok duten botoa emateko eskubidea erakunde sozial bakoitzean, hainbat bazkide pertsona juridikok izango du botoa emateko eskubidea batzar orokorrean, eta, hala badagokio, lan-bazkideen ordezkariak ere izango dute botoa emateko eskubidea; dena den, gutxieneko eta gehieneko mugak finkatu ahal izango dira sozietatearen estatutuetan. Erakundeen boto-eskubidea, nolahi ere, kooperatiba-jardueran duten partaidetzaren proportzio berekoa izango da, edo bazkide-kopuruaren proportzio berekoa. Kooperatiba–sozietatea ez den erakunde baten botoak, berriz, inoiz ezgingo dira izan bazkideen botoak baino gehiago, lau bazkide baino gutxiago daudenean izan ezik.

2. Artezkaritza-kontseilu batek administratuko ditu bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak, eta kontseilu horrek, estatutuek kontraktorik aurreikusi ezean, hamabost kide izango ditu gehienez ere; bestalde, kontseilu horretan, erakunde sozial guztiak izango dute ordezkariaren bat, zuzenean edo zeharka. Bazkide diren erakunde horiek legez edo estatutuz ezartzen dena baino gehiago badira, boto gutxien dutenak beren artean elkartu ahal izango dira ordezkariak izendatzeko, baina zaindu beharko dute horren inguruan estatutuek edo barne-erregelamenduek aurreikusten dutena.

Kontseiluan izango den boto-eskubidea, berriz, kooperatiba-jardueraren proportzio berekoa edo kontseilariak ordezkatzeko dituzten erakundeetako bazkideen proportzio berekoa izan ahal izango da, batzar orokorrak ezarritako mugarekin.

Estatutuan aurreikusi ahal izango da artezkari hautatuek adituak izendatu ahal izango dituztela harik eta artezkaritza-kontseiluko kideen hereneraino iritsi arte; bestalde, berdina izango adituok kooperatibaren bateko kide diren edo ez.

139. artikulua. Likidazioa

Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatiba bat desegiten eta likidatzen bada, bazkideen artean banatuko da soberako aktiboa, azken bost urteetan jasotako itzulkinen proportzio berean, edo, bitziza laburragoa izan duten kooperatibetan, eratze-UNETIK hasita jasotako itzulkinen proportzio berean. Bestela,

bazkide bakoitzak zer neurrian parte hartu duen kooperatiba-jardueran, proportzio berean; osterantzean, hala badagokio, taldean sartutako erakunde bakoitzak kooperatiban duen bazkide-kopuruaren proportzio berean.

140. artikulua. Araudi osagarria

Atal honen aurreko artikuluetan aurreikusten ez den guztirako, estatutuetan eta barne-araubideko erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da; halakorik ez badago, berriz, lege honetan lehenengo mailako kooperatibetarako ezarritakoa bete beharko da bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatiben izaerak eta funtzio bereziek uzten duten neurrian.

2. ATALA. Ekonomia-lankidetzarako beste modalitate batzuk

141. artikulua. Enpresa-taldeak

1. Aurreko atalean kooperatibak taldekatzeko araututako moduak gorabeherak, edozein mota eta mailatako kooperatibek edozein motatako sozietate, elkarte, talde, kontsortzio eta enpresa-talde eratu ahal izango dute beren artean edo beste pertsona fisiko edo juridiko pribatu edo publiko batzuekin.

2. Era berean, sozietate-helburua bete, garatu edo bermatzeko, aurreko zenbakian adierazitako edozein erakundetan eduki ahal izango dute partaidetza kooperatibek.

3. Artikulu honetan aurreikusitako eragiketak egiteko, kreditu- edo aseguru-kooperatibek aplikatu behar zaien araudia errespetatu beharko dute beste ezer baino lehen.

142. artikulua. Kooperatiben arteko lankidetzak-akordioak

Kooperatibek lankidetzak-akordioak sinatu ahal izango dituzte beste kooperatiba batzuekin sozietatearen helburuak betetzeko. Akordio horien ondorioz, kooperatibek eta haren bazkideek hornidura-eragiketak eta produktu- zein zerbitzu-entregak egin ahal izango dituzte beraiekin akordioa sinatzen duten kooperatibekin. Eragiketa horiek, berriz, kooperatiba-jardueratzat joko dira, kooperatibek beren bazkideekin egiten dituzten jarduerak bezalaxe.

143. artikulua. Kooperatiba-taldeak

1. Lege honen ondorioetarako, kooperatiba-taldea da: edozein motatakoak izanik, zenbait kooperatiba-sozietatek osatutako multzoa; taldearen buru den erakundeak, bere aldetik, taldeak nahitaez bete beharreko ahalmenak gauzatzeko dituzte, edo taldea osatzen duten kooperatibek nahitaez bete beharreko jarraibideak emango; horrela, erabakitze-unitate bat sortuko da ahalmen horien inguruan. Taldeak kooperatiba-printzipioen arabera jardun beharko du, lege honen 1.2 artikuluan aurreikusten den moduan.

2. Integrazio ekonomikoaren mailaren arabera, integrazio bidezko kooperatiba-taldeak edo lankidetzaz bidezko kooperatiba-taldeak izango dira kooperatiba-taldeak.

Integrazio-talde kooperatiboek betekizun bi hauek beteko dituzte:

- a) Kooperatiba-taldeak zuzendaritza nagusi bat izatea taldeko kooperatiba guztientzat.
- b) Ekonomia kudeatzeko ahalmenen zentralizazio-mailari esker, kooperatibek benetako batasun ekonomiko bat lortzea, nork bere nortasun juridikoa izan arren.

Horrela ez bada, kooperatiba-taldeak lankidetzaz-talde bat osatuko du.

3. Batasun ekonomikoa egoteko, ez da nahikoa izango zuzendaritza nagusi bat amankomunean izatea; honako egoera hauetakoren bat ere gertatu beharko da:

- a) Egitatezko harreman komertzialak, finantzarioak edo ondarezkoak egotea, taldeko erakunderen baten menpekotasuna, benetakoa, dakartenak.
- b) Taldeko kooperatibek hirugarrenekin zuzenean burutzen dituzten eragiketak direla-eta, erantzukizun solidarioko akordio bat izatea kanpoetik; betiere, eragiketa horiek iraunkorrak eta beharrezkoak —ez osagarriak— badira enpresa-jarduerarako.
- c) Konpromisoa izatea aldi-aldi baliabide-ekarpena egiteko nork bere kooperatibaren emaitza-kontuen arabera, baldin eta egin beharreko ekarpenak kooperatiba bakoitzaren aurreko soberakin garbien %50 baino gehiago badira.
- d) Kooperatiba-taldeko bi sozietatek edo gehiagok harremanak izatea beren artean, eta, harreman horien bidez, kontuak finkatzeko betebeharra sortzea, 42.1 eta 43. artikuluetan arautzen den bezala.

Kasu hauetakoren bat bakarrik gertatzen bazaie taldeko kooperatiba batzuei, kooperatiba-sozietate horiek baino ez dira izango integrazio-talde kooperatibo bateko kide.

Artikulu honetan kooperatiba-taldeentzat aurreikusten den araubidea eraginkorra izan dadin, araubide horretan aurreikusitako betekizunak bete behar dira.

Interesa duen kooperatibak, berriz, idatzoharra egiteko eskatu beharko du, bai kooperatiba-talde batekoa dela jasotzeko, bai taldetik bereizten dela jasotzeko. Inskripzio hori egin ez arren, agindu honek erabateko indarra eta eraginkortasuna izango du.

4. Jarraibideak eman ahal izango dira kudeaketa, administrazio edo gobernuko hainbat eremutarako; besteak beste, honako hauek ezartzeko:

- a) Kooperatibetan, estatutu- eta erregelamendu-arauen oinarriak ezartzeko.
- b) Oinarri-erakundearen artean, sozietate-harremanak ezartzeko.

c) Aldian-aldian ekarpenak egiteko konpromisoak ezartzeko; ekarpen horiek kalkulatzeko, kontuan izango da norbere enpresaren bilakaera edo emaitza-kontua.

Hala ere, taldearekin hartutako konpromiso orokorretan oinarritu beharko dira emandako jarraibideak edo bete beharreko ahalmenak; dena den, inoiz ezingo dira exijitu, baldin eta kooperatiba bat edo gehiago espresuki salbuetsi badira zenbait arau edo konpromiso betetzeko betebeharretik.

5. Kooperatiba-taldera sartzeko onartzeko, oinarri-erakunderen baten hasierako erabakia beharko da, erakunde horren eskumen- eta funtzionamendu-arauen arabera hartua.

6. Taldearekin hartzen diren konpromiso horiek, berriz, taldearen buru den erakundeko estatutuetan formalizatu beharko dira, idatziz; eskritura publiko bidez formalizatzen ez bada, beste kontratu-dokumentu baten bidez formalizatu beharko da. Nolanahi ere, dokumentu horretan adierazi beharko da zein den kooperatiba-sozietatearen iraupena (hura mugatua bada), zer prozedura erabiliko den sozietate horretatik bereizteko eta zer ahalmen esleitzen zaizkion taldeko buru den erakundeari. Taldeko buru den erakundearen organo gorenaren erabakia beharko da, hala erabaki bada, konpromiso horiek aldatu, handitu edo amaitzeko.

7. Kooperatiba Erregistroan kooperatiba-sozietate bakoitzari dagokion orrian egingo da idatzoharra, kooperatiba talde batekoa dela edo taldetik bereizten dela adierazten duena.

8. Talde bateko kooperatiba-sozietateek hirugarrenekin zuzenean egiten dituzten eragiketen erantzukizuna eurena izango da, eta ez taldearena edo taldea osatzen duten beste kooperatiba-sozietateena.

144. artikulua. Kooperatiba mistoak

1. Kooperatiba mistoetan, gutxiengoko bazkideak daude, batzar orokorrean boto emateko eskubidea dutenak; eskubide hori, berriz, jarritako kapitalaren arabera zehaztu ahal izango da, eskusiboki edo lehentasunez. Kapital hori, bestalde, balore-merkatua arautzen duten legeen menpe dauden titulu edo kontu-idazpen bidez azalduko da.

Pertsona fisiko edo juridiko bakarrak ezin izango du izan, aldi berean, boto-eskubidea duen sozietate-zatia eta bazkide kooperatzaile, kooperatiba-sozietateen kasuan izan ezik.

Legez ezarritako kooperatiba-motaren baten barruan sartu behar dira kooperatiba mistoak; kooperatiba-kideen eskubide eta betebeharren ondorioetarako, zein kooperatiba-motatakoak izan, kooperatiba-mota horretako arauak bete beharko dituzte.

2. Kooperatiba horietan, honela banatuko da batzar orokorrean botoa emateko eskubidea:

a) Boto guztien ehuneko berrogeita hamaika, gutxienez, kooperatiba-kideei emango zaie, estatutuek zehazten duten proportzioan.

b) Boto guztien ehuneko berrogeita bederatziko kuota, gehienez ere, boto-eskubidea duten sozietate-zatien artean banatuko da, eta estatutuetan zehaztuko; estatutuek hala onartzen badute, berriz, aukera egongo da boto horiek merkatuan libreki negoziatzeko.

3. Boto-eskubidea duten sozietate-zatien kasuan, estatutuek ezarriko dute zein diren haien titularren eskubide eta betebeharrak eta zein ekarpenak egiteko araubidea; osagarri modura, sozietate anonimoei buruzko legeria bete beharko da akzioetarako.

4. Bazkide-talde bakoitzak urteko soberakinetan duten partaidetza zehazteko (berdin delarik soberakinak positiboak edo negatiboak diren), kontuan izango da zer boto-portzentaje duen talde bakoitzak 2. zenbakian aurreikusitakoaren arabera.

Boto-eskubidea duten sozietate-zatien jabeek egotzi beharreko soberakinak, berriz, haietako bakoitzak jarritako kapitalaren arabera banatuko dira euren artean. Gainerako bazkideei egotzi beharreko soberakinak, berriz, bazkide horien artean banatuko dira, lege honek araubide arrunteko kooperatibentzat definitzen dituen irizpide orokorren arabera.

5. Talde bi horietakoren baten eskubideak eta betebeharrak beste era batera arautzeko, dagokion taldearen gehiengoaren adostasuna eskatuko da; adostasun hori lortzeko, taldeok nork bere botazioa egin ahal izango dute batzar orokorrean edo biltzar berezian eta partzialean.

6. Era honetako kooperatibak sortzen direnean –bai eratzen direlako edo bai aldatzen direlako–, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak baimena eman ahal izango du estatutu bidez aurreikusteko ezen, likidatuz gero, nahitaezko erreserba-funtsa banatu ahal izango dela aurreko 4 zenbakian azaltzen diren irizpideen arabera eta sozietatearen ondasunak banatzeko 97. artikuluan ezarritako gainerako esleitze-arauak beteta.

III. TITULUA. Kooperatibak eta administrazioa

145. artikulua. Interes soziala eta onura publikoa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek bere gain hartzen dute, interes sozialeko funtzio modura, kooperatibak eurak eta kooperatibek enpresa integratu eta ordezkatzeko dituzten egiturak sustatu, bizkortu eta garatzeko lana, eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa onartzen dute gizarte-agente modura Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba guztiarekin dituzten solasaldietan.

Aginte publiko horiek, zerbitzu publikoak garatzeko eta hobetzeko, bultzatuko dute kooperatibak sortzeko eta haiek zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzeko.

Horretarako, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren laguntza eskatuko dute; kooperatiba-sistema aplikatzeko aukerei buruzko informazioa ematea sustatuko dute, batez ere enplegu berriak sortzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa txiki eta ertainen arazoei aurre egiteko, eta zabalkunde-, prestakuntza- eta orientazio-programak egitea bultzatuko dute, eta informazio hori guztia gizarte-solaskide guztiei zabalduko diete.

2. Eusko Jaurlaritzak onura publikoko kooperatibatzat joko ditu beren funtzioak garatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorra sustatzen laguntzen duten kooperatibak, betiere erregelamenduz ezartzen diren prozedura, araubide eta betekizunen arabera.

Eskubide hauek izango dituzte onura publikoko deklarazioa lortzen duten kooperatibek:

- a) Dokumentu guztietan, onura publikoko deklarazioa erabiltzeko erakundearen izenaren ondoan.
- b) Dagokien federazio edo konfederazioen bidez entzun diezaieten beren jarduerari zuzenean lotutako xedapen orokorrak edota beraientzako programa garrantzitsuak prestatzen direnean.
- c) Salbuespenak, hobariak, diru-laguntzak eta erabakitzen diren beste onura batzuk izateko: ekonomikoak, fiskalak eta administratiboak.

3. Lan-arloa adskribatuta duen sailaren bidez jardungo du Eusko Jaurlaritzak kooperatibagintzako arloan, eta sail horri, bestalde, behar dituen baliabide pertsonal eta materialak jarriko dizkio dituen sustapen-, zabalkunde-, prestakuntza- eta erregistro-funtzioak bete ditzan; dena den, horrek ez du eragotziko beste sail batzuek ere beren eskumenak betetzea, aplikatu beharreko legeri bereziak onartzen dizkienak.

4. Kalitateko zerbitzu publikoak egotea bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek aurreikusi ahal izango dute zerbitzu publikoko kooperatiba-sozietateak eratzea zerbitzu publiko horiek zuzenean emateko, zerbitzu horietatik kanpo utzita agintaritza publikoa erabiltzea eskatzen duten zerbitzu publikoak. Kooperatiba horietan, bazkide modura parte hartuko dute dagokien erakundeek edo erakunde publikoek, eta, hala badagokie, sektorean esperientzia dutela erakusten duten erakunde pribatuek ere parte hartu ahal izango dute; era berean, kooperatiba-sozietatearen helburu diren zerbitzuen erabiltzaileek eta sozietatean lan egiten duten bazkide langileek ere parte hartu ahal izango dute.

146. artikulua. Kooperatibagintza sustatu eta zabaltzeko neurriak

Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek, norik bere eskumen-eremuan, sustatu egingo dute kooperatiba-printzipio eta -balioak aztertzea eta zabaltzea, eta, kooperatiben bidez, jarduera ekonomikoak garatzen dituzten ingurune sozialak eta ekonomikoak bultzatuko dituzte; horretarako, teknologia- eta antolamendu-berrikuntzara iristen lagunduko diete, eta kooperatiba-sozietateek dituzten ekimenak bultzatuko dituzte.

Bereziki, sustapen-neurri hauek hartuko dituzte:

1. Ziurtatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba-mugimenduak ordezkariak izatea, eta bultzatuko da kooperatibagintzak ordezkariak eta solaskideak izan ditzan Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulta- eta erabakitze-eremuetan eta erakundeen ordezkariak duten organismoetan: ekonomia-, hezkuntza-, lan- eta gizarte-organismoetan. Era berean, bultzatuko da hori apurka-apurka araudian finkatu dadin.

2. Zerga-kalifikazioa gorabehera, kooperatibak handizkariak izango dira: beraz, haiei dagozkien prezioak eta tarifak aplikatuko zaizkie. Dena den, txikizkari gisa zehaztu ahal izango dituzte banaketak edo salmentak.

3. Ez dira salmentatzen joko kooperatibek bazkideei entregatzen dizkieten ondasunak eta zerbitzuak, kooperatibek berek sortzen dituztenak edo beren helburuak betetzeko hirugarrenei erosten dizkietenak.

4. Legez onartutako edozein sailkapen-motaren bitartez beren enpresak kontzentratzen dituzten kooperatibek, bestalde, enpresa-taldekatzeari eta enpresa-kontzentrazioari buruzko legeriak eskaintzen dituen onurak izango dituzte.

5. Lan elkartuko kooperatibek eta bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibek lehentasun- eskubidea izango dute, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eta haien mendeko erakundeek lehiaketa edo enkaterako deialdirik egiten badute obra, zerbitzu eta hornidurak egiteko eta berdinketarik suertatzen bada lehiaketa edo enkante horietan.

6. Artikulu honetako 1. zenbakian zehaztutako handizkari-izaera eragotzi gabe, kontsumo-kooperatibak kontsumitzaile zuzentzat joko dira ondorio guztietarako, baldin eta beste batzuek zuzkitu edo hornitzen badizkiete beren eginkizunak garatzeko behar dituzten produktu edo zerbitzuak.

7. Ondorio guztietarako, kooperatiba barneko lehen mailako eraldaketa-jardueratzat joko dira nekazaritzako elikagaien kooperatibek eta haiek taldean biltzen dituzten bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibek produktu edo gaien bitartez gauzatzen dituzten eragiketak, baldin eta produktu edo gai horiek bazkideen ustategietarako baino ez badira zuzentzen. Kasu horretan, berdin izango da eragiketa horiek gauzatzeko erabiltzen dituzten produktu edo gaiak hirugarren batzuek hornitzen dizkieten edo ez.

8. Sozietate-helburuak betetzeko, etxebizitza-kooperatibek kudeaketa publikoko lursailak erosi ahal izango dituzte zuzeneko esleipen-sistemaren bidez.

9. Hezkuntza-arloan, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen du, bere eskumenen eremuan, deialdi bereziak egiteko ikaskuntza-kooperatibetan egindako inbertsioak finantzatzen laguntzeko, eta, hezkuntza-programak sustatuz, lankidetzako ikaskuntzako balioak eta printzipioak sartzeko hezkuntza-sistemako maila guztietako hezkuntza-curriculumetan, haur-hezkuntzatik hasi eta unibertsitate-prestakuntzara iritsi arte.

10.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak neurriak hartuko ditu kooperatiben presentzia kuantitatiboa eta kualitatiboa sustatzeko hainbat sektoretan; esate baterako, landa-garapenean, menpekotasunean, gizarteratzeko sektorean eta laguntza-jardueretan. Horretarako, bere eskumenak erabili, eta kooperatibek kontratazio publikoko prozeduretan parte hartzea sustatuko du.

147. artikulua. Kooperatiba-ikuskaritza

1.- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari dagokio ikuskaritza-funtzioak betetzea lege hau garatzeko; hala ere, Eusko Jaurlaritzako sailek edota beste administrazio publiko batzuek ere funtzio horiek bete ahal izango dituzte, nor bere eskumenen arabera.

2.- Batez ere, aurrea hartzeko eta lege hau hobeto betetzen laguntzeko beteko dira ikuskaritza-funtzioak. Kasu bakoitzeko egoerek aholkatzen dutenean, ikuskaritzak, ezer egin baino lehenago, ohartarazi eta aholkatu ahal izango du, betiere kalterik eta galerarik ez eragiteko eskubide legitimoen titularrei. Ikuskaritzaren helburu den jokaera zuzentzeko eta konpontzeko, errugabetu, eta ikuskatze-espeditentea amaituko da.

3.- Lege honetan tipifikatutako arau-haustekak izan direla ziurtatuz gero eta haiek ezin badira zuzendu edo konpondu, administrazio-salaketako idazkia egingo da ikuskaritza-prozedura amaitzeko; idazki hori, berriz,

Eusko Jaurlaritzan kooperatiba-arloaren eskumena duen sailean aurkeztu beharko da dagokion zehapen-prozedura hasteko.

4.- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari ematen zaion ikuskatze-funtzioa arautzeko, garapen-erregelamendu bat emango da, lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean onartuko dena.

5.- Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak lankidetzeta-hitzarmen bat adostu eta ezarri beharko dute kooperatiben arau-hauste eta zehazpenen inguruko aurreikuspen-, aholku- eta informazio-jarduketak eta -kanpainak garatzeko.

148. artikulua. Kooperatiben arau-haustek

1.- Lege honetan arau-hauste modura tipifikatuak ekintzen eta ez-betetzeen erantzule dira: kooperatiba-sozietateak, administratzaileak, zuzendari eta kudeatzaileak, ahaldunak, zaintza-batzordeko kideak eta likidatzaileak; betiere, dena delako arau-hauste edo ez-betetzea pertsonalki egotzi ahal zaien neurrian.

2.- Arau-hauste oso astunak dira:

a) Soberakin baliagarrien inguruan lege honek aipatzen dituen gutxieneko portzentajeak ez zuzentzea nahitaezko erreserba-funtsera eta kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenera.

b) Kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena ez aplikatzea lege honek zehazten duen moduan.

c) Bazkideen artean banatzea nahitaezko gizarte-funtsak, erreserba-funts banaezinak edo likidazioaren ondorioz geratzen den ondasun garbia, eta, horrela, lege honek aurreikusitakoa haustea.

d) Lege honetan aitortutako kooperatiba-printzipioak haustea, edo kooperatibaren figura tresna modura faltsuki erabiltzea kooperatibarekin zerikusirik ez duten helburuak ezkutatzeko.

3.- Arau-hauste larriak dira:

a) Orokorrean edo behin eta berriro urratzea bazkideen eskubideak, proposamenak egiteari eta parte hartzeari buruzkoak.

b) Galerak egozteari buruzko lege-xedapenak urratzea.

c) Kooperatibak konpentsatu gabeko galerak dituenean, ez betetzea kooperatibako balantzearen erregularizazio-emaitzaren helmugari buruzko arauak.

d) Lege-xedapenak urratzea eta sozietatearen kapitalari egin beharreko ekarpenen interesak sortzaraztea.

e) Legeak espresuki debekatzen dituen hiru gurekin eragiketak, halako eragiketak egitea.

f) Objekzioak jartzea eragozpenak jartzearen administrazioak jarritako salaketa-idazkiaren bidez egiaztatutako ikuskatze-lana egin ez dadin, edo ez onartzea halako lanik egitea.

g) Besteren konturako langileak kontratatzean, legeak araututako mugak gainditzea.

4.- Arau-hauste arinak dira: lege honetan ezarritako debekuak urratzea, baldin eta gatazkarik sortzen ez badute alderdien artean eta ezin badira jo astuntzat edo oso astuntzat.

149. artikulua. Kooperatiben zehapenak

1. Arau-hauste arinek 300 eurotik 1.000 eurora arteko isuna izango dute. Arau-hauste astunek, berriz, 1.000 eurotik 3.000 eurora arteko isuna. Arau-hauste oso astunek, azkenik, 3.001 eurotik 30.000 eurora arteko isuna, eta bide emango dute kooperatiba deskalifikatzeko hurrengo artikuluan arautzen den moduan.

2. Arau-hauste arinak, astunak eta oso astunak mailakatu egingo dira gutxieneko zehapena aplikatzeko, erdiko aplikatzeko edo zehapenik handiena aplikatzeko; horretarako, kontuan izango da zer garrantzia duten, zer ondorio duten ekonomian eta gizartean, eta nola jokatzen duten arau-hausteeak (asmo txarrez, faltsukeriaz edo arau-haustean berreroriz), eta zein den zehatutako kooperatibako ahalmen ekonomikoa edo haren eragiketa-bolumena edo zenbat pertsonari eragiten dien, berdina izanik pertsona horiek bazkideak diren ala ez. Zehapenak mailakatzeko, bestalde, kontuan hartuko da ea aurretik ikuskatzealdian egindako ohartarazpenak eta errekerimenduak bete diren ala ez edo kooperatibak bete dituen ala ez hartutako konpromisoak.

3.- Arau-haustean berreroriz gero, goragoko mailan kalifikatu ahal izango da arau-haustea. Berrerortzetat joko da lehendik zehapen-prozedura operatibo batean zehatuta dagoen eta maila bera edo handiagoa duen beste arau-hauste bat egitea, irmo bilakatu dena.

Aurreko zehazpena irmo bilakatu eta bi urte igaro ostean, ez da berrerortzetat joko beste arau-hauste bat egitea. Nolanahi ere, arau-haustea behin eta berriro eginez gero, zehapen gehigarri bat ere ezarri ahal izango da, isun nagusi modura ezarri denaren ehuneko hogeira artekoa izan daitekeena.

4.- Epe hauetan preskribatuko dira lege honetan ezarritako arau-haustea: arau-hauste arinak sei hilabetera preskribatuko dira; astunak, urtebetera, eta oso astunak, azkenik, arau-haustea gertatu eta bi urtera.

5.- Eusko Jaurlaritzan kooperatiba-arloko eskumenak dituen sailari dagokio proposamena egitea kooperatiba zehatzeko prozedura arautzen duen erregelamendua onartzeko, Administrazioaren zehapen-arabidea eta haren printzipio eta bermeak aplikatzeko legeriaren arabera. Inoiz ezingo da zehapenik ezarri, baldin eta aurretik ez bada egin dagokion espedientearen arestian adierazitako printzipio eta bermeen arabera.

150. artikulua. Kooperatibari kalifikazioa kentzea

1.- Hona zein diren kooperatibei kalifikazioa kentzeko arrazoiak:

a) Lege honen 148.2 artikuluan oso astuntzat jotzen diren arau-haustek egitea, baldin eta ekonomian edo gizartean kalteak eragiten badituzte edo eragin ahal badituzte, edo kooperatiba-printzipioak behin eta berriro eta nabarmenki urratzen badituzte.

b) Kooperatiben organo sozialek jarduerarik ez izatea, edo haien sozietate-helburua ez betetzea hiru urtean.

c) Oro har, sozietatea kooperatiba moduan kalifikatu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak galtzea edo haiek ez betetzea, salbu kooperatiba deusezteko kausak daudenean.

d) Zehapen-espediente baten ondorioz emandako ebazpen irmoa, aurreko artikuluan adierazten denaren ondorioz emana.

2. Eusko Jaurlaritzan kooperatiba-arloko eskumena duen sailak jakiten duenean kooperatiba bati kalifikazioa kentzeko arrazoa dagoela, errekerimendua egingo dio kooperatibari horri zuzendu beharrekoa zuzen dezan; horretarako, gehienez ere sei hilabeteko epea emango dio, jakinarazpena jasotzen duenetik kontaturik edo errekerimendu hori argitaratzen den unetik aurrera. Errekeritutakoa ez betetzeak kalifikazioa kentzeko espedientea hastea ekarriko du.

3. Bere aldetik, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak dakienean kooperatiba bat erori dela kalifikazioa kentzeko kausaren batean, kooperatiba horri eskatuko dio hori gehienez ere hiru hilabeteko epean zuzen dezan, errekerimendu formalaren egunetik aurrera; epe horretan zuzentzen ez badu, Kontseiluak kalifikazioa kentzeko administrazio-salaketa aurkeztu beharko du Eusko Jaurlaritzan eskumen hori duen organoan.

4. Kooperatibari kalifikazioa kentzeko prozedura horrek honako berezitasun hauek izango ditu administrazio-prozedura erkidea zuzentzen duten arau orokorren aldean:

a) Eusko Jaurlaritzan kooperatiba-arloaren eskumena esleituta duen sailburuak izango du kalifikazioa kentzeko erabakia emateko eskumena, nahitaezko prozedura –kontraesanekoa– bete eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak txostena eman eta gero. Txosten hori formalki eskatu beharko da, eta izapide hori egintzat joko da, baldin eta, txostena eskatu, eta hirurogei eguneko epean igortzen ez bada. Kontseiluak berak jarritako salaketa baten ondorioz hasten bada kalifikazioa kentzeko prozedura hori, kasu horretan ere beti eskatuko da kontseiluaren txostena. Kalifikazioa kentzeko prozeduraren ondorioetarako, lotesleak izango dira Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko txostenak.

b) Entzunaldiaren nahitaezko izapidea betetzean, administratzaileen bidez pertsonatuko da kooperatiba, edo, halakorik ez badago, gutxienez hiru bazkide pertsonatuko dira; salbu kooperatiba txikia denean eta nahikoa denean bazkide bakarra pertsonatzea. Kooperatiba pertsonatzen ez bada, betetzat joko da izapidea, eta ohar bat argitaratuko da, gutxienez bitan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta beste bitan egunkari batean: zein udalerritan dagoen kooperatibaren sozietate-egoitza, udalerrri horretan zabalkunde handia duen egunkari batean.

c) Bide judizialek berrikusi ahal izango da kalifikazioa kentzeko administrazio-ebazpena, administrazio-bidea amaitzen duena, eta ezin izango da inola ere betearazi harik eta epai hori berresten duen epai irmoa eman arte.

5. Behin kalifikazioa kentzeko ebazpena irmoa denean, ofizioz izango ditu erregistro-ondorioak, eta horrek ekarriko du kooperatiba sei hilabeteko epean desegitea edo eraldatzea, administrazio-ebazpena betearazlea denetik aurrera. Epe hori amaitu eta gero, kalifikazioa kentzeak kooperatiba desegitea nahitaez ekarriko du nahitaez. Une horretatik aurrera, administratzaileek, zuzendari kudeatzaileek eta, hala dagokionean, likidatzaileek pertsonalki eta solidarioki erantzungo dute sozietatearen zorrenatik beren artean eta kooperatibarekin; hargatik eragotzi gabe lege honek tipifikatzen dituen beste arau-hauste batzuk egin ahal izatea.

151. artikulua. Kooperatibetan aldi batean esku-hartzea

1.- Kooperatiba baten funtzionamenduan diren irregulartasunen ondorioz premiazko neurririk hartu behar bada bazkideen edo hirugarren batzuen interesak larriki ez lesionatzeko, Eusko Jaurlaritzan kooperatiba-arloko eskumena esleituta duen sailak honako neurri hauek hartu ahal izango ditu –ofizioz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eskatuta edo edozein interesdunek arrazoiak eman eta eskatuta– kooperatiban esku-hartzeko aldi batean:

a) Kontu-hartzaile bat edo gehiago izendatzea. Kontu-hartzaile horrek, berriz, ahalmena izango du batzar orokorreko deia egiteko eta haren eguneko gai-zerrenda ezartzeko eta batzarburu jarduteko.

b) Kontu-hartzaile bat edo gehiago izendatzea kooperatibako organoak gainbegiratu eta kontrolatzeko; kontu-hartzaile horiek onartu ezean, kooperatibaren erabakiek ez dute baliorik izango, eta erabat deusezak izango dira.

c) Aldi baterako etetea kooperatibako administratzaileen jardute-ahalmena, eta behin-behineko administratzaile bat edo gehiago izendatzea haien funtzioak beregana ditzaten.

2.- Neurri horiek hartzeko, txostena eman beharko du Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak. Txosten hori, bestalde, hamabost eguneko epean eman beharko da; epe hori ezin izango da luzatu, eta, hura igaro eta gero, egintzat joko da izapide hori.

3.- Neurri hori ezartzeko arrazoia desagertu eta gero, Eusko Jaurlaritzan kooperatiba-arloko eskumena esleituta duen sailburuak erabakiko du ea kendu behar den ala ez aldi batean esku hartzeko neurri hori. Akordio horiek indarra izango dute Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egunetik aurrera.

IV. TITULUA. Kooperatiben elkartegintza

I. KAPITULUA. Kooperatiba-elkarteak

152. artikulua. Printzipio orokorrak

1. Kooperatiba-sozietateak diren aldetik, kooperatibek askatasunez eta beren borondatez elkartu ahal izango dira kooperatiba-batasun, -federazio eta -konfederazioetan beren interesak defendatzeko eta sustatzeko; dena den, beste moduren batean ere elkartu ahal izango dira, elkartze-eskubidea arautzen duen legeri orokorraren arabera.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba-mugimendua osatzen dute hala kooperatibek nola kooperatiba-batasunek, -federazioek eta -konfederazioek eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak.

Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoek hartu beharreko neurri guztiak hartuko dituzte kooperatiben arteko batasunak eta haien arteko lankidetzaren harremanak sustatzeko, eta programak sustatuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba-erregistroak berrikusi, eguneratu eta teknikoki arazteko.

153. artikulua. Kooperatiba-batasunak, -federazioak eta -konfederazioak

1. Jarduera ekonomikoko sektore bereko kooperatiba bik edo gehiagok kooperatiba-batasun bat eratu ahal izango dute.

2. Mota bereko kooperatiba-sozietateek federazioak eratu ahal izango dituzte beren artean edo kooperatiba-batasunekin, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta badaude edo han badute egoitza.

Kooperatiba-batasunek "Euskadiko" hitza gehitu beharko diote sozietatearen izenari, baldin eta, Kooperatiba Erregistroan inskribatuta eta jarduera egiaztatuta duten kooperatibetatik, gutxienez ehuneko berrogei elkartzen badira edo federatutako erakundeetako bazkide-kopurua handiagoa bada erregistro horretan izena emanda duten eta jardunean ari diren kooperatibetako bazkide guztien portzentaje berari dagokion bazkide-kopurua baino.

Azken federazio horiek, nolana ere, ordezkariak izango dituzte Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluan, erregelamenduz ezarritako forman eta kopuruan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, mota desberdinetako kooperatiba-federazioek bat egin ahal izango dute kooperatiba-mota desberdinak ordezkatzeko dituzten federazioak sortzeko.

3. Kooperatiba-federazioek konfederazioak eratu ahal izango dituzte.

Konfederazio batek Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta dauden kooperatiba-federazioen ehuneko hirurogei biltzen badu gutxienez, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa izango da haren izena.

4. Hona zein diren kooperatiba-batasun, -federazio eta -konfederazioen eginkizunak:

- a) Elkartzen diren bazkideak ordezkatzeari, estatutuaren ezaugarriaren moduan.
- b) Adiskidetzaren lanak egitea batzen dituzten erakundearen artean sortzen diren gatazketan edo erakunde eta bazkidearen artean sortzen direnetan.
- c) Bazkidearen interesari komeni zaizkion, aholkularitza-zerbitzuak antolatzea laguntza juridikoa, kontabilitatekoa eta teknikoa emateko.
- d) Kooperatiba-sustapena eta -prestakuntza bultzatzea.
- e) Kooperatiba Erregistroarekin lankidetzan jardutea erregistro horretan inskribatuta dauden sozietateen zentsua eguneratzeko eta arazteko lanak egiteko.
- f) Antzeko beste edozein jardura egitea.

5. Lege honen babesean eraturako kooperatiba-batasun, -federazio eta -konfederazioek nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmen osoa izateko, eratzeari aurreko behar behar dute eskumena duen Kooperatiba Erregistroan beren sustatzaileen bidez; eratzeari, berriz, honako hauek jasoko dituzte:

- a) Erakunde sustatzaileen zerrenda.
- b) Elkartzeko erabakiaren egiaztagiria.
- c) Erakundearen ordezkari- eta gobernu-organoren osaketa.
- d) Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren Kooperatiba Erregistroko Sekzio Nagusiak eta enplegu-erlortzeko eskumena esleituta duen saileko eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Euskadiko Kooperatibaren Erregistroak egindako egiaztagiriak, izen bera duen beste erakunderik ez dagoela ziurtatzen dutenak.
- e) Sozietate-estatutuak. Estatutu horiek honako hauek jasoko dituzte:
 1. Zein den erakundearen izena.
 2. Zein diren erakundearen helbidea eta lurralde- eta jardute-eremua.
 3. Zein diren ordezkari- eta administrazio-organok; nola jarduten duten organo horiek, eta zein den kargudunak hautatzeko araubidea.
 4. Zer betekizun eta prozedura bete behar diren elkartutako erakunde izateko eta izaera hori gaitzeko, eta zein den estatutuak aldatzeko eta erakundeak batzeko eta desagaitzeko araubidea.
 5. Zein den erakundearen araubide ekonomikoa. Adierazi behar da zein den erakundearen baliabideen izaera, jatorria eta helburua, eta zer baliabide duten erakunde elkartuek erakundearen egoera ekonomikoa ezagutzeko.
 6. Artikulu honetan arautzen diren erakundeekin Kooperatiba Erregistroak egin behar dituen jarduerak ez dute eratzeari izango, eta elkarteen gaineko erregistro-araubidea bete behar dute.

II. KAPITULUA. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.

154. artikulua. Izaera, osaera eta funtzioak

1. Kooperatibagintza sustatu eta hedatzeko organo goren gisa eratu zen Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusia; erakunde publikoa da, eta haren eginkizuna da: Euskal Autonomia Erkidego administrazio publikoek kooperatibagintzaren arloko gaiei buruz egiten dituzten kontsultak jasotzea eta administrazio publiko horiei aholkuak ematea. Nortasun juridiko propioa izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarenaz bestelakoa; era berean, ahalmen osoa izango du bere funtzioak betetzeko lan egiteko.

2. Hona zein diren Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren funtzioak:

a) Kooperatiba-mugimenduaren printzipioak zabaltzea; erraztasunak ematea eta lankidetzak eskaintzea kooperatibak garatu eta sustatzeko programak ikertu, planifikatu eta betetzeko, eta kooperatibei buruzko heziketa eta prestakuntza bultzatzea.

b) Nahitaez, kooperatibei edo haien elkarteei informazioa ematea zuzenean eragiten dieten lege- edo erregelamendu-xedapenetako proiektuei buruz, eta azterlanak eta proposamenak egitea eta irizpenak ematea bere eskumeneko gaiei buruz.

c) Administrazioarekin lankidetzan jardutea lege honetan aurreikusitakoa zabaldu eta betetzeko; bereziki, kooperatiba-printzipioak.

d) Interes amankomuneko zerbitzuak antolatzea kooperatiba-federazioentzat, eta, hala badagokio, kooperatibentzat.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen eta ekonomiaren antolamenduari buruzko lege- eta erakunde- araubidea hobetzen laguntzea, eta, hori lortzeko, egon dauden erakunde eta organismoetan parte hartzea.

f) Arbitraje-bidez esku hartzea kooperatiben artean, kooperatiben eta haien bazkideen artean edo kooperatiben baitan bazkideen artean sor daitezkeen auziak ebazteko, baldin eta alderdi biek eskatzen badute edo alderdiok hori egitera behartuta badaude beren estatutuen, barne-erregelamenduaren edo konpromiso-klausula baten arabera. Auzigaiok, nolana ere, alderdiek askatasun osoz eta zuzenbidearen arabera erabakitako gaiei buruzkoak izan beharko dute; batez ere, kooperatiben printzipio, arau, ohitura eta jokabideak interpretatu eta aplikatzeari buruzkoak.

Edozein delarik ere kooperatiba-mota, kooperatibetako bazkideen eta kooperatiben artean sortzen diren auziak ebazteko, kooperatibako barne-bidea –lege honetan eta hura garatzeko arauetan, sozietate-estatutuetan edo kooperatibaren barne-arauetan ezartzen dena– agortu beharko da gatazkak ebazteko bidetik jo baino lehen; hau da, barne-bidea agortu beharko dute jurisdikzio arruntera edo epaiketaz kanpoko bidera jo baino lehen.

g) Lege honek gomendatzen dizkion gainerako guztiak.

3. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua osatuko dute: kooperatiben ordezkariak, Eusko Jaurilaritzako ordezkariak eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako ordezkariak.

Kontseilu horren % 50ekoa izango da kooperatiben ordezkariak, eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren bidez gauzatuko da.

4. Erregelamenduz zehaztuko da zein diren Kontseiluko organoen egitura, osaera eta funtzioak, zein den lehendakaria eta idazkaritza nagusi teknikoa hautatzeko sistema eta zein diren haien eskumenak eta langileen lan-araubidea.

5. Ekonomia- eta finantza-autonomiako printzipioan oinarrituta, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiak bere aurrekontua onartu eta betearaziko du; aurrekontu hori finantzatzeko, honako diru-iturri hauek erabiliko ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izendatzen zaizkion diru-kopuruak,
- b) 97.2 artikuluko a) eta e) letretan definitutako diru-kopuruak,
- c) Kooperatiben ekarpenak,
- d) Bere jarduera eta ondasunen ondoriozkoak,
- e) Beste diru-sarrera publiko edo pribatu batzuk, arau bidez onartuta dituenak edo kostu-bidez edo irabazte-xedez jasotzen dituenak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Epeak zenbatzeko modua

Lege honetan zehaztutako epeetan, egun baliiodunak joko dira eguntzat, eta kanpoan utziko dira jaiegunak; hilabeteka edo urteka finkatutako epeak, berriz, data-egunetik data-egunera neurtuko dira. Muga-eguneko hilean hasierako egunaren baliokiderik ez bada, hilaren azken egunean bukatuko da epea.

Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduna arte luzatuko da epea.

Bigarrena. Lan elkartuko garraio-kooperatibak

Lan elkartuko garraio-kooperatibetan itzuli beharreko ekarpenei dagokienez, 129.2.a artikulua ez zaie lan elkartuko garraio-kooperatibei aplikatuko, baldin eta dagoeneko eratuta badaude.

Hirugarrena. Urteko programak, kooperatibagintza bultzatu eta sustatzekoak

Eusko Jaurlaritzak, enplegu-arloa esleituta duen sailaren bidez, urteko programak prestatu eta gauzatuko ditu kooperatibagintza bultzatu eta sustatzeko, batez ere kooperatibetako enplegua sortzeko; dena den, aurretik txostena eman beharko du Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak.

Laugarrena. Tratu-berdintasuna enplegua sustatu eta finkatzeko arloan

Enplegua sortzeko edo finkatzeko pizgarriei buruzko arauak ezartzean eta betearaztean, debekatuta dago lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak eta beste edozein kooperatiba-motatako lan-bazkideak bereiztea: EAEk, enpleguak sortzeko eta finkatzeko dituen eskumenetan oinarrituta, besteren konturako langileentzat ezartzen dituen arau eta pizgarri guztiak aplikatuko zaizkie.

Bosgarrena. Genero-berdintasuna

Kooperatiba-sozietateak ahaleginak egingo dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin beren organo guztietan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Izapidetzen ari diren espedienteak.

Orain arte indarrean izan diren xedapenak aplikatuko dira lege hau indarrean sartu aurretik hasita zeuden espedienteak izapidetzeko eta ebazteko.

Bigarrena. Egungo estatutuak aplikatzea

Kooperatiben estatutuen edukia ezin izango da ezarri lege honetan ezarritakoaren kontrakoa bada, eta ulertuko da lege honetako agindu- edo debeku-arauek eduki hori aldatzen eta osatzen dutela.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Aurreko legeria indargabetzea

Indargabetuta geratzen dira: 4/1993 Legea eta lege honek ezarritakoaren aurka dauden arau guztiak, maila berekoak edo beheragokoak.

Bereziki, indargabetuta geratzen da ekainaren 25eko 6/2008 Legearen 3. artikuluko 5. zenbakia (6/2008

Legea, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeita hamar egunera sartuko da indarrean lege hau.

Bigarrena. Aplikazio-eremua

Kooperatiba-sozietate guztiei aplikatuko zaie lege hau, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan badute sozietatearen egoitza eta batez ere lurralde horretan betetzen badute kooperatiba-jarduera Kooperatiben uztailaren 15ko 27/1999 Legearen 2 A artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena. Beste kooperatiba-mota batzuk

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak nahitaezko txostena eman eta gero, Eusko Jaurlaritzak, enplegu-arloa adskribatuta duen sailak proposatuta, kooperatiba-mota berriak arautu ahal izango ditu, eta, haien berezitasun sozioekonomikoetan oinarrituta, arau bereziak ezarri ahal izango ditu, lege honetan ezarritako printzipioak eta ezaugarriak errespetatuz.

Laugarrena. Zenbatekoak eguneratzea

Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloa adskribatuta duen sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak aldatu ahal izango du zenbatekoak izango diren lege honetan finkatutako zehapenak eta bestelako zenbatekoak.

Bosgarrena. Legea aplikatzea eta garatzea

1. Enplegu-arloko eskumena esleituta duen sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak arauak eman ahal izango ditu lege hau aplikatzeko eta garatzeko.

2. Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak Kooperatiba Sozietateen Erregistroari buruzko erregelamendu berri bat onartuko du. Erregelamendu horrek, berriz, espresuki aurreikusi eta arautuko du nola izapidetu elektronikoki erregistro-espeditentak, eta erregistro-eragiketak sinplifikatuko ditu; nolana ere, zaindu beharreko segurtasun juridikoa zainduko du interesdunekiko hartu-emanak errazteko; batez ere, inskripzioak eta inskripzioekin lotutako egintzen gordailua, kontsultei erantzuteko modua eta publizitate formala errazteko.

3. Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bat arautuko du honako hauek arautzeko: batetik, lege honen 147. artikulua aipatzen duen ikuskatze-funtzioa, eta,

bestetik, kooperatibak zehatzeko araubidea, lege honen 149. artikuluan aurreikusten dena Administrazioaren zehapen-araubidea aplikatzeko legeriaren eta haren printzipio eta bermeen arabera.

4. Kooperatiba Erregistroarekin eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin koordinatu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako organo eskudunek arauak eman ahal dituzte kooperatibei datuak eskatzeko estatistika ondorioetarako; betiere, estatistika-arloko legerian ezarritakoaren arabera.